



guraso.eus

Gurasoen premiak asetzeko gunea

Urtekaria '22

Sarrera

Hizkuntza erraldoian erdian bizi da gurea, eta erraldoien artean, esparru anitzetan, txikitasunetik lekua egiten gabiltza aspaldian. Sareek eskaintzen digute honetarako aukera; Sare digitalak eta adituen sareak bat egiten dute guraso.eus egitasmoan eta Arrasatetik osatu dugun elkarlanak (Arrasateko Udala, Goiena Komunikazio taldea eta Txatxilipurdi elkarteak) hauspotuta, gurasotasuna eta hazkuntza bezalako gai garrantzitsuen inguruan euskaraz hausnartzeko

Esku artean edo pantaila aurrean duzuna 2022. urtean guraso.eus eko kolaboratzaileek idatzitako artikulak batzen dituen dokumentua da. Kolaboratzaile bakoitzak bere esparrutik; batzuk esperientzia pertsonalak oinarri hartuta, besteek ogibideak eskaintako eskarmentutik eta beste batzuk eraldatzeko griñetik idatziak. Askatasun osoa utzi diegu aurtengoan ere, eta antzemango duzuenez gai askotarikoak oso estilo ezberdinetako artikuluetan argitaratu ditugu.

Kolaboratzaileak



Ane Ablanedo



Nerea Agirre



Amelia Barquin



Maider Garcia de Vicuña



Leire Etxezarraga



Jone Zalduegi



Txusma Azkona



Amaia Agiriano



**Ainhoa Barrenetxea/
Leire Telleria**



Gorka Torre



Idoia Larrañaga



Nahia Alkorta



Mireia Centeno



Mikel Egibar



Laura Bueno



**Nora Barroso/
Nekane Martiarena**



Ainhoa Aira Calero



Nora Salbotx



Naroa Martinez



Jabier Agirre



Maider Eginu



Aiora Beristain



Itziar Arregi



Koldo Gilsanz



Naiara Corcuera



June Fernandez



Juanma Feito



Nerea Mendizabal



Itxaro Mendizabal



Irati Aizpurua



Dorleta Kortazar



Maite Garitano



Mikel Azkarate-Askasua

Amatxo, ez dakit o-n-d-o margotzen.

Nerea Agirre

Atzo etxean bizi izandako pasarte baten harira idazten dut. 3 urteko semea lehengusinarekin egon zen aiton amonen etxean. Umeak entretenitzeko ordenagailutik ateratako irudi batzuk zituzten margotzeko. Antza denez lehengusina (4 urtekoa) irudiaren marra barrutik margotzen ari zen eta gure semea ez. Orduan lehengusinak gaizki ari zela esan zion. Bera, desmotibatuta eta burumakur aitarengana zuzendu zen, ez zela margotzen trebea eta ez zuela gehiago egingo. Etxean amari hori kontatzen hasi zenean, eskolan ere lagunek beti gaizki margotzen zuela esaten ziotela, hauskor eta triste.


Hamaika bider esana nion, marrak existitzen direla, baina marren alde batetik nahiz bestetik margotu edo aritu daitekeela, bakoitzak erabakitzen duela, bakoitzak bere gustuaren arabera egiten duela. Hala ere, lehengusina eta eskolako lagunen hitzak errotuago, ozenago, gordinago iritsi zaizkio.

Aizue, ez dakit zuenean baina gure etxean oraindik lo orduak oso merke ez dauden honetan gaurko gauak batzuk lapurtu dizkit. Lo egin gabe egon naiz, pasarteari jira eta buelta. Zer ari ote gara sustatzen? Nondik jarduten dugu helduok? Gure interbentzio edo eskuhartzeek zer nolako eragina dute umeen garapenean?

Sendagilearen kontsultan, hegazkinean, makina bat harategi, dendetan, aisialdiko jardueretan, eskolan eta etxean hain presente dauden egindako irudi edo marrazkien fitxak etorri zaizkit burura. Marra beltz sendo batez irudia ondo markatzen duten fitxa horiek, bai.

Esan gabe badoa ere, irudia markatzeaz gain, umeek zer eta nola egin behar duten argi markatzen dute marrok. Marra horiek umeen adierazpen naturala, askatasuna eta garapena kamusten dutela esatera ausartuko nintzateke. (Eta helduena, noski!)

Sema jaio zenetik hona margotuz sortu dituen arte adierazpen gehienak gordeta ditut; izan paperan, kartoian, kartulinar, margoekin, errotuladoreekin, tenperekin. Konfinatuta geunden baten leihoan margotzeko margo bereziak ekarri eta erabili genituen



egunekoak ere argazkietan jasota ditut, noski. Gaur gauen semearen karpeta potolo gorria zabaldu eta bere artelanak ateratzeko bulkadari ezin eutsita egon naiz. Karpeta zabaldu eta... Nola ez dakiela o-n-d-o margotzen? Posible al da gaizki margotzea? Ai ama, 3 urteko ume bat da!!

Nik, eta beharbada amaren begiradatik ari naiz, eta aitortzen dut ez daukatela ezagutza nahikorik modu teorikoan interpretatzeko, baina bere adierazpenak bereak izan direla iruditu zait. Momentuan sentitu eta egin nahi izan duen horretatik egindakoak. Gozatzen egindakoak. Gainera uste dut garapen bat egon dela bere esperimentazioetan: bai formei dagokionean, bai koloreei, erabili dituen materialei, eskaini dion denborari edo eta adierazi nahi izan duen horri dagokionean.

Gogoan dut traktorearen fitxan aritu zen egunean nola kontatzen zidan traktorea lanean ari zela, inguruko lurretan, zulo bat egin eta beste bat tapatzen. Egindako marrazki horretatik abiatuta bera bere ipuinean murgildu zen, bere imajinazioari ere bide eman zion.

Halaber, marrazkiak ere erabili izan ditu momentuan momentuko bere interes guneak islatzeko (zezena, dinoak...).

Azken aldiko orritxoei begira (erosketa zerrenda, izen emate orria, bere agenda...), Ferreiro eta Teberosky-ri irakurria nien idazketa garatu ahal izateko lehenengo urrats gisa marrazkiek duten garrantziaz jabetu naiz. Beraz, sekula ez naiz kezkatu marraztik kanpora aritzeagatik. Zergatik sistemak horretan hainbeste

arreta eta indar? Zergatik horrenbeste presio? Zeren beldur gara?

Zer da umeei fitxak margotzeko eman eta gainera marratik atera gabe egin behar dutela esaten dugunean lortu nahi duguna? Ez al gara margotzea = zuzentzat hartzen den eredu bakar bat erreproduzitzera mugatzen ari? Ez al gara beren sormena, adierazpena eta aniztasuna kamusten ari?

Momentu batean oso jolas polita izan daiteke berek aukeratutako irudi, forma edo zirku baten barruan aritzeko, margotzeko, material ezberdinez betetzeko proposamena luzatzea. Edo iruditik kanpo, zergatik ez?

Helduok ordea, lehen lehenik, aurrean ditugun umeak proposamen horri erantzuteko prest ote dauden pentsatu beharko genuke. Hau da, garapenaren zein momentutan egon daitezkeen prest horrelako erronka eta arau batzuei erantzuteko. Eta bestalde, arau edo marratik ateratzen denari zein mezu bidaliko diogun hausnartzea interesgarria izango litzateke.

Berriro ere lortu nahi dugun edo daukagun intentzio eta helburura bueltatzen naiz: umeak entretenitzea baldin badugu xede, luzatu proposamena eta entreteni daitezela nahi duten bezala. Margotzearen bidez adieraz daitezela nahi baldin badugu, libreki adierazteko tartea utzi beharko genieke eta beren adierazpenak datozen eran onartu. Zerbait sortzeko prozesua bizi dezatela nahi badugu, arreta sormenean jarri beharko genuke eta ez ekoizpen eta emaitzan.

Margoak eta fitxak ateratzeaz bat, gure barrenean errotutako paradigma produktibista ateratzen da. Batzuetan oso agerian eta beste batzuetan modu sotilagoan. Baina marratik ateratzen denari, beti... zigorra!! (begirada, epaia, zuzentzeko eskaerak, aldatzeko presioa, gutxiespena...).

Margotuz adieraztea gehiago edo gutxiago gusta dakizuke, gehiago edo gutxiago gara dezakezu bizitzan zehar. Baina inportanteena da konturatzea arte adierazpen ezberdinak erabiliz, bizipenak, sentimenduak, ideiak... espresatzea berezko jokabidea dela, eta ezin dela gaizki egin. Helduoi dagokigu berezko jokabide hori garatzeko aukerak eta testuinguruak sortzea. Zenbat eta ireki, aske eta anitzago, orduan eta bizitzarako tresna gehiago ariko gara eskaintzen gure alaba eta semeei.

Ziur nago esperimentazio, jolas edo adierazpen

momentuetan guk ere etengabe zer eta nola egin esateari uzten diogun egunean gehiago gozatuko dugula gure txikitxoan aldamenen!!

Orain oporrei amaiera emateko dilema daukagu... semea marra barrutik margotzen entrenatu edo bere adierazpen moduei bide ematen jarraitzeko ahaldundu?! Zuek zer egingo zenukete?

Egin ezazu behar duzuna

Aiora Beristain

Orain dela urtebete inguru idatzi nuen lehen kolaborazioa guraso.eus-erako. Eta berrirakurtzen hasi naiz beste hau idazten hasi aurretik. Zelako oroitzapenak. Kolore askotako oroitzapenak. Ilunak eta argiak.

Baina gauza bakarra adierazteko gogoia piztu zait! Egin kasu zeure senari, ez beste inori, ez beste ezeri. Amatasuna gogorra izan daiteke, baina ez du errazten besteek egiten edo esaten dutenari begira bazaude. Mundu guztiak dauka zeresana, ingurukoek eta baita ez-ingurukoek ere; besotan hartzen dituzulako, kapota jaitsita dagoelako eta umea hoztuko delako (nahiz eta umeari eguzki izpiak komeni), neguko eguzkitan titia ematen ari zarelako eta hoztuko zarelako, biberioia ematen diozulako, ez diozulako biberoirik ematen...

“Zenbat denbora du ba? Zelako txikia, ezta?”

“Handi dago duen denborarako, ezta?”

Berdin dio zer egiten duzun, beti egongo da baten bat beste era batera egin behar duzula esango dizuna.

Behin esan zidaten, bikiak izanda, onena, biberioia euren kabuz (euren eskuetan jarri eta eurek bakarrik edan) hartzen ikastea zutela. Horrela, ni libreago egongo nintzela. Benetan? Bi hilabeterekin? Benetan? Irakurri eta adituek diotena entzun, noski. Baina erabakiak zeuk hartu. Zure eta zeure umeen beharrak “entzun” eta zeuk erabaki zeuentzat egokiena dena. Ez da erreza, baina esango nuke beharrezkoa dela.

Erditzean, titia edo biberioia ematerakoan, papilla edo BLW, ume-karroa, zapia edo motxila, lo eragiterakoan... dena delakoan, familia bakoitzak jakingo du zer den gehien komeni zaiona.

Niri gehien kostatu zitzaidan erabakia, biberioia uztearena izan zela esango nuke. Erabakia baino gehiago, egoerak sortutako beharrezana.

Txikiak jaio ziren (ez zeukaten bi kilorik) eta inkubagailuan zeuden artean, biberioia eman baino lehen titia ematen nien, lehenengo batari eta gero



besteari, hasieran. Egun batzuetara lortu nuen bie batera ematea.

Erizainen gomendioa zen (gaur egun ere hala dela uste dut), biki bakoitzari titi bat ematea, hau da, ez aldatzea. Eta hasieran horrela egiten nuen. Baita etxera etorri ginenean ere. Bakoitza bere titian jarri eta titiarekin amaitzen zutenean biberioia.

Gutxi gora behera (minutuak gora behera), pare bat ordu egiten genituen lo gauero. Bene-benetan uste nuen, hil egingo nintzela horrela jarraituz gero. Arazoa identifikatzea lortu genuen arte.

A esnatzean titia eman. Lo hartzen zuen. Esnatu. Biberioia eman. Espabilatuta esna. Lokartzen zenerako X esnatu. Titia eman. Lo hartzen zuen. Esnatu biberioia emateko. Espabilatuta esna. Erruberran buelta eta buelta. Biberioia ez ematera ausartu nintzen arte. Bakoitza alde batean jarri, bakoitzari bere titia eman eta denok lo. Ez pentsa, ez zen magikoa izan, ez genuen gau osoa lo egitea lortu, baina bai askoz ordu gehiago. Eta norbera deskantsatuago badago, dena da errazagoa.

Gutxika-gutxika, biberioia alde batera uzten joan ziren (tetinak atzerakada ematen zien) eta hiru hilabete eskasekin titia hartzen zuten bakarrik, ez zuten nahi biberoirik.

Ez pentsa! Titia bakarrik hartzen hasi zirenetik pediateraren hurrengo errebisiora beldurtuta joan nintzen ea pisurik hartu zuten, ea zer esango zidan pediaterak... Ez nengoen bat ere ziur ea ondo ari nintzen.

Zorionez, pediatriak hitz onak eta lasaigarriak besterik ez zizkidan esan eta erreza ez izan arren, biberoiarekin baino errazagoa izan zen guretzat: lotarako, kalerako (traste gutxiago behar zen)...

Baina guretzat. Gure familiarentzat. Horrek ez du esan nahi besteentzat horrela izan behar duenik. Bakoitzak egin dezala egin behar duena. Hobekien datorkiona. Beretzat eta bere familiarentzat egokiena dela uste duena.

Dibulgazio testu bat «Hezkuntza Interkulturalaren» inguruan

Amelia Barquin

Asko hitz egiten da “hezkuntza interkulturalari” buruz, baina ze demontre esan nahi du terminoak? Hori da testuan erantzuten saiatu naizen lehenengo galdera. 20 orrialdetxo dauzkan gogoeta hau irakasleentzat dago idatzita, nagusiki: hasierako formazioan daudenentzat eta jardunean daudenentzat. Eta hezkuntzan interesatuta dagoen edonorentzat, noski. Asmoa izan da konplexuak diren galderei hurbilpen didaktiko bat eskaintzea. Hona hemen erreferentzia eta estekak:

Hezkuntza interkultural eta inklusiboa. Zenbait gako. Zas! Red Vasca Antirrumores & Bizkaiako Foru Aldundia. 2021. Euskaraz

Educación intercultural e inclusiva. Algunas claves. Zenbait gako. Zas! Red Vasca Antirrumores & Bizkaiako Foru Aldundia. 2021. Gaztelaniaz.

Hasierako galderez gain, honakoak ere labur jorratzen dira testuan:

- Ba al du loturarik hezkuntza antirrazistarekin?
 - Eta ikasle ijitoak?
 - Baina faktore kulturala al da garrantzitsua? Eta egoera ekonomiko eta soziala?
 - Immigrazioaren seme-alabek eskola emaitza kaskarragoak lortzen al dituzte?
 - Eta eskolaren ondoren?
 - Baina hainbeste erreparatu behar al diogu ikasleen jatorriari? Koloreak eta jatorriak berdin diola diotenek ez al dute arrazoirik?
 - Zer da eskola segregazioa? Zein ondorio dakartza?
 - Nongoak dira atzeritar jatorriko ikasleak? Identitatea eraikitzea.
 - Immigrazioaren seme-alabek ikasten al dute euskara?
 - Eta zer gertatzen da eskolan familien hizkuntzekin?
 - Nola tratatu ikasleak eta familiak kulturaren esparruan?
 - Familietatik datorren guztia baliagarria al da?
 - Nolakoa izan behar du familiekin tratua?
 - Zenbait auzi arazotsu: genero-berdintasuna, LGTBIQ+ errealitatea...
 - Beste auzi arazotsu bat: erlijioa
- Interesatzen zaizkizu galdera horiek? Agian beste



batzuk? Bada ZAS! sareak hainbat testu labur eta interesgarri argitaratu ditu immigrazioarekin eta kulturartekotasunarekin lotuta. Materialen bilduma hori sekulako altxorra da aniztasunean arreta jarrita duginontzat.

Eskerrik asko, ZAS! sarea!

Musukoaren eragina haurrengan

Maidor Egino

SARS-COV-2 birusak edo koronabirusak sortutako pandemiaren ondorioz, gure eguneroko bizitza, errotik aldatu behar izan dugu. Aldaketa nabarmenetako bat musukoak nahitaez erabili behar izatea izan da. Zalantzarik gabe, musukoek koronabirusaren transmisioa murrizten laguntzen dute, beste prebentzio-neurri batzuk erabiltzearekin batera; hala nola, eskuak garbitzea eta urruntze fisikoa.

Haurrak izan dira COVID-19ak gehien kaltetu dituen taldeetako bat. Haien eguneroko errutinak, giro soziala, eskolako eta familiakoa barne, sakon aldatu baitira, garapen egoki bat izatea eragotziz. Izan ere, pandemia hasi zenetik, ebidentzia zientifikoak erakutsi duenez, sintoma depresibo eta antsiosoek gora egin dute, eta asebetetze orokorra eta jarduera fisikoa gutxitu egin da, baita haurrengan ere.

Horrela, guzti honek, eta nola ez, musukoaren erabilerak, haurren mintzamenari eta hizkuntzaren eskuratzeari eta garatzeari eragiten dio.

Hizkuntzaren garapena, haurren garun-heldutasunarekin eta haurren ingurune soziofamiliararekin lotuta dago. Ama-hizkuntza ikasten ari diren haurrei dagokionez, hizkuntzaren garapenean zailtasunik ez izan arren, helduek komunikatzerako orduan musukoa eramateak, hizkuntzaren barneratzean eragina izan dezake. Honen zergatia honako hau da, dakigunez, hizkuntza bereganatzeko prozesuan, haurrek, mintzatzen ari den pertsonaren ezpainen mugimenduak behatzen ditu eta hau funtsezko laguntza izaten da hitzen ahoskera zuzena bereganatu ahal izateko. Adibidez, haurrek 4 hilabete bete arte, ezpainei baino, helduaren begiei erreparatzen die; 4 eta 8 hilabete bitartean berriz, haurrak zezelka aritzen direnean, helduaren ahoari gehiago erreparatzen die begiei baino.

Horrela, musukoak haurrei mintzamina hautemateko eta ulertzeko ohiko elementu guztiak izatea eragozten dienez, hizkuntza eta mintzaira ikasteko prozesuan eragina izan dezake hauengana.



4 eta 10 urte bitarteko biztanlerian batez ere musukoa dela eta sor daitekeen beste arazoetako bat, ahots arazoak eta patologiak (ahots-noduluak) dira. Ahots-kordetako lesio onbera da, indarrez egindako ahotsaren erabileraren ondorioz sortzen dena. Musukoak gutxi gorabehera modu jarraituan erabiltzeak, patologia hori errazten du; izan ere, soinu-uhinaren zati bat xurgatzean dute, eta, horren ondorioz, maskarak erabiltzen dituen pertsonak, heldua zein haurra, ahotsa gehiago behartu behar du. Ahotsa bortxatzean, ahots-kordak gehiago tenkatzen ditugu eta bata bestearekin marruskarazten ditugu; gainera, arnas etenaldi gutxiago eta laburragoak egiten dira, eztarria lehortu egiten da eta ondorioz, ahots-kordak gutxiago hidratatu eta gehiago ukitzen dira.

Hizkuntza eta garapen osoan eragin dezakeen kalteez gain, musukoak sudurretik baino gehiago, arnasa ahotik hartzera bultzatzen gaitu. Ahotik etengabe arnas hartzeak, adin goiztiar batean gertatzen denean batez ere, hazten ari den aurpegiaren garapena alda dezake. Hortzetan ere aldaketak gertatzen dira, hala nola ezarpen txarra eta hortzen oklusio txarra, eta guzti honek beste arazo batzuk ekar ditzake; hala nola, murtxikatze eta irenste arazoak. Murtxikatzeko eta irensteko arazo hauek, halaber, fonemak ahoskatzeko zailtasunekin erlazionatua daude.

Hona hemen guzti hau saihesteko aholku batzuk:

- Gure diskurtsoari komunikazio-keinu gehiagorekin laguntzea, eskuak, burua eta norberaren gorputza erabiliz, aurrean dugun pertsonari ahalik eta informazio gehien eman ahal izateko.
 - o Oso adierazkorrak izatea
 - o Gorputzarekin hitz egin
 - o Asko antzeztu
 - o Indartu nahi ditugun hitzak azpimarratzea
 - o Geldialdi gehiago egin
 - o Gure hizketaren erritmoa zaintzea
 - o Astiroago hitz egin

- Hurrekin esparru komunikatiboak sortzea: haurrak eta helduak arreta-gune bera duten egoerak sortzea da kontua. Biak batera arreta-testuinguru batean badaude, maskara eramateak dituen ondorio negatiboak ez dira hain garrantzitsuak izango; izan ere, haurrak helduek zer esan nahi duten uler dezake, biek gauza berari buruz hitz egiten dutelako.

- Aritu batengana bideratzea, pediatra, logopeda, ortodontista, fisioterapeuta... hurrek alterazio-zeinuren bat duela somatzen badugu, kaltea gehiagora joan ez dadin.

Adimen gaitasun handiko haurrak eta garapen soziala

Anaia Agiriano

Bada oraindik gure artean ondo errotutako mitorik adimen gaitasun handiko haurrei dagokienez eta, horietako bat, hauen moldaiztasun sozialari dagokiona da; hau da, gizartera egokitzeko zailtasunak izaten dituztela uste da.

Izan ere, askotan, gaitasun handiko haurrak gainontzekoak baino barnerakoiagoak eta egonkortasun emozional txikiagoak direla uste izan da eta, ondorioz, harremanetan zailtasunak izaten dituztela. Orgulu eta Özbey-k (2021) egindako ikerketak erakusten duenez aldiz, Big Five bezela ezagutzen den nortasun-ereduaren arabera, gaitasun handiko haurrak ez dira gaitasun handikoak ez direnak baino barnerakoiagoak edo egonkortasun emozional txikiagoak. Eredu honek 5 dimentsio ditu: esperientziarako irekitasuna (kuriositatea, orijinaltasuna eta sormenarekin lotuta dagoena); arreta handia (antolakuntza, kontzentrazioa, eraginkortasuna eta helburuak lortzeko gaitasunarekin zer ikusia duena); kanporakotasuna (pertsona zenbaterainoko berritsua, asertiboa eta kitzikagarria den); adeitasuna (zenbaterainoko pertsona atsegin, fidagarria eta beroa den), eta neurotizismoa (emozio negatiboekin zerikusia duena: aldartea, urduritasuna eta kontrol emozional baxua ere lortzen da). Eta, ikusi denez, gaitasun handiko haurrek, gaitasun handikoak ez direnek baino kuriositate, orijinaltasun eta sormen handiagoa dute; hau da, esperientzia pertsonal berrietarako irekitasun handiagoa erakusten dute, baina gainontzeko dimentsioetan, ez dago ezberdintasun esanguratsurik bi taldeen artean. Gainera, beste zenbait ikerketetan ikusia da moldaiztasun soziala eta adimen gaitasun handia aldagai askeak direla; ez dutela elkarrekin loturarik, edo, beste era batera esanda, ez dagoela ebidentziarik gaitasun handiko haurrek gizartera egokitzeko arazo gehiago izaten dituztela bermatzeko (Borges et al., 2011).

Hala ere, gaitasun handiko haurren guraso eta irakasle asko arduratuta egoten da beren seme/alaba edo ikasleek “sozializazio arazoak” dituztelako.



Honela kontaktzen zidan semea haur hezkuntzako 5 urteko gelan duen guraso batek:

Gure semea, Mattin, oso bizkorra da; geuk ere ikusten dugu. Lau urte zituenetik irakurtzen daki (bere kabuz ikasita) eta idazkera traketsaz eta hizki larritz, baina idatzi ere egiten du. Orain zenbakiak tematuta dago eta etxean batuketak eta kenketak jartzeko eskatzen digu. Lehen hezkuntzako hainbat kontu ere erraz egingo lituzkeela iruditzen zaigu eta bai, agian gaitasun handikoa izango da, baina harremanetan kostatu egiten zaio eta batez ere horrek kezkatzen gaitu. Irakasleak esaten digunez, ikasgelan ia beti bakarrik egoten da eta jolas-parkera goazenean ere, ez da bere gelakideengana inguratzen. Noizean behin bakanen batekin jolasten du, baina ez da taldean integratzen. Nagusiagoengana jotzen du; lehengusuengana gehienetan.

Beste guraso batek aldiz, hauxe esaten zidan bere 9 urteko gaitasun handiko alabari buruz:

Haur hezkuntzan zegoela, gure Uxue gaitasun handiko neskatoa izan zitekeela esan zigun irakasleak. Abestiak eta ipuinak berehala ikasten zituen, gelakide guztien izena eta bi abizenak zekizkien, ia laguntzarik gabe ikasi zuen irakurtzen, oso galdera bitxiak egiten zituen eta bere adinerako oso arduratsua zen. Ebaluazioa egin eta gaitasun handikoa zela esan ziguten, baina edozein egoeretara ongi moldatzen den neska da eta ezer ez egitea erabaki genuen. Orain aldiz, lehen hezkuntzan dago eta arduratuta gaude. Ongi moldatzen da gelakide guztiekin, akademikoki emaitza onak ateratzen ditu, baina, zerbait falta zaiola iruditzen zaigu. Ez da lehengo Uxue: ez ditu

bere txikitako galdera berezi haiek egiten, isilagoa da, lotsatiagoa,... “itzali” egin dela dirudi.

Bi testigantza hauek agerian uzten dute adimen gaitasun handiko haur askokin gertatzen dena. Mattinen kasuan, harremanetarako zailtasuna ote? Eta, zer gertatu zaio Uxueri?

Linda Silverman (d. g.) estatubatuar psikologoak urteak daramatza gaitasun handiko haur eta gaztetxoek garapen soziala aztertzen eta bere hitzetan, gaitasun handiko haur eta gaztetxoek, orokorrean, gaitasun handikoak ez direnek baino gaitasun sozial handiagoak, harreman sozial helduagoak eta arazo psikologikoen zantzu gutxiago izan ohi dituzte. Hala ere, garapen sozial egoki bat edukitzeko, beharrezkoa dute beraien familietan diren bezalakoak errespetatuak izatea, gurasoek gizaki guztien berezko balioa baloratzea, txikitan beraien antzeko gaitasunak dituzten benetako kideak aurkitzea eta, beraien burua ondo ezagutu eta onartu ondoren, gainontzeko neska-mutilekin elkar-eragitea (nerabezaroan, batez ere).

Izan ere, sozializazioak gainontzeko taldekideentzat esanguratsuak eta egokiak diren sinesmen, portaera eta baloreekin bat egitea dakar (Shaffer, 1988) eta honek gizartera “ondo egokituta” bezala ikustea badakar ere, horietako hainbat beren berezko izatetik urrunduta egon daitezke; alienatuta. Garapen soziala aldiz, autorrealizazioarekin lotuta dago eta sozializazioa baino haratago doa: sozialki onargarria den jokabidearen kontzientzia, beste pertsona batzuek gozatzea, gizateriarekiko kezka eta gutxienez benetan bat egiten duten pertsona batzuekin elkarren arteko harreman aberasgarriak sortzea adierazten du (Silverman, d.g.).

Gauzak horrela, Mattinen kasuan bezala, posible da gaitasun handiko haurra, batez ere txikia denean eta bere antzeko kideak aurkitzen ez dituenean, galduta sentitzea. Taldearen eta norberaren arteko “gatazka” bezala ezagutzen da hau, baina gehienetan ez du zerikusirik harremanetarako zailtasunak izatearekin. Ziurrenik, Mattin, eta bera bezalako beste hainbat haur, ikasgelako kideekin arraro sentitzen bada ere, oso gustura erlazonatuko da haur nagusiagoekin (lehengusu, anai-arreba, auzokide,...), jakina baita, benetako adiskidetasuna, haurraren jolasaren sofistikazioa, umorearen heldutasuna, sen etikoa eta munduaren edo inguratzen gaituenaren kontzientzia adin mentalaren baitan dagoela eta

ez adin kronologikoaren arabera. Horregatik esaten dute hainbeste aldiz gaitasun handiko haurrek haur hezkuntzako geletan daudenean beren gelakideengatik “ume txikiak dirudite”, “ez dutela pentsatzen ematen du”, “ez dituzte arauak errespetatzen”, “ez dakite jolasten”, “tontakeriak egiten dituzte”, “ez zaizkie nire kontuak interesatzen”, “haur txikiek bezala hitz egiten dute”,... Eta, azkenean, beraien antzekoekin harremanik ez badute, oharkabea, derrigortutako aukeraketa bat egitera bultzatuak sentitzen dira: taldean onartuak izateko beraien adimenari eta izateari uko egin edo bere adimena eta izatea mantendu. Uxueren kasuan, taldera ondo egokitutako neskato bat daukagu (sozializatua), baina bere benetako izatetik urruntzen dabil eta hori ez da garapen sozial egoki baten seinale. Mattin berriz ez da taldera egokitzen; badirudi taldean integratzeko arazoak dituela, baina Mattin, bere portaerarekin, garapen sozial egoki bat izan dezan laguntza eske dabil: bere antzekoak behar ditu inguruan. Baita Uxuek ere.

Hala ere, horrek ez du esan nahi gaitasun handiko haurrak gaitasun handikoekin soilik egon behar dutenik eta taldera egokitu behar ez direnik, baizik eta egokitzapen osasuntsu bat bilatu behar dela eta horretarako, beren antzeko gaitasunak dituzten haurrekin hartu-emanak izatea komeni dela, era horretan, lagunartean onartuak eta ulertuak sentitzen direlako eta norbera onartua eta ulertua dela sentitzea autokontzeptu positiboa eta trebetasun sozialak garatzeko funtsezkoa delako.

Norberaganako maitasuna ongi eraikita dagoenean, gainontzekoenganako maitasuna garatzen da, baina prozesu horrek, hainbat urrats behar ditu (Silverman, d.g.): (1) autokontzientzia; (2) antzeko kideak aurkitzea; (3) ulertua eta onartua dela sentitzea; (4) norbere buruaren onarpena; (5) besteekiko ezberdintasunak onartzea, eta (6) besteekiko ulermena, onarpena eta estimazioa.

Beraz, lehen urratsa besteengandik zein berdina eta zein ezberdina garen ohartzean datza eta, ondorioz, lehen urrats honetan garrantzitsua da haurraren inguruan bere antzekoak ere izatea. Bestela, oso ezberdina, arraroa eta beteekin bat egiten ez duena bezala sentitu ohi da (artalde txuri batetan ardi beltza da arraroa, baina artalde beltz batetan, ardi txuria). Aldiz, bere antzeko kideak aurkitzeak, interesak partekatzeak aukera ematen dio eta ulertua eta onartua sentitzen eta benetako adiskidetasuna

garatzen laguntzen dio. Era berean, besteek onartzen gaituztela ikusteak norberaren buruaren onarpenean laguntzen du eta norbera den bezalakoa onartzen denean, besteekiko desberdintasunak onartzen dira; gainontzekoak ulertzeko, onartzeko eta estimatzeko beharrezko urratsa.

Gauzak horrela, Mattin, Uxue eta beste adimen gaitasun handiko hurrek ere garapen sozial egoki bat izan dezaten, ezinbestekoa da ahalik eta azkarren beraien interesak eta jolasak partekatzeko kideak izatea, babesean sentitzen diren hartu-eman positibo hauetatik sortuko direlako gainontzekoengana zabaltzera helduko diren ulermen, onarpen eta estimaziozko harreman osasuntsuak.

Bibliografia:

Borges, A., Hernández-Jorge, C. eta Rodríguez-Naveiras, E. (2011). Evidencias contra el mito de la inadaptación de las personas con altas capacidades intelectuales. *Psicothema*, 23(3), 362-367.

Ogurlu, U. eta Özbey, A. (2021). Personality differences in gifted versus non-gifted individuals: A three-level meta-analysis. *High Ability Studies*. DOI: 10.1080/13598139.2021.1985438

Silverman, L. K. (d. g.). Social development of the gifted. Gifted Development Center. <https://www.gifteddevelopment.org/musings/socialdevelopment>

Feminismotik jolasean

Maidor Garcia de Vicuna

Martxoak 8 bueltan dugu eta urtero bezala hamaika ekintza egingo ditugu umeekin emakumeon eskubideak aldarrikatzeko asmoz, ikastetxetan, etxean zein kaletan. Horiek guztiak sexuen arteko berdintasunean oinarritutako jendartea lortzeko nahiak bultzatuta egingo ditugu.

Askotan ordea, nahiz eta asmo ezin hobe eduki, helduon ikuspuntutik antolatzen ditugu ekintzak, haurren ikusmira kontutan hartu gabe eta ez genuke ahaztu beharko helduok eta umeez modu ezberdinean antzematen dugula bizitza, besteak beste, egoera ezberdinak direlako bizi ditugunak.

Guztiok pairatzen dugu sexismoa, baina askotan gaia landu eta honen inguruan sentsibilizatu nahi dugunean, guk bizi ditugun egoerak deskribatzen ditugu. Hau egokia da, noski, bakoitzak bere errealitateaz gain, besteona ezagutzea beharrezkoa delako bizi den jendartea ulertzeko eta baita, beste lekuetako pertsonen jasaten dituzten diskriminazioak ulertu eta horiekiko elkartasuna adierazteko.

Helduok bizi dugunaz gain, ezinbestekoa izango da gure txiki eta gaztetxoak bere egunerokotasunean ematen den sexismoa eta matxismoa hautematen ikastea. Matxismoaren alde gogorrena eman dadin, hori sostengatuko duten hamaika egoera beharrezkoak izango dira (mikromatxismoak), askotan garrantzia gabeko tontakeria gisa hartzen direnak, baina diskriminazio eta zapalkuntzarako bidea eginez eta erraztuz doazenak.

Neska bati futbolekin ezin duela jolastu esateak, ile luzeko mutilei neskak direla esatea, koloreak sexuen arabera erabiltzea, neskak arduratsuagoak direla esatea, mutilei mugimendu gehiago baimentzea, nesken iniziatiba gutxietea, emozioen azaltzea sexuen arabera indartu eta onartzea...hauek, kontu zaharrak diruditen arren, edozein egunetan entzungai dira. Hauek guztiek, eta beste askok, neska eta mutil izateko eredu estuak sortzen dituzte, baina ez hori bakarrik, horietan enkajatzeko beharra sortzen doaz eta horrek bizitzan izango dugun jokatzeko modua baldintzatuko du.

Hauetaz ohartzeko, rol-jokuak egitea proposamen interesgarria izan daiteke, hitz egitea baino



esanguratsuagoa izaten delako. “Ezin duzu gustoko kirola egin, gustoko kolorea ezin duzu jantzi, arropa hau da jantzi egokia zuretzat, bakarrik emozio batzuk ahal dituzu azaldu eta beste batzuk gorde behar, zure proposamenei muxin egingo diegu, ardura hauek hartu behar dituzu zure gain, zuri dagokizu etxean geratzea, zuri diru gutxiago emango dizut goxokientzako neska zarelako...”

Hauek guztiak egoerak antzeztuz landu daitezke, joku moduan, sentsazio eta emozioekin konektatu eta hauetaz hitz egiteko aukera emango digularik. Honek enpatia piztuko du, besteak nola senti daitezkeen ulertzen lagunduko die, baina horretaz gain sexu batekoak ala besteak izateagatik tratamendu ezberdinaz ohartuko dira eta ezinbestean, neskek diskriminazio eta zapalkuntza handiagoa pairatzen dutela konturatu dira, sexismoa eta matxismoa mutilentzako baldintzatzailea direla ezin ahaztuz.

Ba al dago modu hobeagorik zapalduekin elkartasuna adierazteko, zapalkuntza pairatzea baino? Umeez jokuen bidez ederki ikasten dute eta gazteentzako gurasoen “txapa” baino interesgarriagoa izango da ziur, beraz baliabide guztiz erabilgarria izango da.

Horrelako jokuak ikasgelan egin daitezke, baina baita etxean ere. Egunen batean etxekoek egiten dituzten lanak aldatuz, gurasoek jasotzen duten soldata “paga” moduan portzentai berdinean jasoaz sexuen arabera, jolasteko denbora librea aisialdirako gizon/emakume helduek dugun proportzioan seme-alabei banatuz...Egoera anitz bururatuko zaizkizuelaz ziur naiz, beraz, jolastu zaitezte ikuspegi feminista egunerokotasunean bizi-ildoan izan dadin.

Gurasoen haserrealdiak

Mireia Centeno

Gure seme alabek moduan, baina gutxiagotan, gurasook ere haserrealdiak ditugu. Modu egozentrikoan jartzen gara eta arrazoia galtzen dugu, erabat emozionalki espresatzeko.

Haserretzea beharrezkoa eta egokia da, baina haserre hori azaltzeko modu batzuk desegokiak dira bestea mintzen duelako. Gure seme alabekin haserretzen garenean, garrantzitsua da hau kontuan izatea. Haserretu bai, baina nola? Garrasiak, zigorrak, xantaiak... Horrelako joerak ekiditea garrantzitsua da, baina ez da erraza. Beraz, ulertu dezagun nola funtzionatzen duen haserretzearen mekanismoak hau kudeatu ahal izateko.

Gizaki bezala, erasotzeko instintua dugu, eta sen hau, beharrezkoa da geure biziraupenerako. Noiz aktibatzen da? Erasotuak sentitzen garenean batez ere. Geure burua, ideiak eta mugak defendatzeko beharra dugunean. Baita, maite dugun hori defendatzeko beharra dugunean ere.

Hasteko ezin dugu ahaztu testuinguruak duen eragina. Izan dugun eguna, nola aurkitzen garen orokorrean, inguruan ditudan laguntzak edo ez ditudanak... honek guztiak besteekin komunikatzeko modua baldintzatuko du. Beraz kontuan izan pertsonak garela eta dena ezingo dugula kontrolatu beti. Honez gain haserretzen garenean 4 gauza izan behar ditugu kontuan:

- gure organismoan gertatzen dena,
- gure pentsamenduetan gertatzen dena,
- sentitzen duguna eta
- egiten duguna.

Gure organismoa: Haserretzean, gure organismoa aktibatu egiten da: bihotz taupadak eta arnasketa bizkortu, giharrak uzurtu, bekainak okertu (berez, begiak babesteko) masailezurra gogortu (hortzak eta aurpegia babesteko ere)... Gorputza borrokarako prestatzen da. Era berean, amigdala aktibatzen da inpulsiiboki jokatzeko. Hau guztia, landu dezakegu.

Pentsamenduak: Gure seme alabek eraso nahi gaituztela pentsatzen dugu modu ezberdin askotara:

- Baina zer esaten du honek!
- Ezin dut sinetsi. Nola hitz egin dezake horrela!
- Mila aldiz esan eta berdina egiten jarraitzen du!



- Ez zaio inporta nik esaten dudana
- Nahita ari da, ni haserretzeko
- Gaiztoa da benetan
- Ez da kontuz ibiltzen
- Ez du kontuan hartzen egiten dudana guztia

~...

Eta noski, gure seme alabek ez gaituzte eraso nahi, baina askotan hori pentsatzen dugu. Hau ere landu dezakegu.

Sentitzen duguna: Amorrua, haserre... Hau ezin dugu aldatu.

Egiten duguna: Guraso bezala askotan, lehertu eta garrasi egiten dugu, haurra erosotuz. Hau, gizaki guztioi gertatzen zaigu. Baina bakoitzak haserre adierazteko modua du. Pertsonak aldagai askoen arabera, bere erara azaltzen du haserre: bizi dugun momentuko egoera, gure haserre maila, ikasi duguna, hazi gaituzten era... faktore ugari dira baldintzatzen digutenak.

Sentitzen duguna ezin dugu kontrolatu, eta egiten duguna (hau da, garrasi egin edo bestelakoak) kontrolatu edo aldatu beharra dugu, eta hau kontrolatzeko, aurrena beste bi aldagaiak ezagutu behar ditugu. Beraz, kontuan eduki beharreko bi gauza ditugu. Alde batetik Gure organismoan gertatzen dena, eta beste aldetik, gure pentsamenduan gertatzen dena.

Orduan, zer egin dezakegu? Lau puntu garrantzitsu izan behar ditugu kontuan haserreaz ari garenean:

1- Gure organismoaren aldaketa kontrolatu.

Gure gorputzak ez du prestatu behar borroka baterako. Ez da beharrezkoa kasu honetan, beraz arnasketa kontrolatuz, beste leku batera aldentuz,... gure

amigdala desaktibatzen saiatuko gara. Pixkanaka, sentituko dugu bihotz taupadak motelago doazela eta gure gorputzaren tentsioak beheraka egiten duela.

2- Pentsamenduak.

Haurrari buruz pentsatzen duguna aldatzea ezinbestekoa da. Haurrak ez digu eraso egin nahi. Haurrek askotan ez dakizkitez gauzak beste era batera egiten. Guk erakutsi behar diegu. Haurraren garapena ezagutu. Beste pertsonaren lekuan jartzeak, lasaitu egiten gaitu. Guraso.eus-eko artikuluak irakurriz hau asko landu dezakegu.

- NORMALEAN PENTSATZEN DUDANA
- Adarra jotzen ari zait
- Beti nahi duena egiten bukatzen du
- Orain ez badiot erakusten ez du ikasiko
- Mugak orain jarri behar dizkiot, bestela beranduegi izango da.
- Beti berdina egiten du / Inoiz ez du egiten
- PENTSATU BEHAR DUDANA
- Nire haserrea modu egokian azaltzen badut, eredu izango naiz.
- Zigortzen badut, besteak zigortzen irakatsiko diot, edo besteen zigorrak onartzen irakatsiko diot.
- Lasai eta segurtasunarekin hitz egin behar diot.
- Ez da pertsonala. Haurra bere egozentrismotik aritzen da gehienetan.

3- Sentimenduak: Haserrea onartu. Haserre gaude eta ez da txarra. Adierazi behar duzuna. Zerk mindu zaituenari buruz hitz egin. Beti modu objektiboan. Inor epaitu gabe. Norbait bilatu eta azaldu gertatzen zaizuna. Konponbiderik bilatu gabe, bakarrik entzungo zaituen norbait eta ulertuko zaituen norbait. Eskatu behar duzuna, eta lagundu zure seme alabari aukerak ematen. Huts egiten badu, erakutsi modu egokian egiten.

Oso garrantzitsua da gure egoera behatzea:

- Zergatik egiten dut garrasi?
- Nola nago lanean?
- Nola sentitzen naiz etxean? Bikotean? Lagun artean?
- Zerk haserretzen nau batez ere?
- Zer espero dut nire seme alabengandik?
- Zeintzuk dira nire espektatibak?
- Konparatu egiten al naiz? Presioa sentitzen dut?

4- Jarrera: Aurreko guztia landuz aldatuko da.

Gogoratu, eredu gu gara. Gure haserretzeko modua, beraien haserretzeko moduan eragin zuzena izango du

Aitatasunaren krisia eta metabertsoa

Mikel Azkarate Askasua

Berandu baino lehen, gaizki ulertuak saiheste aldera, argi utzi nahiko nuke nire aitatasuna eta nire krisia ditudala mintzagai, barkatu clickbait-a izenburuan. Edonola, krisiek, nahiz eta pertsonalak izan, badituzte hainbat adiera, horietakoren bat interesgarria suerta dakizulakoan doa azpikoa.

Aita izateko unibertsoa, azken urteetan asko eta arin aldatzen ari dela ez da sorpresa. Bietan gertatzen ari da iraultza, umea jaio aurretik eta ostean. Aldatu da aitagaia haurdunaldian, inplikazioan, ginekologora bisitetan, prestaketan, baina aldatu da aita batez ere ostean. Hor gizartearen eboluzioarekin batera, pisu handia izan du legeak, aitatasun baimenak, urte gutxian asko luzatuta. Gezurra dirudien arren, 2007ra arte lau eguneko zen baimena, 2017ra arte 13 egun eta ostean ia urtero izan ditugu luzapenak amarenarekin parekatu arte: lau aste 2017an, bost aste 2018an, zortzi aste 2019an, 12 aste 2020an eta, azkenik, 16 aste 2021ean.

Egia da hobetu daitekeela legea, hasierako simultaneitate derrigorrezkoa edo baimen osoa jarraian hartzeko erraztasun falta tranpa txiki bi direla, baina kasu askotan funtzionatzen dabil. Hilabete batzuren buruan, ama lanera itzultzean, aita baimena hartu eta gertatzen da klik-a. Gogorra bada ere, nekagarria askotan, aita lortzen ari dira haurra lasaitzea, berarekin intimitatea eta badago, gutxienez, prozesu aberatsa honetan guztian... edo hori kontatu didate.

Gure alaba 2018an jaio zen, lau aste egon ginen hirurok etxean negu goxoan, ama batez ere ume-zain eta ni batez ere etxe-zain, simultaneitatearen tranpa. Aste santuko oporrak luzatu genituen bosgarren astearekin eta bueltan eskolara eramaten hasi ginen, ama jardunaldi murriztuarekin lanean hasi zenean.

Hiru urte pasa dira eta bi pena handi ditut orain. Bata alabarekin intimitate handiagoa ez lortu izana: biberioia ematea ez nuen lortu, bera lokartzeko erraztasuna galdu nuen eta damu dut ez gehiagotan saiatu izana edo garaian baimena/murrizketa neronek ez hartzea/luzatzea. Tartean bizi izan genuen



pandemia, telelanean ama eta telelanean aita, aste luzeegitako desgastea. Eta horren guztiaren eragin agian (edo agian ez), oraindik, egunero sarriegi entzuten dut “aitatxo zurekin ez” alabaren ahotsan, jolasean, lokartzean, ama presente denean. Edo, mingarrien, inolako arrazoirik gabe.

“Aitatxo zurekin ez” fase hau, normala ei da umearen psikearen garapenean. Haur batzuek pasatzen duten fasea dela, indartsu eta natural pasa beharrekoa, haserretu gabe. Bere munduan sartu eta elkarrekin aita-alaba unibertso propio eraikitze aukera, horri ebatzen naiz aurrera egiteko.

Bitartean, pandemia eta interakzio sozialaren murrizketa tartean, faltan botatzen dut garai berri hauetan horrelakoetaz hitz egiteko lekua. Edoskitze taldeak dauden bezala, aitek gauza hauetaz guztietaz hitz egiteko foroa. Horren joeran dagoen metabertsoa aipatzean, aita bertsioa etortzen zait niri gogora. Norberaren errealitatea ez delako horren terriblerik partekatuta, birtualagoak direlako arazoak saretuta. Aiton eboluzioak aurrera egin ahala, laster ikusiko ditugu horrelako taldeak, zalantzarik gabe. Hau idazteak eta irakurtzeak izan dezala eragin baltsamiko txikia, aletxo aiten-metabertsoaren beta bertsioa martxan jartzeko. Krisiak badituelako hainbat adiera, hizkuntzaren batean “txaka makila” esan nahi du ‘s’ gehituta... eta beste batzuetan “aukera”.

Bide batez, Oculus 2 errealitate birtual betaurreko batzuk erosi ditut duela gutxi, baina hitz egin dezagun bideo-jokoetaz hurrengo batean.

Haurrak ez dira hilerrira eraman behar

Nareoa Martinez

Ez gara zoratu, ez.
Ez gara kontraesanetan sartu, ezta ere.
Eta bai: haurrak ez dira hilerrira eraman behar.

Zergatik gatoz orain horrekin?

Bada, duela aste batzuk, sare sozialetan hainbatek haur garaiko hilerriekiko esperientziak partekatu zituzten. Eta egia da, gehienek era positiboan bizi izan zutela toki horrekiko harremana.

Batetik, hainbatek guraso gisa partekatzen zuten euren bizipena:

Larrañaga Agote:

“Alaba ttikia zanean eraman ohi nuen bixitatzen genuen herrixketako hilerritara, ez bakarrik heriotza bizitzarekin batera datorren gertaera ekidi ezinari bildurra kentzeko, bertako hil-harri zaharrak eta euskal herriko historiaz aritzeko ere! Iparraldekoak maite ditugu gehien, kanpain dorrean bizita eta heriotzari loturiko leloak baitaude idatzita! Getariko goiko elizan, adibidez, “Lehen eta azken muxua” jartzen du eta Sarakoan, “Oren guztiek dute gizona kolpatzen, azkenekoak du hobirat egortzen”! Benetan ederrak!!!”

Saioa Iturrioz:

“Bai, aitzaki berezirik gabe gainera. Mendi buelta eginez, hilerritik pasatzen garenetan “attonaren harrira”.”

Kris Kras:

“Aurten, azaroak 1ean eraman nuen alaba (3urte). Jaiaren inguruan galdetu zidan, eta, nire ustez, azalpenak nahikoak ez zirenez hara eraman nuen hil ondorengo prozesu guztia uler zezan.”

Hurrengo erabiltzaileak, berriz, bai haur zenean baita ama izanik zein bizipen dituen partekatzen zigen. Hemen duzue Nkn LF-ren ekarpena:

“Nik duela 12 urterarte ez dut hilerrian inor izan, beraz, haur nintzela ez ninduten eramaten. Egun, ama naizela, bai eramaten ditut hilerrira nire bi umeak (12 eta 10urte), nagusiak hilabeteak zituela



hasi zen joaten. Errealitate bat da jaio eta hil egiten garela, zergatik ez kontatu zati hori??? Zergatik ukatu errealitate hori?? Naturaltasuna ematen badiogu dena errazagoa dela pentsatzen dut.”

Azkenik, haurrak zirenean hilerriekiko euren harremana partekatzen zuten hiru lagun genituen.

Ekhiñe PLk eta anonimotasuna gordetzea nahiago duen beste pertsona batek ondorengo esaten ziguten:

Ekhiñe Pl:

“Txikitatik urtero hilerrira joan izan gara azaroaren 1ean. Santu guztien eguna izateaz gain, amaren urtebetetzea ere bada eta gure ohitura izan da urte askotan zehar.”

Anonimoa

“Pasai Donibane aipatuta, hilerriaren eta ikastolaren paretek muga egiten dute. Txiki-txikitatik ohituta gaude jolas ordu edota eguerdiko atsedendaldietan hilerrian ehorzketak ikusten. Askorentzat arraroa da, guretzat egunerokoa izan da.”

Horraino, badirudi hilerrirako bisitek alde onak baino ez dituztela, baina, bestelako bizipenak ere badaude. Izan ere, ezer ez da txuria edo beltza eta Itziarrek argi eta garbi erakutsi zigun hori.

Itziar Viana

“Gauza bat da Santu Guztien egunean eta noizbehinka “bisitan” joatea. Izorratzen duena ezagutu eta maite dituzun pertsonen hiletak, hilobiratzeak, gorpua bertan dauden mezak... dira. Nire kasuan, horretaz gain, asteburu osoak pasatzen genituen hilerri zikinean setoak konpontzen, lurra mugitzen eta

loreak landatzen; norbait hiltzen zen bakoitzean egun osoa tanatorioan edo beilategian... Haurra zarenean honek ez du laguntzen, ez dizu aurrera egiten laguntzen, iraganean bizi zara eta bertara itzultzen zara behin eta berriro. Altzifrea usaintzen dudan aldi oro, lur bustia loreekin edo loresortek tanatorio eta hilerrietara teleportatzen nau. Heriotzaren usaina da.”

“Una cosa es “ir de visita” en Todos los Santos y días aleatorios. Lo jodido son los funerales, entierros, misas de cuerpo presente de gente que conoces y quieres... En mi caso aparte de todo eso pasábamos fines de semana enteros en el puto cementerio arreglando los setos, removiendo la tierra y plantando flores, cada vez q moría alguien todo el día en el tanatorio o en el velatorio... Cuando eres niño no ayuda, no te deja seguir adelante, vives anclado en el pasado y vuelves a él una y otra vez. Cada vez que huelo cipreses, tierra húmeda con flores o ramos de flores me teletransportan a tanatorios y cementerios. Es el olor de la muerte.”

Orduan, zertan datza desberdintasuna?

Hilerri, beilatoki, tanatorio zein bereziak zaizkigun tokietara joan baino lehen 4 ideia nagusi kontuan izan beharko genituzke.

Batetik, derrigortasuna. Norbanako guztiok daukagu kontuan hartuak izateko beharra. Beraz, ahal den neurrian behintzat, beraiei galdetu ea joan nahi duten edo ez eta behin joatekotan, lehenago atera nahi badute, horrela egin. Izan agur egunetan, ospakizun egunetan zein egun arruntetan.

Bestetik, bizipen gogorrei bakarrik ez lotzea. Itziarrek aipatzen zuen bezala, heriotzak zeudenean hurbiltzen ziren hilerri eta beilatokira. Gainera, bertaratzeraz derrigortzen zuten eta herri txikietan asko gertatzen zen hori. Bereziki urteetan atzean joan ahala, haurrak inguruan zeuden heriotza presente zegoenean eta hori ona da, noski, baina beti ere emozionalki babesa ematen badiegu.

Hirugarrenik, hain zuzen ere, aipatzen genuena: emozionalki laguntzea. Heriotza bizitzaren parte badela ezagutzea ongi dago. Baina horrelako galera batek dakartzkien emozioak kontuan hartu behar dira eta haur eta gazteek laguntza beharko dute bai testuingurua eta bertan gertatzen dena bai euren erreferentziako helduen emozio eta sentipenak ulertzeko.

Azkenik, haur eta nerabeak protagonista izatea. Euren beharrak erantzun eta egokitzen ez zaizkien ardurak ez ematen. Hau da, lekuetara eta ekitaldietara joatea edo ez erabakitzen dutela ere, beraien beharrei erantzutea: barruan edo kanpoan egon, jendearekin edo bakarrik egon, eserita edo jolasten, bertan edo alde egin... Epaitu gabe euren nahiak asetzea.

Laburbilduz...

Haur eta gazteak hilerrira joatea gomendagarria da, noski. Baina nola?

Ez daitezela behartuak joan.

Ez dadila bakarrik bizipen gogorrekin lotua izan.

Beraiekin goazen helduok akonpainamendu egokia egitea.

Lehentasuna haur eta nerabeak izan daitezela: Haur eta gazteen behar, zalantza eta eskaerei erantzutea.

Beraz, haur eta gazteak hilerrira joatea gomendagarria da, egokia ez dena eurak eramatearen ekintza da.

Eskerrak:

Eskerrak eman behar dizkizuet sare sozialetan babesa eman eta, bereziki, parte hartzen duzuen guztioi. Izan ere, partekatzen duguna zuek aberasten baituzue.

Don't look up...ezta beheiti ere!

Nora Salbete

Zuetako aunitzek berriki ikusi izanen duzue gaurkoan izenburura ekarri dudana filma (Adam McKay, 2021). Ongi jakinen duzue, istorioan mundu distopiko bezain erreal batean jendea gorantz ez begiratzeko agintzen zaio. Arriskuari ez ikusiarena egin diezaiozun bultzatzen duen parafernalia instituzional eta mediatiko oso bat irudikatuko da pelikulan, jendartearen ezjakintasun erabatekora bulkatzeko saiakera lizun bezain gaurkotua parodiatuz. Post-egia eta negazionismoari buruzko hausnarketa zinez interesgarria proposatzen da filmean, bistan dena.

Eta banator gaur galdetzeraz, arriskuari ez ikusiarena egitearen gaiaren kariatara, zein neurritan ez ote dugun antzeko -distantziak salbu- mekanismo ukatzailerik erabiltzen haurtzaroarekiko gure esku-hartzeetan. Are, galdetzeraz zeintzuk ote diren arriskutsutzat dauzkagun jarduerak horiek ere.

E. Sandseter ikerlariak erran izan du parkeetan dorre altuak, oso altuak, jartzea egokia litzatekeela, izan ere, haurrek, mantso-mantso beraiekin burua probatzeko aukera izanen lukete eta, gisa horretara, beraiekin buruei erronkak ezarri zein, egunetik egunera, lorpen berriak nola erdiesten dituzten ikusi. D.Bell, F. Dolton, A. Hoyuelos zein T. Azkonak ere arriskuaren esperimentazioari buruz gogoetatu izan dute, ondorio berdintsuetara ailegatuz kasu orotan. Alta, gure jarrera bertze nolabaitekoa izan ohi da, min-hartuko dutenaren beldur izan ohi garela maizegi eta, gisa honetan, gureak diren beldur horiek gure hurrengana lekualdatzeraz eramaten gaituen jarrera azalaraziz. Nolabaiteko "etzazula goiti begiratu" bat aplikatzen dugu, "etzazula arriskua esperimentatu" ez-hezitzailerik batean bilakatzen dena, norberaren gorputzaren mugak bilatzeari atea ixteaz haratago, gorputzaz eta gorputzarekin gozatzea mugatuko duena. Eta puntu honetara ailegatuta komeni da gogoraraztea jolasa helburuetara zuzendu badaiteke ere, plazera ematen duen jarduerak autotelikoa ere badela eta ondorioz, berau bizitzeko helburu bakarrak egiten ahal dela, asebetetze hutsagatik, erlaxatzen gaituelako, estimulagarri zaigulako, erronkak proposatzen dizkigulako edota gorputza eta burua mugitzeko beharra sentitzen dugulako.



Mugatze hau gutxi ez eta kontua da gainera, goiti begiratu dezaten bezain bertzeko beldur garelaz beheti begiratu dezatenarena, putzuetan ziprztintzeaz, lohian zikintzeaz, sasietan harramazkatzeaz, hartxintzarretan min-hartzeaz edota zizare eta kakalardoak ukitzeaz. Eta orduantxe arriskuaren galderari aurrez aurre begira jarri beharko genioke, bizitza eta natura bera arriskutsutako irakasten ditugunean biofobiari bidea zabaltzen diogulako, parez pare zabaldu ere.

J. Joffok (1973) bere lan autobiografikoan emandako pasarte esanguratsu bezain eder honek ederki ilustratzen du hemen orain arte errandakoa:

"Harrituta naukate gaur egun arkitektoek hizpide dituzten haurrentzako sorkuntzek. Etxe berrietako plaza berrietan hareak, txirristak, zabuak eta bertze hainbat tramankulu bada. Eta hauek denak gainera, haur psikologian hamaika lizentziatura dauzkaten adituek sortutakoak dira. Eta afera ez doa ongi. Haurrak aspertu egiten dira, bai igandetan bai bertze edozein egunetan ere. Neure buruari galdegiten diot ea aditu haiek guztiek ez ote luketen jakin beharko zerengatik ginen gu horren zoriontsu Pariseko auzo hartan. Paris gris hura, bere dendetako argiekin, zerua moztzen zuten teilatu altu haiekin, eskalatzeko zabor ontziz beteriko espaloia haiekin, eta ezkutatzeko gorapeak, eta etxeetako txirrinak; denetarik bazen (...). Kale labirinto erraldoi batean barreiatuak. Esploratzera joaten ginen."

Beraz haurrei esploratzen, jolasten, utzi diezaiozun

da nire gaurko ondorioa, aunitz, aunitzetan eta orotariko orube eta eremuetan. Jolasa espazio kortxilatuetara mugatu nahi izan duten hiri-politiken aitzinean, espazioa jolaserako continuum baten gisara ulertu eta praktikatu dezagun, ulertu eta praktikatu dezaten haurrek. Espazio publikoa performatu, harez birjabetu eta bere balio sinboliko-politiko erradikalki eraldatu. Finean haurren kultura aldarrikatu, eta jolasa, bistan dena. Jolasaren espontaneotasunaren alde egiteaz gain, haren balio afektibo-emozional, intelektual, sozial zein kulturalaren alde eginen dugulako gisa horretan. Utz diezaiegun beraz goiti begiratzen, beheiti, ezker, eskuin eta gure irudimenaz gaindiko dena delako dimentsioetan barrena pausu berriak urratzen ere.

Bi eskuekin maitatzen dugunean, borroka desagertu egiten da

Juanma Feito

Aurkezpena:

Ondokoa testu luzea da, beraz, irakurketa errazteko, hiru zatitan banatu dut. Lotura dago zation artean, baina, era berean, bakoitzak eduki propioa du. Nahi baduzu, zati horietako bat soilik irakur dezakezu, edo hirurak pixkanaka. Nire asmoa da, guden, bakearen eta giza harremanen inguruko pentsamendu kolektiboari lagunduko dion beste begirada bat gehitzea.

- 1-Gudarekin lotutako esperientzia pertsonalak.
- 2-Hortik etorritako hausnarketak eta galderak.
- 3-Giza errealitateari buruzko nire usteak eta nire aukera pertsonalak.

«Guda bat justifikatzen dudanez geroztik, gudak irabazi egin dit, nire gizatasuna pitzatuta suertatzen baita. Pitzadura horretatik, mundu honetan nagusi diren sinesmen-sistema eta balio kapitalistak eta patriarkalak –belizismoa, bereizkuntza, mesfidantza, indarkeria, menderakuntza, indibidualismoa eta horiek dakartzaten zapalkuntza guztiak– nire buruan sartuko dira eta nire osotasuna inbadituko dute».

1. zatia.- Gudarekin lotutako esperientziak

Gerraren irrazionaltasun erabatekoak emozionalki astintzen nauenean lagungarri dut gudako beteranoei (nahiz gizonetzkoiei nahiz emakumezkoiei) entzundako testigantzak gogoratzea. Haiek gerrari buruzko oroitzapenak zehatz-mehatz azaldu zituzten, baita gerrak nola eragin zien beraiei eta maite zituztenei ere. Beren traumak erakutsi zituzten, eta gerrak haiengan utzitako arrastoa ulertu nuen.

Pertsona hauek beste pertsona batzuk hil zituzten borrokan. Haiek ere bizia galtzeko zorian izan ziren; beren ardurapeko soldaduak hiltzen ikusi zituzten; torturak eta espetxea pairatu zituzten; gerran nagusitu zen taldekoak ziren batzuk; derrotatuak bestetuk. Kontakizun hauek hona ekartzeak laguntzen dit ez ahazten tanke baten barruan dagoen gizona beldurrak izoztutako gizaki bat dela,



tentsioagatik isolatuta eta erabat gogortua dagoena. Hiriak inbaditzen eta bonbardatzen dituzten horiek sufritzen ari diren eta irrazionaltasunaren biktimak diren gizakiak direla, eraso horietan hiltzen diren pertsonak bezalaxe.

Beterano horietako bi, 1936ko gerran izan ziren nire bi aitona. Hilda daude biak, dagoeneko. Haiek, modu batera edo bestera, jakin zuten niri azaltzen geopolitikaren, datuen, analisisen, nazioen eta estrategien atzean biziki sufritzen ari diren pertsonak daudela eta sufrimendu hori berdin-berdin gertatzen dela bando edo bandera batean zein bestean. Gerra hartan, gizateriak lehen aldiz jasan zuen hiri eta herriak bonbardatzea.

Nire aitaren aldeko aitona alderdi galtzaileko hegazkin-pilotua izan zen. Hiru urtez ideologia nazi eta faxistadun europar armaden aurka borrokan aritu ondoren bizirik iraun zuen bakanetako bat izan zen. Aireko borroka askotan parte hartu zuen. Gobernu demokratikoak Sobietar Batasunari erositako hegazkin bonbardatzaile batean metrailadoreaz tiro egitea zen bere eginkizuna. Seguru da hildako pilo bat eragin zuela. Gerra amaituta, Frantziara hanka egin zuen fusilatu ez zezaten. Han, kontzentrazio-esparru batean giltzapetu zuten, eta handik ere ihes egin zuen. Emakume frantses batek hartu zuen etxean armada naziak Frantzia inbaditu zuenean. Ez zen inoiz itzuli familiarengana, eta ez zituen bere seme-alabak ezagutu.

Amaren aldeko aitona kanoi tiroak jaurtitzen zituen beste aitona armadaren aurka. Zaila da jakiten zenbat pertsona hil zituen, proiektilek oso urrutira

jaurtitzen baitziren. Gerrako istorioak kontatzeko eskatzen nion, zer zen ulertu nahi bainuen, baina gauza asko beretzat gorde zituen berak, eta ez zituen inoiz azaldu nahi izan. Beti erantzuten zidan: “Nahi nuke zuk sekula gerrarik pairatu behar ez izatea”. Gizon horrek zaindu eta maite egin ninduen. 21 urterekin, 35 urtetan intentsitate txikiko gerra batean murgilduta zegoen herrialde batera joan nintzen bizitzera. Gerra hau herri milizia klandestino baten eta armada boteretsu baten artekoa zen, eta jendearen bizitzan eragin handia zuen. Harremana izan dut borrokalari ohiekin, torturatuekin eta gerra honen ondorioz espetxealdi luzeak jasan dituzten pertsonekin. Horren inguruko bizipenak eta sentimenduak entzun dizkiet, eta horrek haien osasun emozional eta fisikoan izan duen eragina ikusi dut.

12 urtez parte hartu dut Guda eta Genozidioko Zauriak Sendatzen EBren proiektuan, Polonian egindako aurrez aurreko topaketetan. Han, guda-bizipenei buruzko hamaika testigantza pertsonal zintzo entzun ditut, bost kontinenteetako eta jatorri oso desberdineko pertsonak azalduta. Ordu asko eman ditut, halaber, gerren inguruko nire testigantza kontatzen. Gure artean konfiantzazko harremana sortu dugu, gure jatorrizko kulturatik eta gizarteetatik etor litekeen edozein urruntze edo gatazka gainditzen duena.

2. zatia.- Nire gogoetak eta galderak

Arma batez tiro egiten dugunean, gizakiak eta bestelako izaki bizidunak hiltzen dituzte haren balek eta bonbek; era berean, suntsitu egiten dituzte esfortzu eta baliabide inbertsio handiaz sortutako gauzak. Horrexetarako egin eta asmatu ziren armak. Horixe da haien helburu bakarra, ez besterik. Guk ideiez eta sinesmenez jantzi ditzakegu: askapena, eskubideak, defentsa, justizia, babes... baina arma horiek ez dute sentimendurik, ez errukirik, ez errespeturik, ez maitasunik, ez ideologiarik. Beren eginkizuna betetzeko daude soilik: hiltzea, zauritzea eta suntsitzea. Armen moztarrok aldatu egin ditzakegu, baina ez haien ondorioak.

Guda batean parte hartzera eraman nezaketen arrazoiak gorabehera, gerra horri zilegizkoa eta zuzena iritzita ere, neu izango naiz nire ekintzen ondoriozko heriotzen erantzulea, neu izango naiz beste horien hiltzailea, berdin dio nire burua defendatzeko izan den edo arerioak garaitzeko izan den. Beharbada ez ditut inoiz haien gorpuk

ikusiko, beharbada ez dut inoiz jakingo zer gertatu zen nire tiroaren ondoren, baina jakin badakit tiro egiterakoan zein izan zen nire xedea.

Gudian nire adiskideak, nire miliziakideak, nire senideak edo nire eskualdeko basoa eta bere animaliak hiltzen direnean; leherketa baten edo metrailleta-tiro sorta baten ondoren heriotza eta suntsipena ikusten, usaintzen eta sentitzen ditudanean; horiek guztiek nire zentzumen eta sentimenduak kolpatzen dituen; nire bihotza ilundu egiten da, nire bizitzeko ilusioa desagertu egiten da, ondoriozko min emozionalak gaixotu egiten nau... eta zauri horiek nire baitan iraungo dute betiko.

Nik egindako tiroak beste pertsona bat edo pertsona-talde bat hiltzen edo zauritzen duenean, haren lagunak, lankideak edo senideak biziki sufritzen dute heriotza horiengatik. Haien mina eta nirea berdinak dira, tonu eta intentsitate bera dute, eta min horrek gaixotu egiten ditu, ni nireak gaixotzen nauen bezala.

Zer egingo dut min horrekin? Zer egingo dut nire oroitzapenekin? Zer egingo dut sekula lasai egongo ez den nire gogamenarekin? Zer egingo dut pertsonak hil ditudala jakitun izateak bizkarreratu didan zamarekin? Beharbada nire buruaz beste egingo dut. Beharbada nire larritasunak ez dit lo egiten utziko. Ziur aski, sistema medikoak nire etsipena ezkutatzeke droga psikiatrikoekiko mendekotasunera bultzatuko nau, eta bazter batean nahastuta eta bakartuta utziko naute.

Zer egingo dut nire gorrotoarekin? Zer egingo



dut nire maitasunarekin? Nola itzuliko diet nik kendutako bizia edo osasuna nire aurka borroka zitezen norbaitek behartu, engainatu edo manipulatu zituen horiei? Nola nahi gabe ere hil nituen horiei? Edo hilda nahiagoko al ditut? Zer egingo dut neure buruarekin kapaza ez naizelarik irribarre egiteko, lasaitzeko, gozatzeko... gizakiarekiko errukirik sentitu ezin dudalarik? Gerra irabazi al nuen, ba? Hori al da irabaztea?

3. zatia.- Nire sinesmenak eta aukera pertsonalak

Gerra batzuetan beharrezkoa eta “logikoa” dela uste dudanez geroztik; aberria edo ideia bat bizi bat baino garrantzitsuagoa dela uste dudanez geroztik; bando batekin bat egiten dudanez geroztik; gerrak askatasuna ekar dezakeela uste dudanez geroztik;... horiez geroztik gerrak irabazi egin dit, nire gizatasuna pitzatuta suertatu da-eta. Pitzadura horretatik, mundu honetan nagusi diren sinesmen-sistema eta balio kapitalistak eta patriarkalak –belizismoa, zatiketa, mesfidantza, indarkeria, menderakuntza, indibidualismoa eta horrek dakartzan zapalkuntza guztiak– nire buruan sartuko dira eta nire osotasuna inbadituko dute.

Une horretantxe hasiko naiz pentsatzen arrazoizkoa dela pertsonengandik urruntzea, gizakiak mehatxutzat hartzea eta gorrotatzea. Ondorioz, ez naiz seguru sentituko, larri eta beldurrez biziko naiz, babesa edozein prezioztan erosteko prest egongo naiz... Era honetan ahul bilakatuko naiz, eta onartuko dut zenbait kasutan zapalkuntza beharrezkoa dela, pertsonen artean benetako bereizkuntza eta gatazka dagoelakoan. Ate hori irekitzen dudanean, nire ontasuna eta maitasuna kaltetuko ditut.

Zenbat eta gehiago urruntzen naizen kapitalismotik eta horrek eragindako kausetik, orduan eta gaitasun txikiagoa dute bere mezuek eta ideologiak niri min egiteko. Gizon naizen aldetik jantzita dudana armadura maskulino patriarkaletik zenbat eta gehiago askatzen naizen, orduan eta leku zabalagoa uzten dut femininotasunaren jakituria nire baitan errotzeko, eta horrek maitasunetik bizitzen laguntzen dit. Mendebaldeko kultura zuri patriarkalaren sinesmenak zenbat eta gehiago aldentzen ditudan neure burutik, orduan eta gehiago ikasten dut nire neba-arreba indigenengandik, eta haiek gogora ekartzen didate dena bat dela bizitza honetan, baita gizaterian ere. Zenbat eta orekatuago nagoen nire

baitan, orduan eta gehiago bizi naiz lankidetzan, senidetasunean, elkartasunean, entzuten, zaintzen, eta nire ekintzek garbiago islatzen dute ikuspegi hori. Guatemala etengabeko gudan dagoen herrialdea da. Indigenek nozitutako genozidioak suntsitua du herrialdea. Bi aldiz lan egin dut han gizonekin, mintegiak zuzentzen. Horietako batzuk gudako errefuxiatuak eta gudari ohiak ziren. Han horma batean idatzita ondokoa aurkitu nuen: “Neurezko armez soilik nekien borrokan nik: zintzotasunaz, samurtasunaz eta maitasunaz”. (Egilea emakumezkoa da). Nire jardueren gaia honako hau izaten da: “maskulinitatea eraldatzea maitasuna eraikitzeko”. Nire ustez, horrek gudaren eta indarkeriaren muinean jotzen du bete-betean. Hori are garrantzitsuagoa da kontuan izaten badugu gerra horiek indartu egiten dutela gizonezkoen bizia sakrifikagarria dela eta haien rol nagusia gudariak izatea dela dioen ustea.

Bizitzari horrela begiratzen diodanez, bizitzak konponbide baketsuak eskaintzen dizkit behin eta berriaz, eta baieztatzen dit egiazkoa dela nire ustea: bakeak bizi banau, bakea sortzen dut nire inguruan. Ez naiz bakearen alde borrokatzen, baizik-eta saiatzen bakeaz ontzen nire pentsamendu eta hitz oro. Horrela, nire ekintzek bakea sortzen dute. Horixe da nire erronka nagusia; izan ere, patriarkatuak eta kapitalismoak konbentzitu nahi naute bizitza pertsona on eta txarren arteko dualtasunean oinarritzen dela, lagun eta etsaien artekoan. Horrela, ni horretaz jabetu gabe, haien laguntzaile bihurtzen naiz. Adibidez, armetara jotzeko arrazoi logikoak sinetsita.

Mila esker gutun hau irakurtzeagatik. Bakean bizi zaitezen opa dizut. Juanma Feito

Itzulpenaren zuzenketa: Iñaki Kasares

Ipuin sexistak

Dorleta Kortazar

Ertz asko dituen gaia izanda, ezinbestean nire kontraesanekin topo egiten dut generoaren gaia lantzerakoan ipuinetan, literaturan eta batez ere ipuin tradizionaletan. Hezkidetzan, parekidetasunean eta generoan adituak diren pertsonen iritziak eta ekarpenak ezinbestekoak zaizkit nire egunerokoan, baita ipuin kontalari langintzan ere. Eta lerro hauen bitartez, partekatu nahiko nituzke nire hausnarketak, iritziak eta kontraesanak, ipuin kontalari naizen aldetik.

Iruditzen zait oso zabaldua dagoela ipuin tradizionalak sexistak direnaren ustea, gaur egungo ipuinak izango ez balira bezala! Eta politikoki zuzena izan beharrak, ipuinak zerbaiteko balio beharrak ekarri du gaur egun publikatzen den asko oso kalitate eskasekoa izatea, tramarik gabekoa, garapen laua duena, pertsonaia hutsak dituen...

Ipuin tradizionalen defendatzaile sutsua naiz. Iruditzen zait ipuinek dituzten sinboloak eta belaunaldiz-belaunaldi beraien baitan metatzen joan diren jakituria guztia oso boteretsua direla, garrantzitsua dela gure haurren garapenerako. Noski badaudela sexistak diren ipuinak, noski badaudela pertsonaia batzuetan jarrera asko ez ditudanak konpartitzen. Eta hauetatik ere asko ikasten dudan arren, nire hautua da hauek ez kontatzea, eta listo. Milaka ipuin dugu eskura. Bila dezagun benetan asebetetzen gaituen bertsio hori. Baina mesedez, ez ditzagun mutilatu ipuin tradizionalak! Ez nabil esaten gustatzen ez zaizkigun elementu batzuk ezin ditugunik aldatu edo kendu, baina kontuz ibili behar dugu, benetan ipuinak funtzionatzeko behar duen hori kentzen badugu, ezerezean geratuko da eta.

Hau esanda, galdera potoloa dator: **zerk egiten ditu ipuinak sexistak?**

Nire iritzian, badaude elementu asko kontuan izan beharko genituzkeenak. Hasieran esan bezala, orokortua dago, batez ere ipuin tradizionalaz ari garela, hauek sexistak direnaren ustea. Guztiak sartzen dira zaku berean, baina, zein oinarri dugu hau esateko? Zenbat ipuin tradizional ezagutzen



dugu? 10, 20, 50, ...? zein bertsio iritsi dira gure eskuetara? Badago ipuinen katalogo tipologiko bat (ATU) eta bertan jasotzen dira 2.500 ipuin mota baino gehiago, bakoitza beste hamarnaka bertsioekin. Hau ikusita, oso ausarta iruditzen zait horrelako iritzi bat botatzea, soilik ipuin tradizionalen zati oso txiki bat (eta bertsio oso konkrituak) ezagutzen direnean. Askotan aipatzen dira ipuin tradizionaletan azaltzen diren rolak oso markatuak direla, batez ere zaintza, langintza, jarrera edo etxeko-lanen ardurei erreparatuta. Ipuin hauek, orain dela ehunka urte sortuak dira, orduko errealitatea jasotzen dute eta ezin bestela izan. Baina, haurrak bere egunerokoan bizi duen rol eta ardura banaketa ipuinetan jasotzen duen mezuarekin bat badator, zein da arazoa, ipuina bera edo ehundaka urte beranduago sistemak antzera jarraitzen duenez, haurrak etxean egoera bera ikustea?

Ipuin tradizionalen amaiera zoriontsuak ere askotan sexista legez etiketatzen dira, heteroaraua islatzen omen dutelako: ezkontza, haurrak, amaiera zoriontsua... Ipuin tradizionalak sinboloz beteta daude, eta amaieran azaltzen diren elementu horiek sariak dira, protagonistak ipuinaren bidaitik irabazle itzuli ondoren jasotzen dituen sariak. Horrela, ezkontzak irudikatzen du pertsonaiaren baitan dauden polaritateak bat egiten duela, bere parte femeninoak eta maskulinoak bat egiten dutela, bere izatearen osotasuna espermentatu duela eta aurrerantzean pertsona osoa izango dela. Haurrak izatearenak, tribuaren bizirautea sinbolizatzen du. Eta amaiera zoriontsuak oreka esan nahi du: protagonistak ipuinaren hasieran desoreka bat bizi du, horregatik jartzen da martxan, horregatik

bizi behar du ipuinean gertatzen zaiona. Behin ipuinaren-bidaiaaren ikasgaia ikasita, berriro dator oreka. Amaiera zoriontsuez, gustatzen zait ipuin kontalari lagun batek esaten duena: berak dio ipuina ezinbestean bukatu egin behar dela (amaitzeko ordua iritsi delako), eta entzuleak itxi gabeko trama bat antzematen badu, bere izaera kuxkuxeroa pizten zaio eta jakinmina dauka jakiteko benetan zer gertatzen zaion zoriontsua ez den protagonistari, zer egingo duen aurrerantzean...

Hau guztiau esanda, badago hala ere generoaren lanketari begira gauza asko gure esku:

Imajinarioaren deskolonizazioa:

Jendartean bizi garen momentutik, imajinario bat partekatzen dugu. Hitz bat esaten dugunean, hitz hori irudi jakin bat bihurtzen dugu, kulturalki bizi dugun errealitatearen arabera. Gure esku dago bestelako erreferentziak eta irudiak eskaintzea entzuleari/gure haurrari, irudi horiek, imajinario hori deskolonizatzen eta eraldatzen joateko. Horretarako estereotipoak berrikusi beharko genituzke eta aldatu, esaterako edertasunari edo rolei dagozkien estereotipoak. Adibidez: maitemindu daiteke printzesa edertasuna ez den beste ezaugarri batez?; edertasuna zer da, zer da ederra izatea? Gure esku dago edertasunaren kanon horiek aldatzea, eta indarra eta lupa bestelako ezaugarri batzuetan jartzea.

Pertsonaiez dugun irudia ere zaindu beharko genuke, eta protagonista batzuei zein ezaugarri atxikitzen diegun aztertu: esaterako, pertsonaia gaiztoa irudikatzea sorgina, itsusia, zaharra, amaordea, amaginarreba... bezala. Badaude ipuinetan amaordeak, amaginarrebak, sorginak protagonistari bidaian laguntzen diotenak.

Protagonistaren aukeraketa: nork egiten du bidalia, nork ikasten du?

Egia da ipuin tradizioaletan protagonista gehiago daudela gizonezkoak, emakumezkoak baino. Dena den, lehen esan bezala, ipuinak sinboloz eta arketipoz osatuta daude, eta berez, entzule moduan, protagonistarekin egiten dugu bidaia, berdin hau gizonezkoa izan edo emakumezkoa izan. Protagonista gizonezkoaren bidaia emakumezkoaren psikea osatzen du, eta alderantziz.

Hala ere, gure esku dago protagonista aukeratzea,

eta berdin baldin bada protagonista emakumezkoa edo gizonezkoa izatea (hau ez da ipuin guztietan gertatzen), eta izenak izana duenez, egin diezaiegun lekua normalean lekurik ez dutenei.

Beste hainbat galdera, egoera aztertzen lagunduko digutenak:

Noiz agertzen dira emakumeak ipuinetan? Hasieran, amaieran...

Zein **langintza** dituzte? Zaintzara lotuak daude, langintza “garratzitsuak” dituzte...

Zein **harreman mota** dute? Protagonistak dira, emazteak, alabak, lagunak...

Zein **rol** betetzen dituzte?

Zein ezaugarri azpimarrantzen ditugu emakumeetan eta gizonetan? Adb: jakinmina duten emakumeak = kotilak / gizonak = ausartak...

Sariak eta zigorrak: zer da saritzen duguna? Zer zigortzen? Ipuin askotan emakume askok amaitzen dute hilda, erotuta, ... ipuinean/bidaian egin duten transgresioa handiegia delako.

Amaitzeko, aitortuko dizuet maza guzti honen erdian badagoela oraindik askatzea lortu ez dudana korapilo bat; ipuin tradizioaletan pertsonaia arketipikoak dira, eta horregatik pertsonaia izendatzeaz bat berekin doaz ezaugarri asko: adina, generoa, maila soziala, istoriaren kokapena... “Bazan behin, Irune izeneko neskatila bat”; “Bazan behin basoan bizi zen aitona xahar bat”; “Bazan behin inoiz irribarrerik egiten ez zuen printzesa bat”, ... Sinbolo hauek, arketipo hauek beharrezkoak zaizkigu entzule moduan gure barruan pertsonaiaren irudia sortzeko, honek lagunduko digulako ipuinean zehar pertsonaiarekin bidaiatzen eta mugitzen.

Nola uztartu hau, queer teoriak eta binarismotik haratagoko jendarte ereduarekin? Hementxe oraindik askatu ezinik nabilen korapiloa.

Haurrak medikuarengana laguntzea familien ardura “pribatua” dela ebatzi du Auzitegi Gorenak

Irati Aizpurua

Lana eta familia-zaintzak bateragarri egiteari buruz ari garenean, haurrak medikuarengana eramateko beharrezkoa den denborari buruz ere aritu behar gara. Izan ere, askotan, osasun zentroetara joateko hitzorduek bat egiten dute gurasoen lanorduekin.

Lan kontratupeko langileei dagokionez, hau da, Langileen Estatutua aplikatzen den kasuetan, lanera joateari uzteko kausa justifikatuak zein diren jasotzen du legeak eta, gainera, baimen horiek ordaindutakoak dira. Adibidez, ezkontza dela eta hamabost eguneko baimena eska daiteke, edo bi eguneko senideren batek gaixotasun larri bat duenean edo ospitalizazio egoeran aurkitzen bada. Zoritxarrez, adingabe edo mendekotasuna duen pertsona bati medikuarengana laguntzeko baimenik ez da espreski jaso.

Gauzak horrela, enpresa bateko langile talde batek demanda bat tarteratu zuen, seme-alabekin edo laguntzabehar duten pertsonekin osasun zerbitzuetara joateko denbora hori ere baimen ordaindu gisa onartu zedin. Zehazki, Langileen Estatutuaren 37.3.d) artikuluan oinarritzen zuten euren eskaria. Arau horren arabera, langileak, enpresari alde aurretik abisua eta dagokion azalpenak eman ondoren, baimen ordaindua eskatzeko eskubidea du, ondorengo egoeran aurkitzen bada:

“Nahitaezko betebeharrak publiko eta pertsonal bat betetzeko, botoa ematea barne, behar adina denbora [izango du].”

Baimen hori eskuratzeko, beraz, hiru baldintza eman behar dira: batetik, **“nahitaezkoa”** den obligazio baten aurrean egon behar gara; bigarrenik, **“izaera publikoa”** izan behar du betebeharrak horiek eta, azkenik, **“izaera pertsonala”** ere izan behar du. Auzitegi Gorenak, kasu zehatzaren analisia egiten du eta baimena ukatzeko argudioak ematen ditu. Batetik, familia eta haurren zaintza betebeharrekin



“izaera publikorik” ez dutela adierazten du, zaintza lan horiek familiaren eremu pribatuko kontuak direla esanez. Gainera, ardura horiei “izaera pertsonala” ere ukatzen die. Horrekin zera esan nahi da: obligazio horiek beste pertsona batek ere burutu ditzakeela, ez dituela zertan gurasoak edo senide konkretu batek egin behar. Beraz, seme-alabak edo mendekotasuna duten pertsonak medikuarengana eraman behar direnean, langileak ezingo du aipatu baimen ordaindu hori eskatu.

Auzitegi Gorenaren ikuspegiak hausnarketarako tartea ematen du, modu azkar eta sinple batean zaintza lanak eremu pribatura mugatzen baititu, eta ardura horiei edozein izaera kolektibo ukatzen baitie. Ez al da, ba, gizarte osoaren ardura, gure seme-alabek ongizate mailarik gorena bizi dezaten ahaleginak egitea? Haurrak dira bizi garen sistemaren oinarri eta etorkizuna, beraz, euren osasuna zaintzea osasun publikoko kontu da, nire ustez. Bestalde, haurra medikuarengana eramatea edonork egin dezakeela esatea argudio oso arina iruditzen zait. Alde batetik, kasuan kasu ikusi beharko genukeelako ea familia horrek baduen benetan beste inor zaintza lan horiek egin ditzan (aiton-amonak ere lanean dauden familiengan pentsatzen dut, adibidez). Eta, bestetik, haurrak bere zaintzaile nagusia den horrekin joateko eskubidea aldarrikatuko nuke, babes gehien sentituko duenarekin joateko eskubidea. Are gehiago, zaurgarritasun egoera batean egon daitekeenean haurra (demagun gaixotasun larriren bat duen jakiteko azterketak egin behar dizkiotela).

Hala eta guztiz ere, kontziliazio-eskubideei buruz ari garenean, oso garrantzitsua da norbere lan esparruan

aplikagarria den araua ondo ezagutzea. Izan ere, hitzarmen kolektiboek (edo enpresako bestelako barne-arauek) baimenen ingurua hobekuntzak jaso ditzakete, eta bertan topa daitezke kontziliazio arazo hauei irtenbidea emateko formulak (dela baimen ordaindu edo ez ordainduen bidez, edo berreskuratu behar diren orduen sistema erabilia – ordu batzuetan lana ez egin eta beste egun batean lan eginez berreskuratuta-).

Administrazio Publikoaren eremuan, esan beharra dago, askoz ere hedatuagoa dagoela honelako egoeren babesa, baimen eta lizentzia sistema sakon eta zabalagoa izan ohi da eta. Beraz, enpresa pribatuetan ere zaintza ordu hauek baimen ordaindu moduan jasotzeko pausuak ematea da bidea.

Errua... zuretzat

Nahia Alkorta


Bada azken aldian bereziki indartu den eta kezkatzen nauen korrante bat amatasunen inguruan: erruduna bilatzea (eta kausalitateaz, beti da ama). Aintzinako zenbait filosofo egiten zuten bezala ari dira orain ere korrante oso ezberdinetako profesionalak guztiaren errua beti berari egozten.

Hasi amatasunaren munduan erreferentetzat jotzen diren psikologoetatik eta abanikoa zabaltzen da fisioterapeuta, osteopata, nutrizionista, mediku, pediatra, erizain, emagin...eta opinologoetaraino. Haurrak kaka gogorra egiten duela? Amaren errua: esne txarra du ur gutxi edaten duelako. Haurrak amets gaiztoak dituela? Amaren errua, bere birramonak txikitari bizi zuen pasarte bat errepikatzen ari da. Haurra urduria dela? Noski, amak kolazko freskagarri bat edan zuen haurdunaldian. Haurrak negar egiten duela? Amaren itzalaren proiektzioa da. Haurrak dermatitisa duela? Noski, amak txerto bat hartu zuen haurrak 3 hilabete zituenean eta...

Adibide tuntunak, guztiak azken asteetan jasoak, eta tuntunak badirudite ere amen motxilara beti harria. Pasarte larriagoak ere bai, izen handiko gizon (ejem, honetaz ere hitz egin beharko dugu ez? Zergatik dira hain maiz gizonak geziak hain zuzen botatzen dituztenak?) non haurraren minbizia amaren txikitako gertakariaren bati lotu zaizkion... Baita ausazko abortu baten ostean amari zuzenean zuk hil duzu zure haurra zure urduritasunarekin esan zaion. Bikote harremana ahultzen denean erditze ostean (eta batez ere heterossexuala bada), amak bikotekideari behar duen arreta ez eskaintzeari egozten zaio maiz... Edo sexu harremanak gutxitu nahi izan dituelako gizonak gaizki tratatzea justifikatzen duten familia terapeutak ere ikusi ditut.

Zer gertatzen da? Zergatik nahi ditu sistemak ama suntsituak? Zergatik "botere" roletik haurren osasunaz hitz egiten ari garenean arazoa tratatu ahal denean tratatu eta bestela familia akonpainatu beharrean errudunak bilatu? Zein obsesio duzue amekin?

Sarri halako epaiek sortzen duen minak eta



ezeinonak amen osasun mentala (zein fisikoa) are gehiago suntsitzen dute (eta ez gaude osasun mentalari dagokionez ospakizunetarako...). Arazoak konpondu beharrean fokua arazotik deszentratu eta gudan jartzen denean sortzen den mina zaila da sendatzea.

Amek nahikoa dugu sistema heteropatriarkal honetan, kapitalismoaren agintepean bizirik irautearekin. Ahal dugun hoberen egiten dugu eta kontsultara haurraren arazo batekin goazenean arazo hori tratatzea behar dugu. Erruaren motxila kontsulta kanpoan utzi nahi dugu eta ez dadila gehiago bete ateratzen garenean. Zuregana bagoaz, zudan konfiantza dugulako da, ez ezazu horrekin jokatu.

Amek ez dugu guztiaren errua... Gehiago esango nuke, amek ez dugu ezerean errurik.

Evak jandako sagarraren koplarekin jarraitzen duzue, baina Evak primeran egin zuen seño baten aginduari uko eginda.

Arren, errudunak topatu nahi badituzu, begira iezaiezu sistema hau inposatzen jarraitzen dutenei... ala, akaso zuri ere interesatzen zaizu amak sumiso eta zaurgarri izatea?

Suizidioa

Itiara Mendizabal

Artikulu hau idazten, duela 15 bat egun hasi nintzen. Ez da erraza izan niretzako gai hau plazaratzea. Aurreko astea zen idatzia entregatzeko epemuga, baina aste honetan telebistan Ur Handitan saioan honetaz hitz egin behar zuela ikusita, aste beteko atzerapena eskatu nuen.

Azken aldian suizidio hitza tabu izatetik hitz egin daitekeen eta hitz egin behar den gaia izatera pasatu da. Pandemia alu honek gainera mahai gainean inoiz ikusi ez diren suizidio-tasak jarri dizkigu mahai gainean.

Anorexia suizidio geldo bezala deskribatu izan dut nik. Gure burua zigortu eta hiltzera arte eramaten gaituen gaixotasuna izatera iritsi baitaiteke.

Anorexiak depresio handia dakar eskutik, edo depresioak sortu ohi du anorexia. Batak bestea estuki lotuta darama, berdin da zein izan den aurrena sortu dena, eta depresio horrek zulo beltza.

Ez dakit inoiz hau publiko esatera iritsi naizen, baina gaixo pasa ditudan 20 urte hauetan suizidioarekin lotura duten 2 momentu aipatu nahiko nituzke. Irakurleari gogoratu nahiko nioke beti nire esperientzia oinarri hartuta idazten dudala, ez dela ezer zientifikoa, eta ez naizela gaian aditua.

Pertsona batek bere buruaz beste egiten duenean ingurukoak jota uzten gaitu. Espero ez dugun zerbaite izaten da, detektatu ez duguna, konturatu ere egin ez garena. Hain gaizki zegoela pentsatzera ere iritsi ez garenean, joan egiten da maite dugun hori eta guregan ikaragarritzko erru sentimendua uzten digu. Utzi gaituen pertsona horrek bere buruaz beste egiteko asmoa noiztik ote zuen jakin nahiko genuke.. zenbat denbora daramakin hori planeatzen. Baliteke urteak izatea, asteak, egunak... edo ez. Momentu puntual bateko ezin-egonak eraman gaitzake honetara.

Ni 15 urterekin hasi nintzen gaixotzen. 18 urte nituenean, ez nintzen ezer. Hutsaren hurrengo sentitzen nuen nire burua. Inork maitatu ezingo lukeen pertsona. Mundu honetan egon edo ez, berdin



zitzaidala uste dut. Baina inoiz ez zitzaidan burutik pasa sufrimendu horrekin bukatzeko aukera izan nezakeenik.

18 urterekin psikiatrikoan ingresatu ninduten. Ingresatuta pasa nituen hiru hilabete horietako egun batean izan zen argia piztu zitzaidan eguna. Taldeko terapia batean geunden, eta suizidio hitza atera zen. Oso terapia intentsua izan zen, lur-jota bukatu nuen. Handik ateratzean taldeko guztiei punta zuten gauza guztiak kendu zizkiguten gure zaintzaileek, josteko erabiltzen genituen guraizeak.. orratzak, hariak ere... eta aurreneko aldiz konturatu nintzen nire sufrimenduarekin bukatzeko aukera bat bazela. Zorionez, beranduegi konturatu nintzen horretaz, eta terapia aurrera joan ahala, ideia hori ere burutik joan zen.

24 urterekin izan zen bigarren momentu puntual hori. Nire azkeneko ingresuan. Egun oso oso txar bat gogoratzen dut. Inoiz baino okerrago sentitzen nintzen. Hutsaren hurrengo aipatu badut, oraingoan hurrengoaren hurrengo sentitzen nuen nire burua. Egun osoa ohean negarrez pasatu nuela gogoratzen dut. Ez nuen altxatzeko indarrik, eta burutik pasatu zitzaidan berriro ingurukoak hobeto biziko lirakeela ni egongo ez banintz. Berriro ere, zorionez, momentu horretan kontrolpean nengoen.

Ez dakit bi egun hauetan aukera izan banu nire buruaz beste egiteko indarra izango nuen edo ez, baina pasarte hauek gogora ekarriz, konturatzen naiz, bere buruaz beste egiten duen pertsona horrek agian ez zeramala guri iruditzen zaigun moduan denbora asko gaiari bueltak ematen... ez daude seinale

garbiak, eta inoiz ez da ingurukoen errua.

Aurreko batean telebistan txakurrei buruz hitz egiten hasi ziren, txakur batek normalean koskarik ez omen du egiten, baino koska egin nahiko balizu, ez duzu alde egiteko aukerarik izango. Ez dizu erreakzio aukera askorik utziko. Pertsona batek ere, horrelako erabaki bat hartzen badu, ez dizu abisatuko, egingo du, eta ezingo duzu ekidin.

Elikadura nahaste batekin gaixotzen den pertsonaren arrisku handi bat gorputzari eragiten dion kaltea izaten da, baina are handiagoa buruak sortzen diguna da. Gorputzari nahiko erregai ematen ez diogun momentuan, indarra galduko dugu, fisiko eta mentala.

Gaixotu den pertsona laguntzea ez da lan erraza. Lagundu hitza ere ez dakit erabiliko nukeen, kontentzio lana baita gehien behar duena.

Oraingoan ere, prebentzioan indarra jarri behar dugula esaten bukatu behar dut artikulua. Behin zuloan sartuta ateratzea zaila da eta (baina ez ezinezkoa).

Hilekoa duten pertsonak ahalduzko hainbat gogoeta

Ainhoa Añura Callero

Hilekoaz hitz egiten hasi aurretik, alua eta umetokiarekin jaiotzen diren pertsonen sozializazioaz hitz egin nahiko nuke. Izan ere, jendarte honetan ez da gauza bera aluarekin edo zakilarekin jaiotzea. Badira gorputz normatiboak eta ez normatiboak: “egoki” edo “oker” moduan begiratzen ditugunak. Pribilegioa da gorputz oso batekin jaiotzea, bere zati guztiekin. Baita autonomiaz mugitzeko gaitasuna izatea, kanon estetikoaren barruan egotea edo azal zurikoa izatea. Zakila eta bi barrabil izatea pribilegioa da. Zakilaren tamaina pornoko aktoreen zakilaren tamainara gerturatzen bada, ustezko boterea handitzen da. Hauxe izango litzateke jendartearen erdigunean kokatzen den gorputza, zakila duen gorputza, hain zuzen. Mendebaldeko kulturak zakila duten gorputzetan jartzen du fokua, honi deitzen zaio falozentrismoa; adibide argiena, edozein hiri, herri, auzo edo eskoletako paretetan ikus daitezkeen zakilen grafitiak dira. Zakil handi, lodi, tente eta iledunak ikus ditzakegu nonahi, batzuk gainera semen ttantekin ere ikusi izan ditugu. Edozeinek daki halako bat marrazten.

Aipatutako gorputz normatiboaren eskematik ateratzen den pertsona oro, boteretik kanpo kokatzen da. Beraz, jendartean alua eta umetokia izatea ez da normatiboa. Begiraden periferian kokatzen gara. Non ikusi daitezke aluak? Eta klitoriak? Eta odola? Zakilak edozein lekutan marraztearen atzean dagoen mezua eremu publikoa zakila dutenei, askotan gizonei, dagokiela da. Botere adierazpena da. “Kaleak gureak dira”, horixe da paretetan marraztuta dauden zakilek oihukatzen dutena.

Gehiengoak badaki munduko biztanleriaren erdiak odola botatzen dugula baginatik, baina ideiarik ez odol hori non edo nola sortzen den eta zergatik. Hilekoaren ziklo osoan, hilekoaren fasea da denei ezagunena eta ikusgarriena suertatzen zaiguna. Odola isurtzen dugun egunez gain, beste hiru fase badirela (aurreobulazioa, obulazioa eta hilekoaren aurrekoa) urteak aurrera joan ahala ikasi dugu gehienok. Fase hauek aurretik ez ezagutzea da gaur



egungo hilekoaren tabuaren adierazle.

Odolak hilean behin gogorarazten digu ziklikoak garela eta umetokia dugula. Fase honetan, gorputzak gure atenzioa eta zaintza eskatzen du eta askotan, minaren bitartez egiten du. Frustrazioa eta haserre sentitzen ditugu maiz, gure gorputzak zaintza eskatzen digulako eta munduak eskatzen duen erritmoan ezin ditugulako egunerokotasuneko ardurak bete. Zakila duten pertsonentzako eraikitako egunerokoan, ez dira gorputz ziklikoak errespetatzen. Hileko mingarriak izatea alua duten pertsonen izate naturalaren parte bezala ulertzen da. Sufrimendu horren arrazoiak alua duten pertsonengan dagoela dirudi, hilekoa bera dela sufrimendua. Erika Irusta pedagogo menstrualak dion moduan, hilekoak berez ez du minik ematen; mundu honetan hilekoa izatea da mingarria. Hilekoaren mina belaunaldiz belaunaldi transmititutako nazka, zikintasun eta isiltasunaren karga emozionalari esleitzen dio Irustak eta minez gertatzen den beste edozein prozesu fisiologikori arreta eskaintzen diogun moduan, hilekoaren minari ere, alderdi kolektibo eta indibidualean arreta jarri behar diogula aldarrikatzen du.

Testuingurua ikusita, haur eta gazteek hilekoarekin lotutako esperientzia atseginak entzutea eta ikustea behar dute, hilekoa garrantzitsua dela jakitea eta horretan, hezitzaileok dugu hilekoaren bizipenak birsortzeko ardura; hilekoa ahalik eta modu atsegin eta osasuntsuenean bizitzeko ardura. Aluarekin eta hilekoarekin dugun harremana berreraikitzea da gure egitekoa. Horretarako, estrategia berriak eraikitzen joan gaitezke: hilekoaren odola eta hau jasotzeko material berrerabilgarriak eta ez toxikoak (kopak,

konpresak, kuleroak...), poltsikotik mukiak kentzeko klinexak atera edo beste norbaiti eskatzen dizkiogun bezalaxe, etxean, eskolan eta kalean ikusgarri eta irisgarri egotea ederra litzateke. Aldi berean, hilekoaren zikloa kontzienteki bizitzen entrenatu behar dugu, honek lagunduko digu gure burua hobeto ezagutu, onartu eta zaintzen, bai eta inguruko harremanak modu osasuntsuagoan eraikitzen ere. Horretarako lagungarri izan daitezke hilekoaren zikloa erregistratzeko eta analizatzeko erramintak; ilargi diagrama esaterako. Gure zikloa erregistratzeak patroiak identifikatzen lagunduko digu eta gainera, hileko mingarriak baditugu mina nondik datorren ulertzen ere lagundu dezake. Hilekoan adituak edo espezialistak diren pertsonengana informazio eske hurbiltzea ere lagungarria izango da, zikloari eta minari arreta eskaintzeko.

Azkenik, ardura kolektibo zein indibiduala da hilekoari ikusgarritasuna ematea: kolektiboa esaten dudanean, hilekoa ez duten pertsonak ere errealtate honetan eragiteko duten ardura azpimarratu nahi dut. Hilekoa “emakumeen” gauza bezala ulertu da betidanik eta hau hilekoaren bizipenak baldintzatzen dituen beste mitoetako bat da. Lehenik eta behin, hilekoak ez gaitu emakume egiten: badira hilekorik ez duten emakumeak, umetokirik gabekoak, emakume zakildunak... Eta bestetik, hilekoa ez duten hezitzaileen ardura ere bada hilekoaren inguruko azalpenak ematea beraz, beraiek ere hilekoaren zikloaren inguruko informazioa eskura izatea ezinbestekoa da. Eguneroko harremanetan, erritmoetan eta ekintzetan errespetatu behar dira bizitzaren eta gizakiaren ziklikotasuna.

Eskola eta kaleetako paretetan alu odoltsuak marrazten direnean ospatuko dugu hilekodun pertsonen ahalduntzea!

Errespetuari begira

Nerea Mendizabal

Errespetu hitza, testu-inguru askotan erabiltzen dugun eta karga handia duen hitz bat dela esango nuke: “helduei ezin zaie errespetua galdu”, “hori errespetu falta haundia da”, “arauak errespetatzen ez badira, neurriak hartuko dira”...

Errespetu hitza latinezko respectus hitzetik dator, re- eta sepctrum hitzetik: “re” berriro eta sepctrum “begiratzea” litzateke. Hortik, berriro begiratzea, lehen begiradarekin ez geratzea, lehen ideia berrikustea eta berriro begiratzea dela esango nuke.

Beraz, nire begiek ikusi dutena “errespetu falta” dela pentsatzen dudanean 3 ertzetatik begiratzea proposatuko dut:

1. Neuri begiratzuz: ni neu noiz, nola eta zeini ari naiz errespetua galtzen? Inolako tragedia edo erruduntasunik gabe. Batzuetan, seme alabekin, bikoteekin, nire gurasoekin, lankideekin, edo are eta gehiago, neure buruarekin errespetua deitzen diogun horretatik urrutiratu naiteke eta beraz, seme-alabengan ikusten dudana “errespetu falta” horrek nigan dagoenaz jabetzen eta lantzen lagundu nazake.

2. Beste angelu batetik begiratzuz: ni neu nola errespetarazten naizen begiratu dezaket; nola defendatzen naiz mingarri edo deserosoa zaizkidan egoeratan? Nola jartzen ditut mugak? Nola aldarrikatzen dut niretzat garrantzitsua dena? Orokorrean ausartzen naiz esaten, alderdi honetatik ere denok dugula ikasteko, mugak irmo eta goxo jartzearen ikasgaia. Sarritan modu zorrotz eta gogorrean jarri ditzakegu eta beraz, non gelditzen da errespetua? Edo ez ditut jartzen, permisibitatean eroriz eta kasu horretan, nik neuk ez nuke errespetatuko.

3. Azken ertz bat ere begiratu dezakegu: errespetua galtzen duenari zer gertatzen zaion ikusiaz. Oihuka edo zatarkeriekin hitz egiten ari dena ze esperimintatzen ari ote da? Modu trajikoan ari daiteke adierazten bere ezinegon, desesperazio edo aldarrikapena. Hau ulertzeak ez du justifikatzen ezer baina bai pista batzuk eman diezaguke adierazle



horren jatorria nondik datorren aztertzeko. Hori aitortuz eta zainduz, horrela aktuatzera eramaten dion motiboa bideratzen lagundu geniezaioke.

Gure seme-alabak, puntualki edo nahi baino gehiagotan modu ankerrean aritu daitezke. Guraso eta seme/alaben edo irakasle/ikasleen artean dugun harremana aldatu egin da eta garai batean, helduei ez ginatekeela horrela erantzuten ausartuko entzun eta pentsatu dezakegu. Batzuetan autoritarismoan egon gaitzke eta bestetan permisibitatean. Eta aldaketa honetan, dagokigun lekuan kokatzea eskatzen du; neurekiko begirunetik hasi eta besteengandik datozen egoerak irmotasun, goxotasun eta ziurtasunetik kudeatzen ikasiz.

Harremanetan ditugun interakzioetan mezu asko helarazten ditugu, hitzak baino haratago. Gure seme-alabek, esaten duguna baino esaten ez duguna gehiago jasotzen dute. Beraz, esan edo ez esan, seme-alaben aurrean eztabaidatu edo ez, ze begirune diet berauen amari, aitari, aiton amonei, irakasleei? Ze begirada eta leku ematen diet nire barrenean beraientzat esanguratsuak diren pertsona hauei?

Gurasook bizi izan dugunarekin, dakigunarekin eta aurkeztzen zaigunarekin ahal duguna egiten ari gara. Momenturen batean edo nahi baino gehiagotan, damutzen naizen moduren baten aritzen bagara, ez da erruduntzeko momentua. Seme alabak ez dituzte guraso perfektuak eta dena ondo egiten dutenak nahi. Gure trakeskeria, limitazio eta ezintasunen aurrean umiltasunetik onartu, goxo tratatu eta hortik bideratzen joaten bagara, lehendabiziko onuradunak gu geu izateaz gain inspirazio iturri izan gaitzke.

Kontziliazioa oinarrizko eskubide gisa ulertu behar da

Trati Aizpurua Alquezar

Kontziliazioaz ari garenean, haur txikiak dituzten familia-eredua datorkigu burura gehienoi, eta familia eta lana bateragarri egiteko laguntza edo neurriez aritu ohi gara. Hitz honi behar bezalako pisua eman behar zaio, izan ere, kontziliazioa gizarte-antolamendua eraldatzeko formula gisa ikusi behar dugu, zaintza-arduren eta soldatapeko lanaren arteko elkarbizitza orekatua bilatzeko helburua dago eta atzean.

Familia eta lana bateragarri egitea errazteko bidean, bi tresna nagusi aipa daitezke: batetik, lan-baldintzetan aldaketak egiteko eskubidea (eszedentzia edo murrizketak, besteak beste) eta, bestetik, dirulaguntza publikoak jasotzeko aukera. Gaurkoan, lehen neurri horiei buruz arituko gara.

Langileak kontziliazio-beharra duenean, enplegatzailearen (enpresa edo administrazio publiko) eta langilearen arteko harremanean elementu berri bat sartzen da, zeinak lan-harreman horren baldintzetan aldaketak egitea ekar dezakeen (lanorduak murriztea, adibidez). Enpresa batek, antolakuntza arrazoiengatik, lan-sistema edo ordutegiak alda ditzakeen bezala, **langile batek ere (familia antolatu behar duelako, nolabait esatearren) lan-baldintzetan aldaketan egin daitezen eskatzeko eskubidea du**. Eta, eskubide hau, oinarrizko eskubide gisa ulertu behar dela azpimarratzea beharrezkoa da; hau da, ez da langilearen nahi edo apeta moduan ikusi behar. Familiaren (zentzu zabalean) erantzukizun nagusia haurrak zaintzea eta babestea da, eta, haurrek, beren nortasuna harmoniaz garatzeko, familian zorientasun eta maitasun giroan hazi behar dutela gogorarazten du Nazio Batuen Erakundeak.

Europar Batasunak ere izan du aukera guraso eta zaintzaileen kontziliazio-eskubideei buruzko araudia egiteko, non amatasun eta aitatasun baimenak, lan egiteko formula malguak eta diskriminazioaren aurkako neurriak jasotzen diren. Kontziliazio-politikek emakume eta gizonen arteko berdintasuna erdiesten lagundu behar dutela gogorarazten du, gainera, Europar Batasunak; izan ere, emakume



langileak izan dira lanorduen murrizketak edo eszedentziak eskatu izan dituztenak hein handiago batean, horrek euren ibilbide profesionala kaltetzen zuelarik. Familiako zaintzak partekatzea, beraz, emakume eta gizonen lan eremuan dituzten ezberdintasunak gutxitzen laguntzeko neurrietako bat litzateke. Aipatu araudiak, gainera, honelaxe dio:

“Kontziliazioa... erronka handia da oraindik guraso eta familiaren zaintzaren ardura duten langile askorentzat, bereziki ordutegi zabalengatik eta lan-egutegian egiten diren aldaketengatik, eta horrek guztiak eragin negatiboa du emakumeen enpleguan”.

Teoriatik praktikara salto egitea gustuko dudanez, joan gaitezen harira, egunerokotasunean zer egin daitekeen zehazteko. Ezagunenak diren kontziliazio-neurriak hauexek izan ohi dira: lanordu murrizketa (soldata murrizketa proportzionala dakarrelarik) eta eszedentzia (lanik ez, beraz, soldatarik ez). Bi neurri hauetariko bat eskatuz gero, administrazio publikoek dirulaguntza bat eman dezakete, baina ez dute inolaz ere diru-galera konpentsatzen. Gauzak horrela, bi mekanismo hauek dakarten kalte ekonomikoa jasanezina bihurtzen da zenbait familientzat. Lanordu murrizketek eta eszedentziek, diru-sarreraren duten eraginaz gain, badute beste ondorio bat: lana modu partzial edo osoan egiteari uzten zaio, eta horrek ibilbide profesionalan ere eragin negatiboa izan dezake.

Hau guztia esanda, nire ustez interes handikoa den beste formula honen berri ematea beharrezkoa ikusten dut: lanaldiaren egokitzapena eskatzeko eskubidea. Lan kontratupeko langileen zein

administrazio publikoko enplegatuen kontziliazio eskubidea honek aukera zabalak ematen ditu. Eta, zertan datza eskubide honek? **Bada, kontziliazio-arrazoiak medio, lan-baldintzak “egokitzea” eska daiteke: adibidez, txanda finko batean lan egitea (txandakako txandetan lan egiten denean), asteburuko txandak ezabatzea edo ordutegi jarraia egitea arratsaldean lehenago atera ahal izateko. Lanorduen murrizketarik ez dagoenez, neurri honek ez du soldatan inolako eraginik** (beraz, murrizketa edo eszedentzia hartzeko aukera baztertu dutenentzat erabat egokia da). Legeak ez du mugatzen zein aldaketa eska daitezkeen eta, beraz, kasuan kasu ikusi beharko da ea noraino helduko den eskubide hau (horrexegatik pizten du interes berezia). Hobe ulertze aldera, adibide batzuk emango ditut, epaitegietan jadanik ikusi diren kasu batzuk aipatuz.

Kasu batean, emakume langile batek, **lantoki aldaketa eskatu zuen** (herri bateko bulegotik beste herri batekora eraman zezatela, alegia), **bere etxetik gertuago lan egin eta haurraren zaintza errazago burutu ahal izateko**. Epaitegiak bi ondorio oso garrantzitsu eman zituen: batetik, lan zentroz aldatzea, “egokitzen georafiko” moduan ulertu behar da eta eskubide honetan barne biltzen da aukera hori. Bigarren, enpresako beste langile batzuen eskubideen aurretik, emakume honen kontziliazio-beharra jarri behar dugu; izan ere, kontziliazio-eskubideak oinarritzko eskubideak dira, familiaren babesaren lotuta daudelarik.

Beste kasu batean, gizon batek, adingabeen aita, **lanaldi jarraia egitea eskatu zuen arratsaldean haurrekin egon ahal izateko** (ordurarte goiz eta arratsaldean egiten zuen lan, bazkaltzeko ordubeteko tartearekin). Aipagarria da, kasu honetan, lehen aldiz kasua ikusi zuen epaileak zera esan zuela: aita honek ez zuela frogatu amak ezin zituenik haurrak zaindu. Epai horren kontra helegitea tarteratu ondoren, goragoko epaitegiak zera erantzun zuen: gizon honek “bere kontziliatzeko eskubide indibiduala” eskatzen duela, eta ez duela garrantzirik jakiteak ea ama (edo familiako beste kideren bat) hurrez ardura daitekeen. Gauzak honela, aitaren eskaria onartu eta ordutegi jarraia egitea onetsi zen.

Azkenik, ezin aipatu gabe utzi, **mendekotasuna duten senideak zaintzeko** lanaldiaren egokitzena eskatu zuen emakumearen kasua (kasu honetan, ez daude haur adingabeak tarteko). Langile honek urteak zeramatzen goizeko txanda egiten (enpresak

bi txanda ditu, goizekoa eta arratsaldekoa) eta, bat-batean, enpresak arratsaldeko txanda egitera behartu zuen. Bada, bere eskaria sinplea zen: manten ziezaiotela orain arte egiten ari zen goizeko txanda, laguntza behar duten gurasoak eta mendekotasun handiko anaia dituelako, eta egutegi aldaketa horrek antolakuntza guztia berregitea suposatuko liokeelako. Epaitegiak arrazoi eman eta **kontziliazioak pertsonaren dignitatearekin lotura estua duen oinarritzko eskubidea dela gogorarazten du**.

Laburbilduz, lana eta familia bateragarri egiteko neurri ezberdinen artean norberaren beharretara egokitzen dena aukeratzea ez da lan makala. **Esan bezala, lanaldiaren egokitzena eskatzeko eskubideak aukera oso zabalak eskain ditzake, norberari egokitutako lan-formula bat lortzeko aukera dagoelako**. Langilearen eskaria ukatzeko, enpresak pisuzko arrazoi objetiboak jarri beharko ditu mahai gainean, izan ere, kontziliazioa oinarritzko eskubide gisa ulertu behar da eta berau mugatzeko kausak ezin dira nolanahikoak izan. Espero dezagun epaitegi guztiek ildo horiei heldu eta lana eta familia uztartzen lagunduko duten neurrien aldeko apustua egiten jarraitzea.

Bronkiolitisa

Jabier Agirre

Txatxilipurdirako gai egokiaren bila nenbilela, hara non irakurtzen dudan egunkarian Osakidetzako lehen mailako arretan 6.000 kontsultatik gora izaten dituztela urtero bronkiolitisa dela medio, albistearen titular moduan, eta...iazko denboraldian Larrialdietako Zerbitzuan artatutako 3.000 kasuetatik 500 bat direla ospitalean ingresatuta amaitzen dutenak. Albistea ez zen larritzeko modukoa, ezta gutxiagorik ere, baina gaiaren inguruan gurasoentzat kezka ugari egongo direla jakitun, gaurkoan gaitz horri heltzea pentsatu dut, arazoaren argi-ilunak jorratu asmoz.

Zer da bronkiolitisa?

Arnasbideetako infekzio bat da azken finean, bronkioloak izeneko arnas hodi fin-finak birus batekin infektatzen direnean gertatzen dena. Infekzioaren ondotik, arnas hodi horiek inflamatu eta mukiz betetzen dira eta horrek, noski, haurtxoaren arnasa zaildu egiten du.

Bronkiolitisa usuagoa da negu-partean. Eta haurtxoen eta ume txikien kontua da gehienbat, horien arnasbideak tamainaz txikiak eta kalibrez oso estuak direnez, haur koxkortuagoenak eta helduenak baino errazago buxatzen direlako. Horrez gain, errazago jasango dute bronkiolitisa garai aurreko edo prematuroek, bihotzeko nahiz biriketako arazoak dituztenek, edota immunitatea ahulagoa dutenek ere.

Haurtzaindegira joateak, eskolara doazen anai-arrebak edukitzeak edo beste pertsona batzuek erretzerakoan botatzen duten kearen pean egoteak ere gehitzen dute bronkiolitisa garatzeko arriskua. Haur handixeagoek, nerabeek eta helduek ere jasan dezakete bronkiolitisa, noski, baina kasu horietan infekzioa arina izan ohi da.

Bronkiolitisaren arrazoiak

Arnas birus sintzitalia izenekoa da bronkiolitisaren eragile nagusia, baina zenbait kasutan hoztura arruntak edo gripe soil batek ere eragin dezake bronkioloetako gaitza.



Zeintzuk dira bronkiolitisaren zeinuak eta sintomak?

Bronkiolitisaren aurreneko sintomak hoztura edo marranta arruntaren berdinak izan ohi dira, alegia sudurreko kongestioa (sudurra itxi egiten zaio umeari), muki-jarioa, eztula edo sukarra.

Eta normalean, hasierako sintoma horiek berez hobetzen dira, aparteko neurririk hartu beharrik gabe. Baina kasu batzuetan eztulak okerrera egin dezake eta umeak arnasestua eta txistu-hotsak eduki ditzake.

Nola diagnostikatzen da bronkiolitisa?

Medikuak susmorik txikien aduenean (eta horretarako sintomei bezala haurren inguruari, adinari, urtaruari, etab. erreparatuko die), auskultazioaz baliatuko da, umearen arnasketa nolakoa den ikusteko, eta oxigenoa neurtuko dio, pulstu-oximetro bat erabiliz.

Normalean, ez da beharrezkoa izaten proba gehiago egitea. Baina behar izanez gero, medikuak kotoizko txotx bat erabil dezake, umearen sudurretik muki-lagin bat hartu eta analizatzeko. Horrek bronkiolitisa eragin duen birus-mota identifikatzen lagunduko d. Kasu larriagoetan bularreko erradiografia bat eskatuko du medikuak, oxigeno-kontzentrazioa baxu dagoela ikusi edota pneumoniaren bat susmatuko balu.

Zein da bronkiolitisaren tratamendua?

Bronkiolitis-kasurik gehienak arinak, etxean tratatzeko modukoak izan ohi dira. Antibiotikoek ez dute laguntzen, gaitzaren jatorria birikoa baita, eta gauza jakina da antibiotikoek bakterioen kontra bai, baina birusen kontra ez dutela ezertarako balio.

Tratamenduaren oinarria sintomak arintzea da. Bronkiolitisak jota dauden umeei likido ugari edan behar dute, trago txikitan, eta maiz samar egunean zehar. Umearen gelan lurrun hotzeko hezegailu bat erabil daiteke, bere arnasbideetako mukiak bigundu, eta eztula eta sudurreko kongestioa arintzeko. Saihestu lurrun edo ur beroko hezegailuak, sor ditzaketen erredurengatik arriskutsuak izan daitezke-eta. Umearen sudurra garbitu eta kongestioa arintzeko, saiatu sudurreko xurgagailua eta sudurreko tantak, jatorduen aurretik eta lotara joan aurretik batez ere.

Botikei dagokienez, beti komeni da medikuaren baimena edukitzea. Haurtxoa oso txikia ez bada, sukarrajaitsi eta molestia karinduko dizkion botikaren bat eman dakioke, prospektuan adierazitako dosiak eta maiztasun-tarteak errespetatuz. Baina sekula ez eman eztularen edo marrantaren kontrako botikarik bularreko haurtxoei ezta ume txikiei ere, baldin eta medikuak ez badizu horretarako baimenik eman.

Benetan haurrek honela ikusten gaituzte, kamara aurpegi aurrean?

Txusma Azkona

Lizarrako Plisti Plastako jolas gunean kokatu behar da argazki hau. Duela aste batzuk egoera ikusi eta dokumentatu genuen. Hasierako irrien ondoren, hausnarketa garaia heldu zen.

Hausnarketa honetan hainbat galdera sortu ziren:

Benetan haurrek honela ikusten gaituzte, kamara aurpegi aurrean?

Lehen galdera honi erantzunez, udan Ibizan izandako pasadizoa gogoratu nuen: ilunabarra hango kala batean, dozenaka pertsona hura ikusten, eta hauetatik oso gutxi momentuaz zuzenean gozatzen: gehienak mugikorra eskuetan grabatzen, ondoren lagunei bidali edota beraien sareetan igotzen, like batzuen bila dirudienez.

Oso ohikoa dugu sareetan haurren argazki eta bideo mordoa ikustea: bere lehen pausuak ematen, putzuan salto egiten, yogurra jan eta muturra zikintzen... egoera irrigarriak, eta bide batez, haurraren egunerokotasun osoa.


Haurren gehiegizko esposizio honen ondorioei buruz ez da ikerketa handirik egin, baina ziur gaude ez duela ondorio onik izan.

Beraz, tristea bada ere, normalizat har dezakegu haurrek gu imitatzea mugikorra (edota edozein objektu) hartu eta bere aurpegi aurrean jartzen badute.

Hausnarketarekin jarraituz, beste galdera sortu zen:

Zenbat ordu ematen dituzte haur txikiak pantaila baten aurrean?

Kalean paseoa eman eta ohikoa dugu haurra silletan mugikorrarekin ikustea: marrazki bizidunak, pailazoak, haur kanta (edo Youtubeko zeinek daki zer!) ... haurra “lasai” egon, eta bide batez, “ikas dezala” pentsatuz.



EEBBetako Dan Siegel neurozientzialari ospetsuak halaxe dio:

“Ez da beharrezkoa haur txikiak gehiegizko estimulazio batez bonbardatzea, garuna hobe garatzen delaren ustetan. Neurobiologiako literaturaren inguruko interpretazio kaxkarra da, non “gehiago hobe dela” uste den. Sinpleki, ez da honela. Guraso eta hezitzaileak lasaitu daitezke haurrei bonbardaketa sensoriala egitea ez baita behar. Bizitzako lehen urteetan ematen diren lotura sinaptikoen gainproduktzioa nahikoa da garuna modu egokian garatu dadin estimulazio sensorial urria eskaintzen duen ingurune egoki baten baitan”.

Gehiegizko estimulazio horri dagokionez, kontu handiz ibili behar dugu, honek irudimena, sormena eta harridura ordezkatzeko baititu.

Auzi berria sortzen zaigu: Gaur egungo haurrak lehen bezalakoak al dira?

Haurrak bai noski, baina ingurua izugarri aldatu dela erraz baieztatu dezakegu. Haurreskola desberdinetan aritzea tokatzen zait eta sarri aipatu didate azken 20 urte hauetan haurren izaera (eta gurasoena) aldatu egin dela. Aldi berean, EEBBetako ikerketa batek haxe dio: Haurreskola eta LHko 3. mailako haurren sormen maila modu esanguratsu batean jaitsi da azken 20 urte hauetan (C. L'Ecuyer 2013).

Gure haurtzaroan ikusten genituen marrazki bizidunekin, Maya erlea esate baterako, gaurko haurrak guztiz aspertuko lirake. Gaur egun ikusten dituzten marrazki bizidun eta pelikulek

duten abiadura oso altua da gure garaikoekin alderatuz. Honek ondorio zuzena du kontzentrazio gaitasunarekin, eta honek gorpil zoroa sortzen du: gutxiago kontzentratu, estimulu altuagoa behar, eta buelta hasierara.

Zalantza berriak sortzen zaizkigu, eta erantzun berriak aurkitu beharko ditugu.

Amaitzeko (nahiz eta beste norbaitenak direnak dirudien), Clint Eastwood-en esaldi hau datorkit burura:

“Jendeak dio planeta hobe utzi beharko genukeela gure seme-alabentzat”. Egia da, baina garrantzitsua da ere seme-alaba hobeak uztea gure planetarentzat”.

Gure munduak plazara

Nora Barroso eta Nekane Martiarena

Gaztetxoek ahotsa dute.

Gaztetxoek iritziak dituzte.

Gaztetxoek badute zer esana eta zer adierazia gai askoren inguruan.

Baina uzten al diegu? Aukerarik, ahotsik ematen al zaie?

Horixe da Haziak egitasmoak Oiartzungo antzerki taldeko gazteei eman diena, ahotsa.

Bideo laburretan jaso ditugu beraiek esketx moduan sortutako antzerkiak.

Oso argi eta ozen adierazten dute zer diren eta zer ez duten izan nahi. Talde direla bai, baina ez direla ardi. Oso argi eta ozen adierazten dute ez dituztela azterketarik nahi! beraien denborak ere balioa duela.

Hona hemen Gure munduak plazara izenburu nagusipean sortutako bi bideoak ikusgai.

Zuen inguruko gaztetxoei bideo hauek erakutsi eta beraiek ere zer esateko duten galdetzeraz gonbidatzen zaituztegu.

Zer egingo dugu gaztetxo hauek, eta gure inguruan ditugunek, modu batera edo bestera adierazten diguten horrekin? beste alde batera begiratuko dugu edo aukerak sortzeko adorea edukiko dugu? Beraientzat baino beraiekin aldaketarako eremuak sortzeko eta aukerak zabaltzeko gai izango al gara?

Helduok mugak sortzen ditugu eta eraikitzen ditugun espazioek, zurruntasunak, antsietatea, komunikaziora eta bizitzarako ezintasunak eraten dituzte. Zailtasun guzti hauek, helduok eta bereziki kate produktiboan gaudenok, erabiltzen ditugun hainbat botereri uko egingo bagenio, desagertzen hasiko lirateke.

Egoera hau iraultzeko gutako bakoitzak zer egin beharko genuke? Eta kolektibo moduan?



Ez dugu galdera hauentzako erantzunik baina jarraituko dugu gaztetxoek ahotsa sormenaren bitartez azaleratzeko bide horretan.

Nora Barroso eta Nekane Martiarena

Esne eta esnekiak haurtzaroan

Maite Garitano

Gai errepikakorra haurtzaroko elikaduraz hitz egitean. Korapilatsua. Iritzi ezberdinak sortzen dituen. Hainbatetan kondentua. Bi muturreko titularrak irakur daitezke elikagai honen inguruan; beharrezkoa edo guztiz kaltegarria.

Ezer azaltzen hasi aurretik, zera esan nahi dizuet: esne eta esnekiak haurtzaroan elikadura osasuntsu eta oso bat izateko EZ dira beharrezkoak. Beste edozein elikagairekin gertatzen den bezala, hauek ere, ez dira nahitaezkoak. Kontsumitu daitezke edo ez. Esne/esnekiek eskaintako nutrienteak beste elikagai batzuekin lor ditzakegu eta.

Beste puntu bat argitzeko: landare jatorriko edariak (soja, oloa, almendra, arroz, ...) ez dira behi esnearen ordezkioak. Biak txuriak izan arren, ekarpen nutrizio guztiz ezberdina dute. Edari hauek 6 hiletik aurrera kontsumitzen hasi gaitezke, baina ez esnearen ordezkio (eta are gutxiago ama esne edo formula esnearen ordezkio). Gainera nutrizio ekarpen (gantz, proteina edo azukre ekarpenean batik bat) ezberdintasun nabaria dago zereal, fruitu lehor, lekale edo fruta jatorriko edaria bada. Kontuan izan.

Noiz hasi behi esne/esnekiekin? Eta zenbat?

6 hilabete arte (= elikadura osagarriarekin hasi arte) elikagai bakarra ama edo formula esnea izango da.

9 hilabetetik aurrera yogur natural edo gatz gabeko gazta fresko pixka bat jan dezakete. Baina horrek ez du esan nahi jatea beharrezkoa denik. Izan ere, oraindik esneki hauek eskaintzen dizkien nutrienteak eskuragarri dute ama edo formula esnean, kopuru eta bioerabilgarritasun altuagoarekin. Jan dezaketen kantitatea ("pixka bat") ez denez zehaztua izan (ikerketa zientifiko faltagatik kontsumoak izan ditzakeen onuran) ez da argi geratzen. Gainera haurtzaroko anemia (gainera garai honetan burdin beharrak biziki handitzen dira) eta gorputz gehiegizko gantz konposizioa garai honetan egindako egokitu gabeko behi esnearen kontsumo altuari lotzen zaio. Beraz, oraindik ez daukagu zertan kontsumoa indartu.



12 hiletik aurrera behi esnea eskaintzen hasi gaitezke (esnekiez gain). Baina lehenago ez. Hala ere, ama esnea hartzen jarraitzen duen haur batek (4-5 toma/egun) ez dauka zertan kontsumitu Kaltzio ekarpenagatik behintzat (ama esnearekin beharrak guztiz asetuak izango ditu).

2 urtetik aurrera egunean 2 esne/esneki ano kontsumitzea gomendatzen da (anoak honela ulertzen dira: 200ml esne, 1 yogur natural, 50-60g gazta ondua edo 70-80g gazta fresko).

Esne/esneki osoak gomendatzen dira adin orotan. Egunean gomendatutako ano kopurua baino gehiago kontsumitzen bada, aurrena hau gutxitzea gomendatzen da. Kopurua jaistea lortzen ezpada, gomendiotik pasa garen kopurua gaingabetu formatuan kontsumitzea aholkatzen da.

Esne kontsumoan **kulturaren** eragina sakona da gure herrialdean. Sozialki duen irudiak batzuetan beharrezkoa dela pentsarazten digu. Kaltzio ekarpen altua izateagatik haurraren hazkuntza egokirako nahitaezko elikagaiak izango balira bezala.

Industriaren eraginak ere zer esana dauka hauen ospean industriak berak elikagai gomendioak aztertzen dituzten erakundeei eragindako presioa itzela da eta.

Kontuan izan esne/esnekiak beti izan direla ekonomikoki elikagai merkeak, errezlordatekezenak eta organoleptikoki atseginak. Halaber, merkatuan eskaintza izugarria da. Korridore luzeak okupatzen

dituzte merkatu zentrotan. Hozkailu erraldoiak. Milaka formatutan aurkeztuak (koloreak, errezetak, poteak, botilak, brikak, tamainak, usainak, zaporeak, zatiekin, zati gabeak, nutrientetan aberastuak, desnatatuak, izoztuak, freskoak, mono dosiak, kontsumitzeko prest dauden ontziak, opariekin, marrazkiekin, ...). Beldurgarria da. Izan ere, hauen erdia baino gehiago ez genituzke kontsumitu beharko (edo behintzat oso noizbehinka izan beharko litzake) duten azukre, gantz, gatz eta edulkoratzaile ekarpen altua dela eta. Beldurgarriena ordea, hauetako azko haurrentzat zuzendutako produktuak direla da.

EnKid ikerketaren arabera, Espainia mailan haurretan (eta nagusiotan) elikagai honen kontsumoa behar baino altuagoa da. Hau da, adinerako gomendatua baino gehiago. Kontsumo altu hau, batez ere esneki formatuan egin ohi da gaur egun esan dugun merkatuetako eskaintza altua dela eta.

Orokorrean esne/esnekien kaltzio ekarpena neurritz kanpo baloratu da. Nahiz eta nutriente hau beharrezkoa den hazkuntza egoki baterako, esne/esneki kontsumo altuegiak ere baditu bere desabantailak.

Datuak mahai gainean jarrita, argi geratu dadila ez dela juizio bila hasteko informazioa. Gida bezala erabiltzeko soilik edo kontzientzia hartzen laguntzeko. Badakit ahal duzuen hobekien egiten duzuela. Zoragarri zabiltzate! hurrengo tartetxo batean ikusten gara.

Eraldaketa azkarrak eta gazteen iritzi kritikoa

Mikel Egibar

Baso baten erdian errekek freskotasuna ematen duen bezala, gure jendartean gazteriak munduaren beste ikuskera berria emanez, berez eraldaketarako aukera, indarra eta kemena eskaintzen du. Euskal Herrian jendarte tradizional batean bizi gara. Iraganari garrantzi handia ematen diogu, eta horren ondorioz gure kulturaren baloreen transmisioa mendez mende bermatzea lortu dugu. Askorentzat harrigarria da gure bezalako herri txikiak bizirik irautea, eta horren arrazoa, seguru aski, tradizioaren transmisioari betidanik eman zaion garrantzia izan da. Baina tradizioa eta eraldaketa ez dira inoiz oso ezkongai onak izan, eta bien arteko gatazka iraunkorra, nahiz eta batzuetan traumatikoa izan, azkenean guztiak aberastu gaituen bilakaera izan da.

Gazte bat ez da informazio hartzailea hutsa. Askotan erabiltzen den ureztatzen den jardinaren metafora erabiliz, gazteria errealitatearekin bat ez datorren irudiarekin parekatu nahi da. Gazteek, informazioa barneratu ondoren, informazio hori eraldatzeko joera izaten dute. Esaldi motz eta sinple horretatik pizten edo elikatzen da gatazka iraunkorra, gure jendartea eta kultura aurrera egiteko hain garrantzitsua den mekanismoa hain zuzen ere.

Antonio Zabalak (1995) honako hau zioen: “irakasleek gazteen gaitasunaz sinesteaz gain, bien arteko konfiantza sustatu behar dute”. Izan ere, gatazka iraunkorrek bi norabide har ditzake: mesfidantzaren edo konfiantzaren bideak. Lehenengo kasuan egoera negatibo bezain traumatikoa izango da eta nekez lortuko dugu esperientzia pedagogiko emankorra. Bigarren kasuan, aldiz, konplizitatea landuz, gatazka gainditzeko eta oreka berriak lortzeko ahaleginak egingo dira eta eraldaketari bere alea uzteko aukera eskainiko zaio.

Prozesu hauek, ikaskuntzaren bilakaera neurobiologikoan oinarritzen direnez, bere denbora behar dute, barneratzen diren ezagutza eta trebetasun berriak aurretik dauden egitura kognitiboan txertatuz, ondoren eraldaketarako aukera abiatuz (Anna Carballo eta Marta Portero, 2018). Baina eraldaketa hori ez da beti gauzatzen. Behar den



denbora erabiltzen ez bada egitura kognitiboa aberasten joango da zalantzarik gabe, baina haratago joan ezinik, eraldaketari bidea moztuko zaio eta kultura erreproduktibo eta errepikakor bat sustatuko da. Eraldaketak, beraz, eraginkorra izateko denbora eskatzen du.

Bizimoduaren erritmoa asko azkartu denaren lekuko gara guztiak. Ez da soilik pertzepzioa; gure azalean, egunerotasunean, inguruko harremanetan bizitzen dugun errealitatea pairatzen duguna baizik. Dena azkartu da, gero eta gutxiago gara denboraren jabe, denboraren subiranotasuna galtzen ari gara.

Neurri gabeko azkartasun honetan eraldaketa azkarrak ematen ari dira. Horra hor azpimarratu nahi dugun kontzeptua: Eraldaketa azkarrak. Eraldaketa azkar hauen ezaugarri nagusian hiru izan daitezke: eraldaketaren aurrean ikusle hutsa izatea; eraldaketaren oinarrian egon beharko lukeen gatazka iraunkorra neutralizatzea; jendarte (eta gazteria) otzana sortzea.

Informazio itsaso batean itotzen ari gara. Informazio teknologierriek itomen egoera hori areagotu besterik ez dute egin. Ez dugu denbora hartzen teknologierri hauek gure egitura kognitiboan txertatzeko eta egin beharreko liseriketa intelektuala egin ezean, teknologierriak gure egitura kognitiboaren jabe bihurtuko dira.

Eraldaketa azkarrek shock egoera sortzen dute. Komunikabideetan COVID-19 izurriterako sortutako eskema bera Tximino Baztangarako erabiltzen ari da eskema bera. Zer esanik ez Ukrainako gerraren

kasua: irudiak bere gordintasun osoz gure etxeko egongelaraino iristearekin batera, oso larria den egoera baten inguruan iritzi eraikia barneratzen da, irudi horiek sortzen duten inpaktuaren kontrako iritzirik gabe gerraren aldeko jarrera nagusituz. Jendarte otzanaren aurkako antidoto sendoena iritzi kritikoa piztea da eta hori lortzeko gazteriari aukera eskaini behar diogu.

Eraldaketa azkarrek ez dute luzera begirako eraldaketak garatzeko aukerarik ematen eta, azkenean, erabakitzeko ahalmena murrizten doa. Teknologi berriak funtzio neutralizatzaile horretan tresna eraginkorrak dira. Ondo erabiliz oso bide baliotsua direla? Ez dago inolako zalantzarik, baina denbora da kontua, denboraren jabe izatera itzuli behar gara. Eraldatzailea izateko gure gazteei aukera eta konfiantza eskaini behar diegu, eta bide horretan inoiz baino gehiago behar dute laguntza. Gazteak gatazkak sortzeko iturburu izan behar dira eta gatazka horiek konfiantzazko giro eta eremuan kokatzea lortzen badugu tradizioan oinarritzen den gure kultura hau aberastu eta indartu egingo da.

Identitate ez-bitarra nerabezaroan

Laura Bueno

“Posmodernoak garela eta ez garela, duela gutxi asmatu den identitate bat dela, betidanik izan garela neskak edo mutilak, sailkatzeko beharra daukagula eta blablablabla...”

...Bizitzak bat-batean beste identitate batzuk jartzen dizkizu parean. Guztia erraz metamorfoseatzen da orain eta identitate zein norberak bere burua bizitzeko duen modua adierazteko zein sentitzeko geroz eta aukera gehiago daude...

...Zer esan nerabezaroan... gure gorputzak zaurgarriagoak eta epaituak izateko arrisku handiagoa duten garai horretan. Institutoan sailkatzea kondenatzen gaituztenean, komun guztietan, familian, koadrilan, arropa dendetan zein bizitzako momentu gehienetan. Nerabezaroan, askotan, zurruntasunera mugatuta gaude; zer izan nahi dugun jakin behar dugu zalantza erakutsi gabe, bide bat edo bestea hartzen dugun eta abar. Baina, batez ere neska edo mutila garela erakutsi behar dugula dirudi... Horretarako, genero adierazpen zehatzak egin behar ditugularik: A ala B, B ala A. Hortik irteten diren beste genero-adierazpen zein identiteak desioaren orientazioarekin lotzen dira bakarrik: lesbiana, gay edota bisexuala izatearekin; edota trans* identitateekin asko jota.

Feminismo zein Transfeminismoetan asko hitz egiten da metamorfoseatzen duten identitate helduen inguruan. Baina, zer gertatzen da identitate ez-bitarrekin nerabezaroan? Zilegitasuna daukate? Dagokien seriotasunarekin hartzen dira? Kontutan hartzen ditugu sistema bitarretik at geratzen diren nerabeak; hau da, neskak edo mutilak ez direnak?

Badaezpada, hemen uzten dizkizuegu pertsona ez-bitarrei esan behar ez zaizkien hainbat kontu:

1. Zer zara neska edo mutila? Galdera hau oso erasokorra izan daiteke bere identitatean trantsizio bat ematen edo ez neska ez mutil generoarekin identifikatu nahi ez duen nerabe batentzat. Zertarako behar dugu erantzuna? Sailkatzeko soilik?.



2. Genero markak dituzten esamoldeak erabiltzea. Hezitzailerak, lagun zein guraso lanetan horrelako hitzak erabiltzen ditugu askotan: guapo/a, señorita/o, neska-mutilak. Saiatu beste aukera batzuk bilatzen: zuek, talde, ekipo, politxok, maitiak, pitxines eta abar.

3. Pertsona ez-bitar bat izatea momentu puntual bateko zerbait dela pentsatzea. Ez-bitarra izatea, identitateari egiten dio erreferentzia, hau da; beste genero identitate bat gehiago da. Ez da: “pasatuko den zerbait”.

4. Identitate ez-bitar bezala identifikatzen dela jakitean, galdera hauek formulatzea: “Lehen zer zinen neska/mutila eta orain ezer?”. “Orduan zer zara, txakurra / helikopteroa?”.

5. Pertsonen izenak genero konkretu batean sailkatzea. Izenagatik soilik, zuzenean neska edo mutil bezala sailkatzea, beste aukera batzuk egon daitezkeela kontutan hartu gabe.

6. Norbere burua sistema bitarrean sailkatzeko derrigortasuna iraunaraztea. Ikasgelan, inkesta zein galdetegietan, aldageletan, komunetan, kiroleetan, arropa erosterakoan, zein bizitzako aspektu ia guztietan neska edo mutil bezala sailkatzearen beharra; ez delako beste aukerentzat lekurik sortzen ez zilegitasunez tratatzen.

7. Ez-bitartasunari garrantzia kendu eta pertsona ez-bitar bat ematen ez duela esatea. Horrelako esaldiak ekidin behar dira: “Ez duzu pertsona ez-bitar bat ematen, nik neska/mutila zinela

pentsatzen nuen”. Genero bateko edo besteko itxura izan arren, pertsona ez bitar bat da, berak hala esan badu. Pertsona ez-bitarra izateko modu asko daude.

8. Trantsizioa noiz hasi zuen galdetzea. “Noiz erabaki zenuen aldaketa egitea?” Ez da aldaketa, sistema bitar honek errepresentatzen ez nauela adierazteko beharra baizik.

9. Genitalen inguruko galderak egitea. “Zer daukazu hankartean?” Galdera hau egingo zenioke pertsona zis bati? Hau da, bere sexua eta generoa bat datozen pertsona bati? Erantzuna ezezkoa bada, pertsona ez-bitar bati ere, ez zenioke egin beharko.

DESIKASTEAN IKASIZ, MILA MILOI ESKER
ALAITZ ETA P-ri EGUNERO-EGUNERO
DESIKASIZ, SORTZEN GAITUZUELAKO ETA
GUZTI HAU IDAZTERAKOAN EMANDAKO
BEROAGATIK!

Hiru urtez 200 euro: Familia Politikak eta Erronka Demografikoak

Irati Aizpurua

Iragan ekainaren 21ean, aste batzuk lehenago Legebiltzarrean adierazitako neurriak onartu zituen Eusko Jaurlaritzak “2030erako Erronka Demografikorako Euskal Estrategia” deritzon planaren barruan.

Estrategia horrek 36 neurri jasotzen ditu, suspertze demografikoa helburu hartuta. Izan ere, jaiotza-tasak beheranzko joera du azken urteetan, gazteek emantzipaziorako arazoak dituzte (lehen aldiz beste etxebizitza batera mugitzeko adinak bere horretan dirau) eta zahartzaroa luzatzeaz gain, piramide demografikoaren goialdea zabalduz doa.

Datuek hitz egiten dute, eta Europar Batasunean balantze demografiko okerrean duten herrialdeen artean kokatzen gaituzte. Egoera irauli nahian, erronka demografikoari aurre egiteko Estrategia honek bost ardatz ditu: gazteen emantzipazioa; familia, kontziliazioa eta haurren hazkuntza; zahartze osasungarria; migrazioa eta landa-balioa handitzea.

Esan bezala, datuek biztanleriaren egoeraren argazkia egiten laguntzen digute eta Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2022ko maiatzaren 16an argitaratu zuen erronka demografikoari buruzko azterlan batean, ondorengo ondorioak jaso ziren (Euskal Autonomia Erkidegoko datuak):

- Emantzipatzeko batez besteko adin egokiena 25 urtekoa dela diote gazteek. Errealitatean, baina, batez besteko emantzipazio-adina 30,2 urtekoa da. Beraz, nahi baina bost urte beranduago lortzen dute gazteek autonomia hori.
- Seme alabak izatearen inguruan, 2,2 haur izan nahiko lituzkete inkesta erantzun zutenek (batez bestekoa). Horien %52k dio izan nahiko lituzkeen baino seme-alaba gutxiago izan dituela. Hortaz, asmoa eta gogoa izan arren, arrazoi ezberdinak medio, familia askok ezin izan du nahi adina seme-alaba izan.



- Euskadiko jaiotza-tasa 1,28 seme-alabakoa da emakume bakoitzeko, batez-bestekoa kontuan izanda (Europar Batasuneko 1,53an zegoen 2019an).
- Lehen seme-alaba izateko adin egokienari dagokionez, 28 urteetan kokatzen da inkesta erantzun dutenen batez bestekoa. Hala ere, Euskadiko emakumeek lehen semea edo alaba izateko batez besteko adina 32,6 da (Europar Batasuneko batez bestekoa 29,3 inguruan dagoen bitartean). Ondorioz, haurra izateko asmoa dagoenetik, familian benetan kide bat gehiago izatera pasa arte gutxienez 4 urte igarotzen dira.
- Inkesta erantzun duten herritarrek ondorengo neurri hauen egokitasuna azpimarratu dute egoera hobetzeko: batetik, enplegua sortzea eta berau kalitatezkoa izatea; eta, bestetik, familientzat laguntzak sustatzea, besteak beste, ekonomikoak.

2030 Erronka Demografikorako Euskal Estrategiak jasotako ardatz horietatik, Familia Politikari lotutakoei helduko diegu gaurkoan. Eusko Jaurlaritzaren esanetan “desoreka demografikoak eragin zuzena du belaunaldien arteko elkartasun-politiketan eta gizarte-zerbitzu eta -politiketan” eta, horrek, “lan-merkatuko eskulana ordezkatzeko gero eta defizit handiagoa eragiten du”. Estrategiaren helburuen artean zera aipatzen da: “baldintzak sortzea pertsonen nahi beste seme-alaba izan ditzaten nahi dutenean”.

“Suspertze demografikoaren aldeko” 36 neurri horietako batzuk oihartzun handia izan dute komunikabide ezberdinetan: hilean 200 euroko familientzako dirulaguntza eta 0-2 urte bitarteko Haurreskolen doakotasunak, besteak beste.

Seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntza ekonomikoari dagokionez, haurrak 3 urte bete arte hilero diru-kopuru bat ematean datza, eta, 100.000 eurotik beherako familia-errenta duten etxe guztietara kopuruberberairitsikolitzateke: 200 euro. Orain Eusko Jaurlaritzak badu ere seme-alabengatik dirulaguntza zuzen bat, baina laguntza hori mugatuagoa da eta familia-errentaren arabera ematen da (diru sarrera gehiago, kopuru txikiagoa). Beraz, onartu berri den neurri horrek egungo sisteman aldaketak dakartza. Batetik, lehen haurra izaten denetik 7.200 euroraino iritsiko litzateke diru-laguntza (200 euro hiru urtez), egungo kopuruak nabarmen igoz. Baina, bestetik, egoera sozioekonomiko ezberdina duten familietara dirulaguntza berbera bideratzeak progresibotasun printzipioaren aplikazioaren inguruko eztabaida mahai gainean jartzera behartzen gaitu (honen inguruan esan behar da, hala ere, zaurgarritasun egoeran dauden familientzat beste dirulaguntza batzuk bateragarriak egingo direla).

Aldaketak errazago ikusteko, egungo sistemaren eta onartutako berriaren arteko aldeak azaltzea onena:

Seme-alabak kargura dituzten familientzako dirulaguntzak

(Eusko Jaurlaritza)

Egungo sistema:

- Noiz ematen da dirulaguntza: haurraren jaiotza edo adopzioagatik (eta beste legezko egoeratan).
- Zenbat ordainketa egiten dira:
 - Lehen haurragatik: ordainketa bakarra (behin).
 - Bigarren haurragatik: hiru ordainketa.
 - Hirugarren edo hurrengoengatik: zazpi ordainketa.
- Dirulaguntzaren zenbatekoa: familia-errentaren arabera da, beheko eskema jarraituz.

Familia errenta	Seme edo alabagatik laguntzaren zenbatekoa	Desgaitasuna duen edo mendekotasun-egoera dagoen seme edo alabarengatik laguntzaren zenbatekoa
20.000 € edo gutxiago	900 €	1.800 €
20.000 eurotik 30.000 eurora bitartean	500 €	1.000 €
30.000 € baino gehiago	400 €	800 €

Onartutako sistema berriaren arabera:

- Ordainketa modua: hilabetea kontuan hartzen duen ordainketa-sistema.
- Zenbat ordainketa egiten dira: haurrak 3 urte bete arte.
- Dirulaguntzaren zenbatekoa: hilean 200 euro. Familia-errenta 100.000tik beherakoa denean diru-zenbateko berbera izango dela adierazi da.

Laburbilduz, orain, 25.000 euroko familia-errenta ("familia-errenta estandarizatu" da erabiltzen den formula) duen etxera 500 euroko ordainketa bakarra iristen da lehen haurra jaiotzen denean (baita adopzio edo legez jasotako beste egoeratan ere). Sistema berriarekin, 200 euro jasoko luke familiak hilean, haurrak hiru urte bete arte (guztira 7.200 euro, alegia). Eta, aldaketarik ezean, 60.000 euroko errenta duen familiara ere zenbateko berbera helduko litzateke (egungo sistemarekin 400€ko ordainketa bakarra jasotzen du).

Familientzako dirulaguntza sistema zuzen hauek haurra duten familia guztietara heltzen dira diru-transferentzia baten bidez. Gakoa, baina, haurrak izateko adina aurreratzen edo nahi beste haur izaten laguntzerako orduan zein eragin duten jakitea litzateke, herritarrek euren nahiak errealitate egin ahal izateko (gorago ikusi den bezala, nahi baina lau urte beranduago eta amestu baina haur bat gutxiago izaten dugu egun). Suspertze demografikorako neurri hauek, gainera, osatu egin behar dira lan-eremuan guraso izateko bidean daudenek topatzen dituzten oztopoak murriztu edo ezabatzeko bestelako neurriekin (aldi baterako lan-kontratuak, lanaldi partzialekoak, prekarietatea, amatasunaren penalizazioa, kontziliazio-eskubideak egikaritzeagatik diskriminazio egoerak, etab.).

Irakurri dudanez, enpresa batzuetan lanean sartzerakoan, emakumeei euren obuluak izozteko aukera (aukera, edo...) ematen zaie, enpresak prozesu horren kostuak ordaintzen dituelarik. Helburua, euren amatasun-adina atzeratzea da. Baina, lasai, obulu "gazteekin" ama izango direla hitz ematen zaie eta. Beste egun baterako utziko dugu kontu hau.

Haurrak, ultraprozesa-tuak eta errua

Mireia Centeno

Izenburuan aipatzen den bezala, gaurkoan hiru aldagaiez hitz egitera nator. Hiru aldagai hauek bakarka ezaugarri asko dituzte, eta elkartzen ditugunean hauek bat egin eta ondorio ezberdinak sortzen dira.

Neurozientzia eta garapenaren psikologiari ezker, badakigu, garunaren kortex prefrontalaren garapena oso motela dela. Kortex prefrontalean, funtzio exekutiboak aurkitzen dira. Zer dira funtzio exekutiboak? Pertsonari, antolatze, enpatizatze, inpultsoak kontrolatzeko... gaitasuna ematen dioten funtzioak dira. Esan bezala, hauen garapena nahiko motela da eta guztiz garatzeko 26 urte inguru behar dute. Beraz, 4-5 urteko haur batek, bere inpultsoak kontrolatzeko gaitasuna oso mugatua duela esan dezakegu. Hau asko konplikatzen da gainera, haurrari aurrean jartzen diogun estimulua oso erakargarria bada.

Ultraprozesatuak oso estimulu indartsua dira. Azukre edo gatz asko dute eta normalean osagai hauek gure gorputzean eragin handia izaten dute, epe motzera energia asko sortzen dutelako batez ere. Horregatik oso erakargarriak egiten zaizkigu. Esan dezakegu, ultraprozesatuak estimulu baldintzatu bat direla, hau da, behar duguna baino gatz eta azukre gehiago dute, eta esan bezala honek gure organismoan eragiten du modu ezberdinetara, produktu hauek erakargarriago bihurtuz. Beraz argi geratzen da, haurrak eta ultraprozesatuak nahiko konbinazio konplikatuak direla, bien arteko erlazioa kudeatzeak zailtasun handiak sortzen dizkigulako egunerokotasunean.

Produktu hauek, gure gizartean oso presente ditugu, elikagai industriari diru asko irabazten laguntzen dietelako batez ere. Gainera askotan merkeak dira, oso eskura daude, erosoak dira kontsumo azkarrerako eta gainera etengabe eta plataforma ezberdin askotan iragarkiak azaltzen zaizkigu.

Ikusi ditugu beraz aipatutako bi aldagai: Haurrak eta ultraprozesatuak. Orain ERRUA sartzen da guzti honetan.



Zer ari da gertatzen gure gizartean ultraprozesatuen kontsumoari dagokionez? Esan bezala, orokorrean gehiegi kontsumitzen dira eta honek, alarma batzuk piztea eragin du, kasu batzuetan produktu hauen kontsumoa modu ezberdinetan zigortzerarte. Azkenaldian, produktu hauen kontsumoa kritikatzeko da, galazi egiten dira osasunaren izenean, eta hauen kontsumoa etengabe erdigunean jartzen da. Noski, honek guztiak, gatazka izugarria sortu du.

Ultraprozesatuak hor daude, gustatzen zaizkigu eta kontsumitzen ditugu, eta etengabe parean jartzen dizkigute. Baina era berean badakigu ez direla osasuntsuak, eta mezu asko jasotzen ditugu gure egunerokotasunean hauek gure bizitzatik guztiz ezabatze. Horregatik ultraprozesatuak nahi ditugunean, desiratzen ditugunean, erosten ditugunean, edo baimentzen ditugunean, maiz, errua azaltzen da.

Eta erru sentimendu hau haurrenganaino heltzen da. Horregatik, osasuntsua iruditzen ez zaigun zerbait erosteko eskatu eta konbentzitzen gaituztenean, hau osasuntsua ez dela adierazten diegu, amonak txokolatea eskaintzen dien bakoitzean, hau osasuntsua ez dela adierazten diegu, gehiegi ez jateko, atzo nahikoa jan zutela. Pizza afaltzen dugun bakoitzean, gehiegi ez jateko gogorarazten dugu, eta hurrengo egunean entsalada jan behako dugula adierazten diegu. Eta gailera kaxatik beste bat hartzera doazen bakoitzean, begiradarekin epaitzen ditugu. Eta horrela, haurrek, ultraprozesatuak jaterakoan errua sentitzen dute maiz.

Ba dakigu aipatu dugun bezala industriak gauzak asko

konplikatzen dituela: iragarkiak, produktu hauen gehiezigizko presentzia edonon,... Eta orduan, zer egin dezakegu guk, guraso bezala horrelako egoeratan? Ba al dago zerbait gure esku guzti honetan? Eta garrantzitsuena: Nola ezabatu errua ekuaziotik?

Produktu hauen presentzia kudeatzea izango litzake eraginkorrena.

- Iragarkiak ezabatu: hurrei zuzenduriko iragarki hauek telebistako kateetan edo youtubeko eduki batzuetan egoten dira. Erabili iragarkirik gabeko plataformak.
- Ez eduki horrelako produktuak egunerokotasunean eskura. Ikusten ez baditugu gutxiago kontsumitzen ditugu. Gogoratu baldintzatutako estimulu bat direla eta parean izanez gero oso zaila dela hauei ezetz esatea. Aldiz ikusten ez baditugu, hauek kontsumitzeko gogoia ere gutxiagotan piztuko zaigu.
- Saiatu egunerokotasuneko kontsumotik kentzen: adibidez ez erabili meriendarako edo gosaltzeko.
- Beharrezkoa ikusten baduzu, hurrei askotan horrelako produktuan eskaintzen dieten pertsonekin hitz egin eta beste ideia batzuk eskaini. Gogoratu askotan aiton amonek ez dituela guk dugun informazioa eta ezjakintasunetik habiatzen direla.

Baina era berean kontuz produktu hauen tabuarekin.

- Zuen egunerokotasunean egon daitezke baina kantitate txikietan. Adibidez “lacasito” bote osoa eskaini beharrean, egunean 3 jateagatik ez da ezer gertatzen. Edo gusanito poltsa txikiak maizago eskaini poltsa handiak eskaini beharrean.
- Produktu hauek bertsio osasuntsua sukaldatzen ikasi. Gaur egun ez zaizkigu ideiak falta sare sozialetan.
- Disfrutatu ultraprozesatuez tokatzen denean. Noski, batzuetan askotan tokatzen da: Gabonak , urtebetetzeak baina tokatzen bada, saiatu ez epaitzen.
- Saiatu zuk kontsumitzen dituzuenean ere epaiketarik ez egiten, disfrutatu hauen kontsumoaz.
- Saiatu ez erabiltzen sari bezala. Eta saiatu ez galarazten zigor bezala.
- Etxeko erosketa zerrendan ere horrelako produktuan egotea aukera bat da, esan bezala beti ere egunerokotasunerako ez badira.

Erditze ahaztezinak

June Fernandez

Berbiktimizazioa ematen da instituzioek indarkeria matxisten biktimen hitza zalantzan jartzen dutenean, haien ardura onartzeko gai ez direnean eta enpatia izpirik adierazten ez dutenean. Hala jokatu du Osakidetzak Nahia Alkortaren auzian.


Nazio Batuen Erakundearen (NBE) Diskriminazioa Desagerrarazteko Batzordeak ebatzi du Alkorta indarkeria obstetrikoren biktima izan dela, eta Espainiako Estatuari agindu dio erreparazioa eman diezaiola. Batzorde honek frogatutzat jo ditu Donostiako Ospitalean jaso zituen hurrengo praktika desagokiak:

- Haurdunaldia eragin zioten baimenik gabe.
- Baginako gehiegizko ukimenak eman zizkioten.
- Ez zioten jaten utzi.
- Beharrezkoa ez zen zesarea batean bukatu zuen prozesua, erditzearen fisiologia ez errespetatzeagatik.
- Ebakuntzan besoak lotu zioten.
- Ez zioten senarrari sartzen utzi.
- Umeaz bananduta izan zuten hurrengo orduetan.
- Edoskitze artifiziale inposatu zioten.

Biolentzia obstetrikoa indarkeria matxista da aginte eta estereotipo sexistetan oinarritzen delako. Hala, arreta obstetrikotan jarrera pasiboa espero da emakumeongandik; gure gorputzetan egingo dituzten eskuhartzeak onartu behar ditugu, gure eskubideen urraketak onartu behar ditugu.

Horrez gain, paternalismoz edota misoginiak blaitutako iruzkinak agertzen dira beti testigantzetan. Zoratuta zegoela esan zioten Nahiari senarra zesareara sartzeko eskatu zuenean. Ondoren, umea jaio zenean aitarekin eramateko eskatu zuenean, “Tranquila, chavalilla” erantzun zioten.

Orain dela bi urte, NBEak Galiziako beste kasu bategatik ere zigortu zuen Espainia. Erditze horretan, emaginak emakumearen errebeldia zigortu zuen hurrengo hitzekin: “No le deis a la niña, que se ha portado mal”.



Halako prozesuetan, justizia patriarkalaren aurpegi bortitzena agertzen da sententzietan; esaterako, erditzean emakumeek adostasuna emateko duten gaitasuna eta eskubidea zalantzan jartzen dute epaileek. CEDAW, NBEko batzordearen arabera, emakumeen salaketa zalantzan jartzen duten sententziak estereotipo sexista argi batean oinarritzen dira: “Emakumeak histerikoak, zoroak, esajeratuak eta kexatiak direla”.

Alkorta berak BERRIAN adierazi duenez, “sistema heteropatriarkala dugu osasun sisteman eta justizian. Emakumeek enbarazu egiten diogu sistemari, eta horregatik zigortzen gaitu”. Kontrol patriarkala gauzatzeko modu gisa definitu du indarkeria obstetrikoa Eva Margarita Garcia antropologoak bere doktoretza tesian: “Profesionalak legitimatzen ditu erdi-urten dauden emakumeen borondatea makurrarazteko, modu sinboliko, psikologiko eta fisikoan”. Ikertzailearen esanetan, emakumeen ahalduak deserosotasuna sortzen du, protokoloak zalantzan jartzen dituelako eta “botere biomedikoaren zimenduak kolokan jartzen dituelako”.

Indarkeria obstetrikoa jasan duten emakumeen memorian iltzatuta geratzen dira ez soilik eszenak, baizik eta bereziki mingarriak egin zitzaizkien detaile txikiak. NBEaren zigorra argitaratu ondoren Eusko Jaurlaritzak zabaldu duen prentsa oharrean indarkeria obstetrikoa kakotxen artean agertzen da, eta Nahiari emandako arreta defendatzen da; hau da, nazioarteko erakundearen ebazpenaren eta biktimaren hitzaren aurka egiten du instituzioak. Horrez gain, esaldi jakin bat iltzatuta geratu zait niri: egunero lan egiten dutela, gertuko eta kalitatezko

arreta emateko, erditzea “esperientzia positiboa eta ahaztezina izan dadin”.

Ez daukate lotsarik, kontuan izanda Gurutzetako emaginek barkamena eskatu dietela emakumeei, baliabide falta salatzeke karta batean. Ez daukate lotsarik, kontuan izanda Nahia Alkortari erditze osteko estres nahasmendua diagnostikatu ziotela. Semearen bizitzako lehenengo hiru hilabeteak memoriatik ezabatu zaizkion. Egun oraindik zauri psikologikoa zabalik du, besteak beste, hamar urteko borroka juridikoan topatu duen berbiktimizazioaren ondorioz. Osakidetzaarena azken tanta izan da. Dударik gabe, ahaztezinak dira indarkeriazko erditzeak.

Biktima hitza erabili dut, baina egokiagoa da biziraule. Indarkeria obstetrikok, gainerako biolentzia matxistetan nola, ez dira gutxi traumari eta bidegabekeriari modu kolektiboan aurre egiteko aktibismoan murgildu diren emakumeak. Hala sortu zen El Parto es Nuestro elkarte, eta indar horrek mugituta jarri du martxan Nahiak Sabeletik Mundura bere proiektua, Euskal Herrian erreferentziazkoa duguna. Gogoan dut bikote esparruko indarkeria matxistaren biziraule batek esan zidana: “Sistemari izugarri txokatzen dio biktima izatetik aktibista izatera pasatzeak, baina gehiago izaten hasten garenean, tortillak buelta emango du”.

Esperimentatzen edo jolasten ari da umea?


Itziar Arregi Landa

Esperimentazioa eta jolasa ez dira gauza bera. Bien arteko muga ez da argi geratzen une askotan eta bi kontzeptuak nahastu egiten ditugu, sinonimotzat hartuz. Baina umeari ekarpen ezberdina egiten diote, bakoitzak bere onurak ditu eta gaurkoan bien arteko diferentziaz hitz egingo dugu.

Esperimentazioa sarri jolas motatzat hartu izan da, atzerrian objektu-jolasa bezala ere izendatua izan da (“object play”), eta hau da hain zuzen ere animalietan ikusten den jolas mota. Objektu berri bat animalari eman ezker, adibidez katuari hari mataza bat, horrekiko jolasa esperimentazioa izaten da. Umeengan ere hau da lehenengo azaltzen den aktibitatea: haurrak hilabeteak dituenean azaltzen da, objektua eskuan hartu, giratu, dastatu, astindu... egiten du, eta hortik informazio asko ateratzen du errealitatea ezaugarritzen joan ahal izateko, mundua ezagutzeko. Esperimentazioak azken batean “nolakoa da objektu hau?” galderari erantzuten dio.

Jolasari dagokionean, jende askorentzat esperimentazioarekin bat egiten duen arren, aditu batzuk diferentzia markatu egiten dute: “nolakoa da?” galderari erantzun ordez, “zertarako erabil dezaket objektu hau?” galderari erantzungo lioke jolasak (Lillard, Lerner, Hopkins, Dore, Smith & Palmquist, 2013). Umeari aktibitate kognitibo ezberdin bat eskatzen dio, eta ekarpen ezberdin bat egiten dio (Pellegrini, 2009). Jolasarekin mundua ezaugarritzeaz gain, sinbolizazioan eta eskema mentaletan pausu bat haratago egiten du umeak. Jolas sinbolikoa animaliangen ez da ikusi, konplexuagoa da. Denboran esperimentazioa baino beranduago azaltzen da. Jolasa azaltzeak ez du esan nahi esperimentazioa desagertzen denik, biak batera ere gerta baitaitezke, eta bietatik behar du umeak mundua ezagutu eta ulertu ahal izateko.

Esan bezala, biak dira beharrezkoak, eta umea batetik bestera edozein unetan pasatzen da. Eskaintzen zaion materialaren arabera ere, lehengo bata edo bestea sortuko da. Adinean aurrera ere aldatzen joaten da. Materiala berria denean, umeak lehenengo ezaugarritu egiten du, eta behin hori



eginda, ea material horrekin berak zer egin dezaken pentsatzen hasten da, aplikazioa irudimenez eginaz, mundu sinbolikoan sartuz jolasaren bidez. Materiala ezaguna bada, ondo ezaugarrituta baldin badago, zuzenean jolasera sartuko da umea. Eskaintzen zaion materialaren erabilera umearen adin eta beharren arabera desberdina izango da.

Eta orain dator galdera interesgarria: helduok orduan zer da eskaini dezakeguna? Nolako materiala? Azkenaldian badirudi orokorrean gure eskaintza fintzen ari garela: plastikozko jostailu oso definituak gutxitzen, material natural, birziklatu edo irekiagoa eskaintzen... zentzu horretan esan daiteke bagoazela gure bidea egiten. Udak ere aukera emango digu natura bera bihurtzen esperimentazio gai, jolas gai, munduak bere eskaintza modu zuzenagoan ematen die umei udan. Heldu eta bidelagun bezala, egin dezakegun onena berriro ere beren esperimentazio eta jolasa behatzea da, eta ez material jakin baten aldeko hautua egitea. Umeak berak esango digu esperimentatu edo jolastu egin nahi duen. Argi izan behar dugu esperimentazio eta jolasari dagokionean, ez dela bata bestea baino hobea. Umeak ez duela esperimentatzeko behar gehiago jolasteko baino, edo jolasteko behar gehiago esperimentatzeko baino. Biak behar dituela, eta biak aterako zaizkiola, bakoitza dagokion unean, eta datorrena datorrela, onartzea dagokigula. Pena litzateke baten aldeko hautua egitea eta gure eskaintza alde batera bakarrik bideratzea.

Beraz, udarako gonbidapena umea esperimentatzen eta jolasean ikustea izango litzateke, zer ezaugarritzen ari den, zer irudikatzen ari den, mundua nolakoa imajinatzen duen behatzea. Natura eta lagunak

eskainita, berez gertatuko da, eta gure umeek udan egiten duten garapen pausu erraldoi horren testigu izatera gonbidatzen zaituztet guraso guztiak. Gozatu beren plazeraz eta aurrera pausuetaz!

Gaiaren inguruan gehiago irakurri nahi duenarentzat:

Lillard, A. S., Lerner, M.D., Hopkins, E. J., Dore, R.A., Smith, E.D. & Palquist, C.M. (2013). The impact of pretend play on children's development: a review of evidence. *Psychological Bulletin*, 139(1), 1-34.

Pellegrini, A. D. (2009). *The role of play in human development*. New York: Oxford University Press.

Neurosiaren prebentzio-rako hamar aholku, eta bat gehiago

Ane Abllaneda

1. Ez hartu gomendio hauek dogmatikoki. Gehiago esango dut: ez hartu inoiz, ezer, inon dogmatikoki. Ez sinetsi egia borobilak edo errezetak saldu nahi izango dizkizunari. Bizitzan, orohar. Baina heziketan, bereziki. Ez da hori nire asmoa, gizakioi buruzko ohar hutsak egitea baizik, umilki, baina dakidan horretatik, balio didan neurrian zuekin konpartitzeko asmo xumearekin. Denak dira aholku orokorrak, ñabardura mordoa falta dutenak, testuinguratu gabeak, edonola ere pertsona bakoitzaren errealitate eta nolakotasunari egokitu beharrekoak. Irakur itzazu, beraz, eta pentsatu, zeure galbahetik pasarazi, gorde baliogarriak izango zaizkizunak, zeure erara moldatu nahi dituzunak, eta errefusatu noski, zuretzat ez direnak, edo kalte ere eragin liezazuketenak. Denaren gainetik, gogoeta egin. Honetaz eta hartaz, beti, baina heziketaz bereziki. Gutaz hausnarketa egiteko modurik onena da, baina egitekotan egin ezazu beti zintzoki, egiazki, ispiluari begiratuta, ixilean edo besteekin, nahiago duzun bezala, baina gezurrik esan gabe, barnera begiratuta, aitortza giroan.

2. Hastekotz eta behin, lasai hartu. Kendu zeure burutik haur sano-sanoak haztearen pretentsio eta ardura gehiegizkoa, ez duzulako eragat lortuko, ez bederen irudikatzen duzun neurriraino, seguru. Berdin da zenbat saiatzen zaren, edo zenbateraino burutzen duzun egin “beharreko” guztia: oso zaila da zure umea ezaugarri neurotikorik bategabegaratzeara, eta oso arrazoi xumeagatik gainera: neurotikoa da egungo gizartea, eta hau hala izanik, ez da erraza jendarte honetan sozializatzea, horretara egokitze moduko neurosi gradu minimo bat ez baldin baduzu. Ez, zaude lasai, ez naiz hemen neurosiaz hitzaren adiera klinikoan ari, izaki oso bezala garatzea eragozten digun disfunczionaltasunaren zentzuan baizik, ahalko genukeena bezain sano eta libre bizitzea eragozten digunaz, alegia. Eta hori, ez didazue ukatuko, denongan dago. Nola azaldu bestela, geu izateko eta geure buruaren jabe eta lagun on bilakatzeko dugun zailtasuna, besteekin ongi erlazionatzeko dauzkagun oztopoak, ongi bizitzeko, orohar, dugun ezintasuna. Horrela funtzionatzeko



modua hain dago sozialki zabaldua non ia ezinezkoa den osasun-printzipioen araberrako koordinadetan bizitzea. Kontua da ez garelako ohartzen, denoi gertatzen zaigulako; eta normal-normalak iruditzen zaigula horregatik, hor deus arrarorik ez ikusteraino, azpian dagoen patologia latentea ez antzemateraino, osasuna normaltasun horrekin identifikatzeraino.

3. Dena den, ulertu idazue. Lehen gomendio honekin ez dut adierazi nahi horretara kondentatuta gaudela uste dudarik, etsipenean erori naizenik, edo belaunaldi berrien osasun emozionalaren maila hobetzen saiatzeari utzita, amore emateko eskatzen dizuedanik. Ez. Zertarako ariko nintzen, bestela, prebentziorako aholku zerrenda hau idazten, gauzak alda daitezkeela benetan sinetsiko ez banu, haurtzaroa zaintzeko beste paradigma baten itxaropena edukiko ez banu, zoritxarra gure patu bilakatu dela pentsatuko banu? Bai, jakina zoriotsuagoak eta emozionalki sendoagoak izan gaitzkeela. Hori horrela izan daitezkeela ongi dakidalako egiten dut, hain zuzen ere, prebentzioaren aldarria. Baita horregatik egin ere hurrei eskaintzen diegun heziketa bizitzareduaren analisia, gabeziak eta arazoen jatorria non dauden antzeman ahal izateko. Kontua da ez dugula ez gauetik goizera egingo, ez geuk bakarrik, ezta erabat ere. Osasunera eramango gaituen bidea luzea da, urrats txiki asko emanaz eta jauzi kualitatibo zenbait eginez urratu beharrekoa, eta bistan denez, belaunaldi bakarrean igaroko ez duguna. Oztopoak asko direlako; alde batetik, gizarte konfigurazioa eta antolamendua. Bestetik, kultura pedagogikoaren inertzia indartsuak. Azkenik, eta beharbada nagusiki, barnean daramatzagun joera karakterialak eta hutsune psikoafektiboak. Hori guztiagatik, horra,

beraz, bigarren aholkutxo bat: ez zapuztu, eta ez anbizio gehiegirik ezarri zure haurraren heziketarako diseinatu duzun proiektuari. Freirek gomendatu zigun bezala, izan adoretzua aldatu dezakezuna aldatzeko, eta aski umila aldatu ezin duzun horretan ez tematzeko.

4. Ez eduki beldurrik haurrei maitasuna adierazteko, emateko, erakusteko. Nahi beste, nahi bestetan, nahi nola. Ez pentsatu horregatik gaizki heziko duzunik, edo “kolgatu” egingo zaizunik. Maitasunak kaltea eragin dezakeela pentsatzea bezalakoa litzateke, eta egizu mesedez hausnarketa horrek adierazten duenaren larritasunaz. Jakin, gainera, haurrari zure maitasuna irits dakion ez dela nahikoa berme zuk haurra maitatze hutsa, zuk hori jakiteak ez duela esan nahi haurrak ere badakienik. Erakutsi egin behar diozu, eta orduan eta txikiago, orduan eta modu esperimentaleagoan, errealagoan. Haur niniak denbora luzea beharko du zu lanera joatea bera maitatzeko modu bat dela ulertzeko moduan egoteraino. Horregatik, prozesuak iraun bitartean, zu sentituegin beharko zaitu, literalki, hurbil sentituz zure azala, gorputza, usaina, zure izate osoaren presentziaz hornitu eta asetu ahal izateraino. Ahal duzun guztia, ahal duzun guztietan. Eta otoi, garrantzitsua: behar zaituen guztietan. Berebiziko garrantzia du eskuragarritasun afektiboak haurtzaroan, zugaran konfidantza barneratu eta zugarako atxikimendua eraiki ahal izan dezan. Bizitzari gure (gorputzaren) bitartez zaizkio haurrak lotzen, errotzen. Gurasoak afektiboki eskura sentitzea beti da gauza ona, baina haur txiki garenean, helduaren erantzun egokia berehala sentitu ahal izateak ere berebiziko garrantzia du. Gogoratu haurrak gorputzean bizi direla, eta bizitzari eta bizipozari zurearen bitartez lotuko zaizkiola. Haur txikiekin ez da gure denboraren kalitatearekin aski, hori ere inportantea izanagatik. Kantitatea ere oso oso oso garrantzitsua da, erabat beharrezkoa. Ala hemen zaude, nirekin eta orain. Ala ez zaude, eta ez zara existitzen. kitto.

5. Haurtzaro osoa da garrantzitsua, baina gure oinarri afektiboaren sendotasunari begira, 0-3 urteen tartea da bereziki kontuan hartu beharrekoa. Mendekotasun betearen garaia da, amarekin itsatsita egotetik indibiduo diferente gisa separatzeko igaro beharreko prozesuari dagokiona. Hiru urterekin hito maduratibo bat gertatzen da, pertsona afektiboki inportanteen irudia barnean eraman ahal izateko gaitasuna erdiestearena, eta horrekin batera sozializatzen hasteko garaia hasierarena. Gurasoengandik

ordurarte jasotako maitasun esperimentale horretaz guztiaz aseta eta beteta, mundura ateratzeko unea: seguru, lasai, alai eta jakin-gosez. Garai honetan oso zaurgarriak gara, mundua ulertzeko eta arrazoitzeko daukagun gaitasuna oso urria delako oraindik. Gorputzean eta emozioan baino ez gara ia ia bizi, eta ez hainbeste adimen kognitiboan eta kortikalean. Horregatik, eta ahal duzun neurrian noski, hirugarren kontseilua: saia zaitez ahal bezainbeste presente egoten zure haurraren lehen haurtzaro horretan, egin diezaiokezun oparirik handiena baita, bere osasunean egin dezakezun inbertsiorik handiena, zalantza izpirik gabe. Eta ezinezkoa baldin bada, saiatu parametro horien arabera jokatzeko duen haurtzaina bilatzen, dela haur-eskolan, dela etxean. Maternage funtzioa burutuko duen eta burutzeko baldintzak izango dituen erreferente bat eta bakarra.

6. Indarrean den paradigma pedagogikoak kontrakoa egitera bultzatzen zaituen arren, ez ditzazula haurren behar emozionalak frustratu, ez bederen modu deliberatuan, tresna pedagogiko gisa, ez baita frustrazioa garapena ahalbidetzen duena, etapa bakoitzean ume batek dituen beharrak behar beste asetzea baizik. Frustrazioa bizitzaren parte da, eta beti dago. Baina ez naiz berezkoa den frustrazio natural horri buruz mintzo, heziketan modu instruktiboan erabiltzen den horri buruz baizik. Azal dezadan adibide batekin. Pentsatu ohi da—uste duguna baino maizago, bide batez—, ez dela haur nini bat besotan gehiegi hartu behar, ez bederen berak nahiko lukeen guztietan, ohitu egingo zaigulako bestela, arazoren bat sortu behar bagenio bezala bere kasa lokartzen eta lasaitzen ikastearen prozesuan. Bada, kontrakoa da. Mendekotasun betearen garaian



ume bati uzten badiogu mendekotasunaren beharra bete-betean bizitzen, asetu egingo da, eta haur koskorrago bati dagokion garapen-fasera igarotzeko gogoa piztu egingo zaio, bizitzaren bulkada hutsez, hazi eta garatu nahi izatea, pertsonok berez dakargun behar naturala delako, senezkoa .Bestela, eta hala ere, pasa egingo da hurrengo fasera, bai, ez baita horregatik garapena errotik etengo. Bistan dena. Kontua da, baldintzatuta geratuko dela, asegabeko behar hori non, nola, eta norekin bete, horrela igaro beharrez hurrengo etapak eta harremanak.

7. Kasu, hori bai, fase batetik besterako une kritiko horiekin, eta horietan. Aseta baldin badago, edo hala iruditzen baldin bazaigu bederen, guk eman beharko diogu beste etapara igaro dadin azken bultzadatxoa. Haztea ez da beti erraza, munduan egoteko modu batetik modu helduago batera igarotzeak beti dakarrelako krisi (existentzial) moduko bat, erresistentzia eragiten diguna. Jauzi existentzialki kualitatiboa emateko gogoa, nahia eta beharra egoteak ez du esan nahi beldurra ez dagoenik, ezezagunaren aurrean piztu ohi zaiguna. Edo nostalgia, atzean uzten dugun kokalekuarena. Gure heldu-errealitatean argi ikusten dugu, baina kosta egiten zaigu ume baten bizitzan krisi existentziala egon daitekeela ulertzea gurasoen ohetik ateratzean, titia uztean, etxeko giro intimoa utzita eskolaratzean, eta abar. Bada bai. Horregatik, garapenean urratsa egoteko moduan sentitzen badugu gure haurra, aseta jadanik lehenago zegoen fasean bizitu beharrekoaz, jakin behar dugu ez dela izango umeari berez aterako zaion eskakizun bat bakarrik lo egitearena, adibidez. Eta gure eginbeharra dela horretarako gonbitea egitea, edo unea iritsia dela iritziata, muga jartzea. Horrela jokatzeara umearen erritmoa behartzea dela irudituko zaio baten bati, baina ez. Garapenean aurrera egiteko beharrezkoa den bultzadatxoa da, baina egia da ez dela beti erraza bien artean dagoen marra fina zein den antzematea. Horretarako, gure behaketa zorrotza, sena eta zentzu ona izan dakizkiguke bidelagun finenak.

8. Heziketa harreman bat (baino ez) da, haurrak eta helduen artean gertatzen dena, eta harreman horren kalitatea da heldu bezala gehien zaindu beharko genukeena. Ez dadila izan sobera direktiboa, boterekerian oinarrituegia, baina ezta sobera permisiboa ere, ustezko askatasunaren izenean utzikeria duena ardatz. Harreman hori, badakigu, adulozentrimoak gidatu eta gobernatu izan ohi du, modu agerikoagoan edo kamuflatuagoan, gaur egun arte. Egia da, hala ere eta zorionez,



heziketa osasungarriago eta errespetuzkoago baten printzipioen arabera jokatu nahi duten gero eta heldu gehiago dagoela, baina hauen kokalekua ez da beti egokiena. Izan ere, batzuetan, haurren beharrak erdigunean jartzearen borondate onenarekin, geure burua eta geure beharrak ahantzi egiten ditugu, eta hori ez da inoiz, inolako harremanetan, sanoa. Hau da: egia da ume bat mundura ekartzeak ardura dakarrela, noski. Bere beharrak edozeren gainetik egon behar direlako, behar fisikoak noski, baina baita emozionalak ere, eta horretarako, geurean aurrean lehenetsi behar ditugu. Haurrak oso zaurgarriak dira garai horretan, eta hori horrela ez egiteak kalte eta min handiak ekar diezazkiolako. Winicottek zioen bezala, umearen erritmoari geureari baino adi eta erneago egotea da umeen zaindari on batek eduki beharko lukeen ezaugarri garrantzitsuena. Batzuetan, baina, ahaztu egiten ditugu geure erritmoa, geure beharrak, geure mugak, geure ongizatea, geure burua, azken batean. Eta hortik dator ekidin beharreko disfunzioa. Modu sutilean, hauxe ematen diogu haurrari jakitera: maitasunaren izenean, zilegi dela harreman batean geure burua ahaztea, geure burua ukatzea, geure burua ez zaintzea. Eta hori nahi al dugu? Zure haurrerekiko harremanean ez galdu zeure buruarekiko lotura ona.

9. izan zaitezteela zuek, gurasook, zuen haurraren autonomiaren konkistan historikoak izango diren une horien bidelagunak. Garapen psikoafektiboan zubi-une hauek duten garrantzia eta balio ebolutiboagatik, eta une kritiko horietan umeak ongi inguratua eta lagundua sentitzeak dakarkion duintasun hutsagatik, ongi legoke, berarentzat afektiboki inportanteak diren

pertsonen eskutik igaro ahal izatea destete moduko hauetako bakoitza, hala nola gurasoen besoetatik lurrera joatekoa, lehen urratsak ematearena, titia uztearena, txupetea edo fardela kentzearena, gurasoen ohetik berera joatearena, eskolaratzekoa, eta abar.

10. Ongi harremantzeko, norekin erlazionatzen ari garen jakitea oso garrantzitsua da. Hortaz, gogoan eta present eduki itzazu beti, haurrek dituzten ezaugarrien multzoa, haur izate hutsagatik. Ez dezagun beren izaeraren kontra hain goiz jo, hain gogor, halako temarekin. Erabakiak hartuko ditugunean, izan dezagun kontuan beren haur-izaera ederra eta ordezkazina. Egon gaitezen adi, ez diezaiogun hain modu itsuan segitu, haurrak ukatzeko eta otzantzeko borondate inkontzientearekin barnean piztu ohi zaigun pilotu automatikoari. Eta denaren gainetik, ikas dezagun berengandik, asko dira-eta helduarorako bidean galdu, ahaztu, estali, eta zapaldu ditugun haur-gauza ederrak. Haurrek jolastuegin behar dute. Are gehiago esango dut, jolastu besterik ez dute kasik egin behar. Plazerean bizi dira, hori delarik beren bizitzaren ardatza, erabakiak hartzeko kontuan duten printzipio bakarra. iritsiko zaie, egin nahi duten horrez gain egin behar dutena ere existitzen dela ohartzeko unea, lasai. Eta ikasiko dute, noski, mugak topatzen, onartzen, eta arauen arabera jokatzeko, dudarik ez izan. Baina bitartean, otoi, izan gaitezen malguak, eta izan dezagun pazientzia. Eduki dezagun gogoan, eta aitor diezaiegun, gure mundu mugatuegi honetara egokitzeko bakarrik egin behar izaten duten ahalegina.

11. Aita edo ama izatea, nork bere historia psikoafektiboa berriz editatzeko aukera paregabea da, haurrarekin batera nork bere historiarekin berriz aurkitzeko parada eskaintzen duena. Zorionak beraz! probestu eta GOZATU BIDEAN, HORI BETIIIII!

Lateralitate prozesuaren garrantzia lehen hezkuntzan

Ainhoa Barrenetxea, Leire Tellera

Lateralitatea, burmuina osatzen duten bi hemisferioen (ezkerrekoa eta eskumakoa) funtzioen banaketa ordenatua da. Lateralitatearen prozesua nerbio-sistemaren garapen eta heldutasunaren ondorio da.

Gizakia organoen sistema bikoitz batek osatzen du, zeina gorputzeko erdiko lerroaren alde bakoitzean banatuta dagoen (bi begi ditugu, bi belarri, bi esku, bi sudur-zulo... ahoa ere, enbriologikoki, bikoitza da, eta egia da ahoaren alde bakoitzean murtxikatze funtzioa ezberdina dela).

Atal anatomiko bikoitzak daudenez, kanpo inguruneari erantzutean, gure gorputzak zein alde-rekin ekin erabaki behar du une bakoitzean; eta horrela eratzen dira gorputz-dominantziak.

Zer da lateralitate gurutzatua?

Lateralitatea era argi eta eraginkorrean finkatzea litzake zuzenena, genetikoki zehaztutako norbere joeraren arabera, baina kasu askotan, lateralitatearen finkatze egokia desbidera dezakete barne- zein kanpo-faktoreek.

Dominantziak era homogeenan ezartzen badira, hau da, gorputzaren alde batek argi menderatzen badu (esku, begi, belarri eta oinetan) ondo finkatutako lateralitate batez ari gaitezke, izan eskuin ala ezkert. Kasu honetan informazioa hemisferio erreferentzialetik irteten eta sartzen da modu ordenatu eta arinean.

Aldiz, eskuineko aldea gailentzen denean gorputzeko atal batentzat (eskua, esaterako) eta ezkerrekoa beste batentzat (begia, adibidez), lateralitate gurutzatua ari gaitezke. Horrek eragiten du informazioaren prozesatzeak bide luzeagoa egitea bi hemisferioen artean.

Jaiotzetik hasi eta haurrak egiten dituen berezko mugimenduekin, garapen motorrari esker, umeak bi hemisferioen funtzioak integratzen ikasi behar du gorputz kailukararen (cuerpo calloso) bitartez; hau



baita bi hemisferioak konektatzen dituen. Honek espazioan eta noranzkoan orientatzea ahalbidetuko dio, ezinbesteko baldintza irakur-idazketa, matematika, besteak beste ikasteko.

Lehenengo etapan, lateralitatearen aktibazioa txandakakoa da. Ikusmenari dagokionez, etapa hau monokularra da. Bizitzako lehen urteetako garapenak berebiziko garrantzia du nerbio-sistema, lateralitatea eta ikusmenaren garapen egokirako.

Gorputz kailukarari esker burutzen da informazioaren joan-etorria; hau nerbio-zuntzek osatutako egitura da eta bi hemisferioen arteko informazioa konektatzen du. **Gakoa da lateralitate gurutzatuak (edo lateralitatean arazorik balego) haurraren eskola-bizitzan eragina izango ote duenetz ebazteko.** Gorputz kailukara arina eta bizia bada, informazioa hemisferioen artean ibiliko da arazorik gabe. Aldiz, gorputz kailukara ez bada oso bizia edo blokeatuta badago, lan handia izango da informazio guztia batu eta egokiro prozesatzea,

Zeintzuk dira lateralitatearen garapenean arazo bat adieraz dezaketen zeinu edo sintomak?

- Haurrak azkarra dirudi, baina irakurtzeko zailtasuna du.
- Irakurtzean errez nekatzen da. Ez dauka pazientziarik, zapuztu egiten da...
- Ez da geldik egoteko gai, ezin dio lan berari luzaro eutsi.
- Hitz, hizki edo zenbakiak desordenatzen ditu edo buelta ematen die.
- Testuaren lerroa hatzez jarraituta irakurtzen du.

- “b” eta “d”, edo “p” eta “q” hizkiak nahasten ditu.
- Irakurtzen du, baina ez du irakurritakoa ulertzen. Ez daki irakurritakoa kontatzen.
- Zaila egiten zaio liburu batetik kopiatzea, edo arbeletik eskolan.
- Laguntzak ez dira eraginkorrak izan bere errendimendua hobetzeko.
- Ikaskuntza arazoak, dislexia, ADHN... pairatzen duela esaten diote.

Gure ikuspuntutik garrantzitsuena lateralitate prozesu egokia oztopatu ahal duten kanpo faktoreak sahiestea da.

Askotan, konturatu gabe gure dominantziaren erosotasunagatik baldintzatzen dugu haurra (biberoia edo titia ematean, jaten ematerakoan, gauzak eskeintzerakoan edota jolasterakoan). Baina, pauso egokiak egin arren genetikak pisu handia dauka.

Kausak determinatu eta arazoa diagnostikatu ondoren, burmuinaren bi atalak ordenan jartzeko baliagarria den terapia diseinatzen da, horrela burmuinak askoz hobeto prozesatuko du heltzen zaion informazioa.

Sexualitatea, pornografia eta informazio iturriak

Jone Ialduegi


Sexualitatearen eta hezkidetzaren inguruko ahalduntze prozesuan heziketa funtsezkoa dela argi dago. Haurtzaroan eta nerabezaroan, indar handiagorekin barneratzen dira hainbat esparruetatik jasotzen ditugun mezuak. Horregatik, hezkuntza eta aisialdi arlotik arreta jartzea nahitaezkoa da, haur eta nerabeen balore eta usteen garapenaren esparru nagusienetakoa baita.

Interneten bidez denetarik egin dezakegu eta onartu behar dugu gure bizitzetara heldu zen unetik, gure ohitura eta egunerokotasunek aldaketa bortitza bizi izan zutela. Pertsonon bizitzetako aspektu desberdin askotan aldaketak eman dira teknologiaren eraginaren ondorioz, baina egokitzapen gehien sufritu dituen alderdietako bat sexualitatearena, gure testuinguruak guztiz baldintzatuz.

Sexualitatearen alderdi bat aztertzen badugu eta erotikari buruz hitz egiten badugu, pornografiaren erabilera aldaketak, batez ere, kontsumo hasiera goiztiarra eta euskarri digitala direla eta, ondorio larri asko sortu ditu, baina ez kontsumo beragatik, baizik eta jasotzen duten hori nola eta zein ikuspegitik egiten den guztiz baldintzatua dagoelako eta era oso inkontziente batean egiten delako, alegia, arinegi.

Pasaden urterarte pornografiaren lehen aldiz ikuskatzearen adin tartea ikerketa batzuk 11-12 urtetan kokatzen zuten, baina egun ezin dezakegu hori esan. Haurrek gero eta lehenago bereganatzen dute haien lehenengo mugikorra. Beraz, 9 urterekin dagoeneko gehiengoak mugikor bat dauka eta hori ez bada gutxienez tablet bat eskura izango du. Askok, 7 urte edo gutxiagorekin ere mugikorra daukate dagoeneko. Duda barik, mugikor hauek guztiak Internetera sarbidea daukate eta ondorioz bertan agertzen diren eduki guztietara ere bai, haien artean pornografia aurkitzen delarik.

Estatuaren fiskalia orokorraren datuen arabera adin txikikoen aldetik ematen diren delitu sexualek %58ko gorakada izan dutela. Emoki elkartearen esperientziagatik eta ikasgeletan urteetan zehar detektatu duguna ikusita, ez da harritzekoa. Indarkeria matxistak ukatu egiten dituzten gazte askorekin topatzen ari gara edo garrantzia kentzen dizkietenak. Bestalde, %20 batek



asmakizun ideologikoa dela diote.

Alde batetik, pornografia desmitifikatzea inportantea da eta pornoaren mundua inguratzen duten mitoak askatzea: erotikaren, plazeraren eta kitzikapenaren ulermenari bidea zabalduz. Bestetik, pornografiaren egungo ereduak eragin zuzena dauka beste esparru batzuetan (online eta esparru fisikoan) ematen diren indarkeriekin (indarkeria matxista, LGTBQ+-fobia, lodifobia, arrazakeria, etab) eta hau kontuan hartzea garrantzitsua da ere. Halaber, esan beharra dago, beste testuinguru batzuetan, esaterako, sare-sozial digitaletan horrelakoak eredu direla. Hala ere, askapenerako eta aniztasunerako espazioak gorakada handia izan dute eta alderdi positibo gisa aipatzea dago. Haurrak eta gazteak zenbat eta eredu anitzagoak izan, haien sexualitateak orduan eta askeago bizitzeko aukera gehiago izango dituzte.

Haur eta gazteak hezteko orduan, garrantzitsua den premisetako bat inkontzienteki barneratzen duten informazio guztiak kontuan izatea da. Alegia, laguntzerako orduan eta guraso bezala kezkatu ahal zaizkigun gaiak lantzerako orduan, hurbiltasunetik haien hizkuntzara hurbiltzea inportantea da. Bestalde, botatzen dizkiegun mezuak, jarrerak eta pertzepzioak aztertu eta guraso moduan autobehaketa egitea ezinbestekoa izango da prozesuan. Askotan guraso bezala, tresna zuzenak eta estrategia konkretuak nahi ditugu, baina egokiena bakoitzak bereak topatzea izango da. Giblean esan bezala, autobehaketa prozesu handienetakoa eta etengabekoa izango da eta egunerokotasunean egiten ditugun pertzepzioekin, iritziekin eta jarrerekin sekulako mezuak ari gara transmititzen eta hortxe jarri beharko dugu fokoa.

Haur Parkeak, zertarako?

Tusma Azkona

Ikasturtea hasia dela, udan zehar hainbat lekutan ikusitako haur parkeak direla eta, zuekin hausnarketa hau partekatu nahiko nuke.

Lehenik eta behin, “zertarako haur parkeak?” galdera etorri zitzaidan burura.

Hau da, uda izaten da haurrek denbora libre gehien duten garaia: eskolarik ez, etxeko lanik ez, eskolaz kanpoko jarduerarik ez (edo gutxi behintzat)... Haulere, haur parkeak, salbuespenak salbuespen, nahiko hutsik ikusi izan ditut. Arrazoiak?

Hauetako askok gomazko zorua izanik, eta inongo itzalik ez dutenez, eguzkiak zuzenean jo eta petrolio kiratsa nabaria izaten da, batere erakargarria bihurtuz gunea.

Honek zer pentsa ekarri beharko luke, honelako zoruen kostua oso altua baitda, eta diru publikoaz hitz egiten ari garenez, hobe lukete udalek honi buelta batzuk eman, eta beste era bateko zorua ipintzea. (Oraitxe bertan irakurri dut XLSeamaneal-en ikerketa baten ondorioa: gomazko zorua belarragatik aldatu duten Haur parkeetan, haurren immunitate-sistema eta makrobiotikoa hobetu dela).

Aldi berean, udan eguzki ordu gehiago ditugu neguan baino, eta horrek aukera gehiago ekarri beharko luke parkeak erabiltzeko.

Jarrai dezagun hausnarketarekin. Aipatu lez, udan denbora gehiago izanik, gutxiago erabiltzen dira parkeak. Beraz, espazio arazoa baino gehiago, denbora arazoa dugula esan genezake: haurrak jardueraz bete, eta ez dute jolasteko betarik.

Haur parkeetan gertatzen den beste fenomeno, pertsona helduen presentziarena da. Haur parkeen helburuetako bi hauexek ditugu: autonomia garatu eta sozializatu.

Helduen presentzia dela eta, bi helburu hauek garatzea oso zaila egiten da: Autonomiari dagokionez, zailtasuna duen edozein egoeraren aurrean hor gau-



delako, debekatuz, eskua ipiniz edo auskalo zer egingez. Sozializazioari dagokionez, helduok eskuhartzeak egiten ditugun haurren gatazken artean, gatazka horiek beraien artean konpontzeko aukera ezinduz. Horren adibidea, haurrak “partekatzer” behartzen ditugunean: bata baloia edo beste edozein jostailu duelarik, beste haur bat hurbiltzen bazaio hura kentzera, lehen haurrari esaten diogu: Utziozu! Partekatzen ikasi behar duzu!

Kasu hauetan, zera esateko gogoia izaten dut: “utzi zure kartera, partekatzen ikasi behar duzu!”. Kontu hauez gain, hainbat parkeetan haxe ikusi dut: “elementu inklusiboak” deitzen diren aparatuak. Lehenik, Denise Najmanovich pentsalari argentinarren hitzei jarraituz, “inklusioko” ez du gaintitzen “normala” eta “ez normala” ren arteko egoera. Horretarako, “bizikidetasuna” kontzeptua proposatzen digu. Hau da, haurrek, bakoitzak bere ahalmenekin, jolasean bere rola eta lekua aurkituko du, besteen, helduen bereziki, eskuhartzerik gabe.

Egia da haur batzuk, beren baldintza-ezintasunagatik hainbat elementuetan ezin izan direla ibili.

Familia hauen egoera ulertuz, eta beraiekin enpatizatuz, geure buruari galdetu beharko genieke ea zein diren haur horien jolasteko beharrak, eta behar horiei erantzuna ematen saiatu.

Espero dezagun espazio hauetan ardura duten pertsona, eragile, instituzio desberdinek hausnarketa zintzoa egitea, haurren beharrei dagokien erantzuna eman ahal izateko.

Adimen gaitasun handiko ikasleak eta Norbanako Jarduera Plana

Anaia Agiriano

Pasa den ikasturtean (eta baita aurrekoetan ere) gaitasun handiko seme-alabak dituzten hainbat gurasok aipatzen zidan beren semea/alaba geroz eta gogo gutxiagorekin joaten zela eskolara, aspertu egiten zela, bere errendimendua jaisten zebilela, eskolak ez zuela zentzurik aipatzen zuela, askotan ageriko arrazoirik gabe haserre bueltatzen zela etxera eta antzekoak. Hori entzunik, ikastetxean zer hezkuntza-neurri hartu zen galdetzen nien, eta, gehienetan, erantzun bera jasotzen nuen: “curriculum-aberastea egingo zitzaiola esan ziguten, baina, guk dakigunez, ez da ezer berezirik egin”.


Beste batzuk aldiz, honela kontatzen zidaten: “gure semea/alaba poz pozik dago: aurtun tokatu zaion tutorerekin oso ondo bat egin du eta sekula baino gusturako joaten da eskolara. Curriculum-aberastea ere martxan da eta erronka eta eginkizun interesgarriak egiten dituztela dio. Ikaragarri eskertzen dugu; lasaitasuna da nagusi gure etxean!”.

Zein bi errealitate ezberdin, ezta? Txanpon beraren bi aurpegiak dira. Adimen gaitasun handiko haurren baten guraso bazara, ziurrenik, jada ezagutuko zenituenak. Erabat aldatzen dira haurrak (eta nerabeak!) ulertuak eta onartuak direnean eta beren neurriko ikasketak eskaintzen zaizkienean. Loratu egiten dira.

Baina, loratzeko, landare bakoitza bere ezaugarrien arabera zaindu behar da.

Adimen gaitasun handiko ikasleei dagokienean, 2019an, Eusko Jaurlaritzak, gaitasun handiko ikasleak identifikatu eta arreta ematerakoan zegoen hutsuneaz jabetuta, Adimen-gaitasun handiko ikasleei hezkuntza-arreta emateko plana: 2019-2022 argitaratu zuen. Bertan, aurki martxan jarriko den identifikazio prozesu sistematizatuaz hitz egiten da, baina, baita, esku-hartzeaz, eta, esku-hartze hori era antolatuta eta egoki batetan egiteko, Norbanako Jarduera Planaz (NJP) (4. Eranskina).

NJP adimen gaitasun handiko ikasle batek jasoko



dituen hezkuntza erantzunak aurreikusiko diren dokumentu bat da, ikaslearen ezaugarri eta beharretan oinarritua eta irakasle-tutoreak koordinatua (eskolako aholkulariaren edo orientatzailearen laguntzaz). Hezkuntza erantzun hauek ohiko neurriak izango dira, hots, batez ere gela arruntean garatuko direnak, baina, malgu-tasunez, ikasle-elkarketa zein ohikoak ez diren espazioak erabiltzeko aukera ere emango da. Hala ere, argi utzi behar da NJP ez dela ikasle bat gaitasun handikoa dela adierazten duen txosten bat dagoenean soilik egingo, baizik eta ondorengo kasu guzti hauetan:

- Adimen gaitasun handi gisa identifikaturik daudenean.
- Goiztiartasuna somatzean (formalki identifikatuta egon ala ez).
- Bataz bestekoekin alderatuta errendimendu altuagoa erakusten duten ikasleen kasuan.
- Arloren batean aurreratuago dauden ikasleen kasuan.
- Azeleraturik datozen ikasleei zein curriculum-aberastea egin behar den kasuan.
- Adimen gaitasun handikoak izan arren, ikasteko zailtasunak dituztenean.

Hau da, umea haur hezkuntzan badago eta oraindik ebaluaziorik ez izan arren bere adinekoekin alderatuta aurreratuago somatzen bada, NJP egitea komeniko litzateke. Edo, baita, goragoko etapetan, gaitasun handikoa ez izan arren, bataz bestekoarekin alderatuta errendimendu hobea erakusten duten ikasleen kasuan eta arloren batetan aurreratuago daudenetan.

Maila bat aurreratuta dauden ikasleek ere behar dute.

Batzuetan pentsatu izan da mailaz pasa eta listo, egin beharrekoa egina dela, baina ez da aski; NJP-az lagunduriko jarraipen bat behar dute. Eta, gauza bera curriculuma aberastea komeni zaien neska-mutilei dagokienean ere: ez da aski aberastea egingo zaiola esatea; aberaste hori nola egingo den zehaztu beharko da eta ongi doala egiaztatu.

Azkenik, gaitasun handikoak izan arren, ikasteko zailtasunak dituzten ikasleak ditugu (hezkuntza-sisteman sartu berriak direlako, motibazio eskasa dute-lako, euren gizarte-ingurunea ahula delako, ...). Kasu hauetan, gehienetan, beren zailtasunetan oinarritzeko joera dago, baina oso garrantzitsua da beren gaitasunetan oinarritzea. Izan ere, beren zailtasunez oso kontzienteak direnez, sufrimendu handia izan ohi duten haurrak dira. Gaitasunetan oinarritzeak beren autoirudia eta autoestimua hobetzen laguntzen die eta, horrekin, beren zailtasunak errazago gainditzen.

Beraz, egoera hauetakoren batetan dagoen semea edo alaba baduzue, ikastetxean NJP egingo zaio eta, halakorik gertatu ezean, eskatzeko eskubidea duzue. Hain zuzen ere, honela jasotzen da Hezkuntzako sailburuordearen Ebazpena, 2018-19 ikasturtearen antolaketari buruzkoan: “adimen-gaitasun handiko ikasleek beren ahalmenaren garapenik handiena bermatuko duen erantzun egokia jaso behar dute. Horretarako, ikasle horien ezaugarriak, premiak eta zailtasunak ezagutu eta neurri egokiak hartu behar dira. Hortaz, ikasleren batek gaitasun handiak dituen zantzuak edo ebidentziak dituzten irakasleek ikastetxeko aholkulariari jakinarazi beharko diote ahal bezain laster, Berritzeguneko aholkulariekin lanki-detzan ikasle horren premietara egokitutako norbanako jarduera-plan bat abian jartzeko”.

Horretaz gain, honela dio hezkuntza premia espezifikoak dituzten ikasleei buruzko Hezkuntza sailburuordearen 2020ko uztailaren 10eko ebazpenak, Norbanako Jarduera Planari dagokionean: “Gurasoek edo legezko tutoreek planaren diseinuari eta aplikazioari buruzko informazioa jaso beharko dute ikasturtean zehar, bai eta hurrengo ikasturterako proposatutako neurriei buruzkoa ere”. Hau da, gurasoek informatuta egoteko eskubidea duzue, baina, informatuta egoteaz gain, zuen ekarpenekin parte hartzea ere oso garrantzitsua da. Izan ere, sarritan aipatu dugun eran, etxean eta ikastetxean bi errealitate ezberdin ikusten dira, eta, biak uztartzean, erantzun egokiago bat emateko aukera izango da.

NJP hiru hilean behin ebaluatuko da (ondo badoa aurrera jarraitzeko eta aldaketarik behar bada, aldaketok egiteko) eta azken hiruhilekoaren amaieran hurrengo ikasturterako neurriak aurreikusiko dira. Gauzak horrela, hiruhileko bakoitzaren amaieran zuen seme edo alabaren guraso bilerak oso garrantzitsuak dira, hiruhileko bakoitzaren amaieran hurrengorako erabakiak hartu ahal izango direlako. Azkenik, ezin ahaztu, gaitasun handiko ikasleak lore ederrak direla, baina baita gainontzeko ikasleak ere, eta lorategia denen artean osatzen eta edertzen dutela; inguruko lorezainen laguntzaz.

Informazio gehiago:

Adimen-gaitasun handiko ikasleei hezkuntza-arreta emateko plana: 2019-2022. https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/xiileg_planes_departamentales/eu_def/adjuntos/Adimen-gaitasuna-handia-2019-2022-plana.pdf

Ebazpena, 2020ko uztailaren 10ekoa, Hezkuntza sailburuordearena. https://www.berrigasteiz.com/site_orientabideak/20200710_neae_informazioa_biltzeko_prozedura_e.pdf

Emakumearen identitatea amatasunean oinarritua

Leire Eliezarraga

Aldaketa sozialek, emakumezkoen eta gizonezkoen identitate eraikuntzan aldakuntzak sortu dituzte, ideia berdinzaleago baterantz joz. Baina aldaketak eman diren arren, emakumearen eraikuntza sozialak ez ditu oraindik nahi besteko urratsak eman, ikuspegi androzentrikoa duen gizarte patriarkal baten aterkipean sortu delako. Honek emakumeei hainbat aspektutan beraiekin bat ez doazen ezaugarriekin lotutako rol soziala eman die, eta horrek beraiegan, erruduntasun sentimendu handia sortzera eramán du. Zehazki, gure gizarte patriarkalean, emakumearen identitateak ama izatearekin zerikusi zuzena izan du, emakumeen osotasuna ama izatean lortzen dutenaren ideia indartuz. “Ama emakumeen paradigma da, laburbilduz, emakumeen funtsa ama izatea da”.

Horrela gizarteak emakumearekiko sortu duen ideia nagusia zaintzan oinarritzen da. Ikuspegi horren eraginak, emakumeei beren amatasuna osasuntsu bizitzea kendu die eta kentzen die, batez ere, gure gizartean urte askotan esparru pribatuan emakumeen ikuspegiari buruz ezarritako sinesmenek, askatasun eza sortu dutelako beraien erabakietan. Gainera, gaur egun ere, emakumeek ezin izan dute epai, zalantza, beldur eta ziurgabetasunik gabeko amatasuna eraiki, hau da, ama izateko erabakia ez da oraindik askea ezta segurtasunez garatutakoa ere.

Amatasuna, beste alde batetik, betidanik bigarren maila batean izan da, emakumeei lotutako alderdi bat izan delako. Hori dela eta, amak behin eta berriz sentitzen du bere haurrarekin egunero egiten duenak ez duela baliorik, gizarteak ez baitio merezi duen balorea eman. Horrekin guztiarekin, emakumeak bere buruarekiko duen eskaria handiagoa da eta perfekzioa etengabea bere egunerokoan, egiten dutena inoiz nahikoa ez denaren sentsazioa areagotzen delarik. Beste alde batetik, uste androzentriko horrek, emakumeak ama izaten jakinda jaiotzen direla indartu du eta, jakina, ez edozein ama baizik eta ama perfektua. Honek guztiak, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna areagotu du, gizonak zaintza-zereginak betetzeko gai ez direla sentituz eta, hala,



emakumeei zaintza lanak eskuordetuz eta honek emakumeenganako presioa gehiago sortuz. Oraingo belaunaldian, ama onaren presioa duela pare bat hamarkada baino askoz handiagoa da. Horrekin, aitaren rola baliogabetu egin da ere, hau amarena bezain garrantzitsua izanda.

Beste alde batetik amatasunaren identitateaz jarraituz, honek genero identitatearekin erlazio zuzena du. Horrela, genero rola, kulturaren eta gizartearen beharren arabera ikasiak eta moldagarriak dira. Amatasunaren ideia era ezberdinetan irudikatzen da emakume bakoitzaren bizi baldintzen arabera. Bogotan egindako ikerketa batean, emakumeek ama funtzioen inguruko egoera ezberdinetan ezberdin erreakzionatu zuten bakoitzaren pertenezia sozialaren arabera. Hein batean esan dezakegu, emakumezkoen identitatea eta kasu honetan, amaren rola, eraikuntza soziala dela ez horrenbeste gauzak egiteko modu naturala. Kultura edo gizarte bakoitzak bere sinesmen, harreman eta beharren arabera ulertu eta funtzio desberdinak emango dizkio amaren eginkizunari, hau da, benetan zaintzeko modu hau sinesmen, mito eta balore multzo batetik sortzen den ondare kulturala da, belaunaldiz belaunaldi transmititzen diren ohiturak izanik.

Azkenik esan, hezkuntza-esparruak garrantzi handia izan duela amaren identitatearen eraikuntzan, emakumeak batez ere ama izateko hezi baitira. Horrela, txikitatik, beraien heziketa etxeko lanetan, ezkontzan eta amatasunean oinarritu dira, aurreko belaunaldietatik transmititutako rol horiek betikotuz. Emakumea prestakuntzarekin zerikusia zuen orotik bereizten zen, batez ere kulturarik gabeko esparru

pribatuan ezarritz, eta horrek gizonak menderatu zezakeela esan nahi zuen. Emakumeen analfabetismo-tasa oso altua izan zen duela gutxi arte. Hori dela eta, emakumeek etxetik kanpo gertatzen ziren egoeratan gizonen aholkuak jasotzearen menpe bizi ziren, haien hezkuntza etxean bakarrik oinarritzen baitzen. Bere eginkizuna ama eta emazte perfektua izatea zen, honek gaur egungo gizartean ondare sakona hutsi du. Hezkuntzak, beraz, emakumeen bizitza moldatu du, batetik, haien gainean eta izan behar zutenaren gaineko kontrola eginez, baina bestetik, segurtasuna sortzeko eta ahalduentzeko aukera ere eman die iritzi eta erabakietan pausu batzuk eman ahal izateko. Emakumeek hezkuntza jasotzen hasi direnetik pausu handiak emateko gai izan baitira.

Guzti honetatik ondorioztatu dezakegu, identitateak aldaketak jasotzen dituela eta kulturaren eragin zuzena duela beraz amari lotutako identitateak aldaketak jaso litzakeela eta ez dela beraz, ama guztiei definitzen dieten ezaugarritz sortua. Ezta ere emakume guztiei definitzen diena ere.

Lozorrorako prestatzen

Naiara Corcuera

Udaren amaiera iritsi den honetan, udazkenak bere fruituak eskaintzen dizkigu negu gorria leuntzen lagunduko digutenak. Bada sasoia dauden uztak batzeko, gorde ahal direnak gordetzeko, pilatzeko eta bestela zuzenean jateko! Gizendu, edo energia erreserbak ahalik eta gehien handitzeko momentua da hain justu, lozorroaren aurretik saguzarrek, beste animalia batzuk bezala, egin behar dutena garai eskasetan bizi irauteko.

Saguzarrak dira ugaztunen artean aniztasun gehien duen bigarren animalia taldea, mundu guztian zehar 1.300 espezie ezagutzen baitira, Euskal Herrian, aldiz, 25 espezie. Planetako habitat lurralde gehienak okupatzera iritsi dira eta aniztasun funtzional eta ekologiko handia aurkitu daiteke beraien artean. Ekosistemen funtzionamenduan paper garrantzitsua jokatzeko dute, harrapakinaren populazioengan eragiten dutelako, landareen polinizazioan eta disperseio prozesuan parte hartzen dutelako. Euskal Herriko saguzarrak intsektujaleak dira gehienak, espezie bat izan ezik, intsektuez gain, noizbehinka txoriz ere elikatzen baita.

Saguzarrak gai dira, beste ugaztunak bezala, beraien gorputzeko tenperatura orekatua mantentzeko, 35-39°C artean. Gaitasun honek abantaila asko ditu, adibidez, aktibo mantentzeko aukera ematen du egunean ordu gehiagotan edo urteko sasoi luzeago batzuetan. Baina, gastu energetiko oso garrantzitsua ere suposatzen du, batez ere, muturreko ingurumen baldintzetan, adibidez, tenperatura baxuetan. Hain zuzen ere, neguansaguzarren elikagaia eskasena izan ohi da, intsektuek neguan ez dutelako hegan egiten. Gainera, mikrougaztun batzuk bezala, beraien gorputzeko metabolismoak mantentzeko beharrezko energia bereziki altua da.

Hala ere, metabolismo hori deprimitzeko gaitasuna garatu dute eta, beraz, energia aurreztu dezakete, inguruaren baldintzen arabera, esaterako, gaueko ordu hotzetan, elikagai gutxi dagoen egunetan edo ugalketa egoeraren arabera. Benetako lozorroa, ordea, neguan etorri ohi da; saguzarrak buruz behera kokatzen dira geldi, koba edo barrunbeetako sabaian, harkaitz edo arboletako pitzadurretan. Oxigeno kontsumoa eta bihotz-erritmoa minimora jaisten dira, organo askoren jardura eten egiten da eta aldaketa fisiologiko sakonak



gertatzen zaie. Metabolismoa ezeztatu egiten da, murriztuz energia kontsumoa eta baita ere hondakinaren jarraia. Horrek guztiak ahalbidetzen die bizirik irautea.

Saguzarrak lozorroan dauden garai hau oso zaurgarria izan ohi da, horregatik, beraien gordelekuetan egon daitezkeen molestiek eragin dezakete animalia mugitzea, eta ondorioz, energia gastu garrantzitsu bat izatea, arriskuan jarritz negua gainditzeko gaitasuna.

Guri ere laster iritsiko zaigu beste behin negua, ordea, oso bestelako egoera gure energia erreserben egoera; milioika urtetan lur planetan metatu diren hondakinak, orain erregai fosil bihurtuta, baliatu baititugu azken mende eta erdiaren garapena bultzatzeko. Egungo gizartearen kontsumo eredu mugagabeak energia eta baliabideen krisia eragiten ari da eta ukaezina bilakatu da energia kontsumoa murrizteko beharra. Hortaz, ezinbestean sartu gara desazkundearen garaian eta ez aukera ideologiko gisa, batzuk hainbestetan aldarrikatu duten bezala, baizik eta lur planetak bere mugak dituelako eta gaindituta daudelako asko eta gainditzear beste hainbeste.

Gutako bakoitzak sortzen dugun energia aztarnari dagokionez, etxean edo garraioan kontsumitzen dugun energia kontuan hartzeaz gain, hitz egin behar da, baita ere, zeharka kontsumitzen dugunaz, alegia, beste ondasun eta zerbitzu batzuetaz. Adituek diotenez, planeta osoaren funtsezko beharrak asetzeko, nahikoa litzateke gaur egungo kontsumoaren % 30-40arekin, pentsa zenbat ari garen xahutzen eta zenbat daukagun hobetzeko! Ea bada gure gizarte eredu honen metabolismoak egokitzeko gai garen eta, natura bezala, egoera berrietara moldatu gaitzkeen!

Bere amak Peruri gona urdina opari

Maidor Garcia de Vicuna

Uda amaitu zaigu jada eta berarekin batera herriz-herri jai giroan ibiltzea ere. Gure herri askotan baserritar arropa erabili ohi dugu gure jaiak ospatzean eta bertan ikusitakoak pentsarazi egin dit.

Peru 4 urte inguruko umea da eta pozik dabil jai giroan. Edozein ume bezala dantzari gabiltzan helduoi behetik begira dago erraldoiak bagina bezala, musikarekin poztu eta gorputzari martxa ematen dio, salmentan dauden puxika horietako bat eskatu eta ezezkoa jasotzean amorratu egiten da, baina txaranga berri bat agertu bezain pronto puxika ahaztu eta arreta saxofoian jarri du.

Peruk edozein ume egiten duena egiten du jai-giroan, detaile txiki batengatik ez balitz. Peruk gona darama jantzita. Eta berak bere mundu hurbila jakinminez begiratzen duen bitartean, badira berari aurpegi serioz so egiten diotenak.

Aiton-amona ezagunak dira askorentzat eta biloba mutikoa dela badakite, zer demontre dabil gona jantzita? Beste batzuk ez dute familia ezagutzen, baina amak Peru deitzean, aho zabalik geratu dira gona soinean eramanda neska izango zelaz ziur zeudelako. Badira epai begiradak ere, hitzik gabe mutiko horri gona jartzen nola ausartu diren galdezka daudenak.

Zenbat izango dira Peru gonarekin ikustean sortu diren pentsamenduak eta harridurak?, Zenbat berarekin ikusitako ama epaitu dutenak txiki horri gona jartzeko aukera emateagatik, horrekin ume hori arriskutan jarriko balu bezala?

Gona janztea arriskutsua omen? Edonorentzat edo soilik mutilentzat? Mutil guztientzat edo Eskoziar, Indonesiar, erromatar soldaduak... ez direnentzat bakarrik? Zein da mutil batek gona janztearen arriskua gure herrian? Argi baitago beste zenbait lekutan ez diotela arriskurik ikusi horri.

Honen guztiaren azpian sexismoa dugu. Genero estereotipoek esango digute gure sexuaren arabera egokia dena, baita janzkeran ere. Hamarkada luze pasa dira nire amak praka lehen aldiz janzteagatik, ahizpen artean lehena holakorik egiten, zaplastekoa jaso zuenetik. Emetasun egokia zalantzan jartzen zuen horrela, emakume



lotsagabeen kontuak ziren horiek. Eta horrelako ausardiei esker, gaur egun prakak dira emakume gehienok erabiltzen duguna, suposatutako lotsagabekeria desagertuz eta genero estereotipoak aldakorrek direla agerian utziz.

Gizonezkoei gonak, makilajea edo belarritakoak erabiltzean, benetako gizonak ez zirela aurpegiratzen zitzaien, hau homosexualitatearekin erlazionatuz, heterosexualak benetako gizon bakarrak balira. Duela belaunaldi batzuk belarritakoak ohikoak badira, oraindik makilajea eta gonak onartzeko zailtasun handiak ditugu benetako gizona ez izatearen lelopean. Baina Aurrera goaz eta guztiok gonak janzteko deialdiak egin dira erasoan aurrean.

Emakume “onak” eta “benetako” gizonak izan behar gara eta horretarako bide estu eta itxia jarraitu behar dugu, txikitandik markatuta.

Zorionez, gero eta gehiago gara bide hauetan eroso ez gaudenak, aldaketa aldarrikatu eta egiten ari garenak, asko gure seme-alaben edota ikasleen bidea malgua eta zoriontsuago izatea nahi dugunak.

Peru gonaz jantzita harritu edota epaitu dutenak badira, baina naturalatsunez eta aldaketaren zeinuz bezala hartu dugunak ere. Umeari praka eta gona eman diete aukeran, gona hartu eta jantzi nahi izan du eta alaitasunez beterik atera da kalera. Peru mutila den edo ez, berak sentitu eta esan ahalko digu, mutila izanda, mutil bakarra eta errepikaezina izango da eta bere arrokek ez dute bera nor den aldatuko, baizik eta bera dena azalduko. Mutil ala neska izateko, sentitzeko eta adierazteko moduak, pertsonak bezain anitzak dira. Guztiak onak eta benetakoak.

Halloween? bai, baina...

Naroa Martinez

Urriak 31 datorkigu eta berarekin batera Halloween delakoaren ospakizuna. Asteak daramazkigu inguruko dendetan, telebistan, ingeles-saioetan... atzerriko ospakizun honen inguruko irudiak zien informazioa jasotzen. Etengabeko jariora da.

Eta maiz sortzen zaigu galdera: Halloween ospatu bai edo ez? Bada, erantzuna ez da hain sinplea.

Ezin duguna horrelako ospakizun bat beste edozein bezala ospatu, haurrak ahalik eta beldurgarrien moztortuz, inolako azalpenik eman gabe. Izan ere, heriotza, oraindik orain oso ezkutuan diegu txikienei eta, aldiz, heriotzarekin lotutako jai hau ospatzea sustatzen dugu.

Beraz, alde batetik, ospatzekotan esanahia eta jatorria azaldu beharko litzaieke. Nola zeltiarrek udaren amaiera ospatzean, arimen eta gure munduaen arteko muga estuagoa zela uste zuten eta, ustez, maskarak izpiritu gaiztoak uxatzeko erabiltzen ziren. Horrek, heriotzaz, hildakoen oroimenaz eta erritoez hitz egiteko aukera ematen digu. Ez baitu zentzurik oso ezohikoak diren hildako beldurgarri moztortzea eta aldi berean unibertala den heriotzaz hitz egiteko beldur izatea.

Bestalde, bertako ondarearen aldarrikapena egin eta Halloweenetik Gau Beltzara, Arimen Gauera, Sorgin Gauera... pasatzeko bidea egiten joan. Izan ere, "All Hallow's Eve" ospakizuna geurera iritsi baino lehen, antzeko ohiturak genituen Euskal Herrian eta nork berea mantentzeko saiakera egin behar dugula sustatu beharra dagoelako. Eta gure antzindarien oroimenaren garrantzia, geure sustraiak baloratu behar direlako. Hau da, garena garelako geure aurretik izan zirelako. Eta gertuko heriotza eman/ go denean, oinarritzkoa baita hildakoak oroitzea.

Beraz, Halloween ospatu? Bai, baina heriotzaz argi hitz eginez eta geure ospakizunetara pixkanaka hurbilduz.



Errua... zuentzat. Basur- tuko gertakarien hari- ra...

Nakia Alkorta

Kezka eta amorruek zeharkatu nau gaur goizean Basurtun gertatu dena irakurri dudanean. Ezin izan dut ekidin lehen erditze ostearen zuloan nengoela Donostiako Ospitalean antzeko gertakari bat eman zenean sentitu nuen beldurraz. Ezin imajinatu familia horien mina. Doakiela besarkada handi bat haurra eramateko saiakerak egin dituen beste familiei eta bstez ere, euren haurraren desagertzea bizi izan dutenei.

Sistemak huts egin du. Ziurrenik ez dugu inoiz jakingo baliabide pertsonalen egiturazko gabezia izan den, segurtasun protokoloaren hutsunea izan den edo zer gertatu den benetan... baina sistemak huts egin du. Osasuna bermatzeaz gain “bikaintasunaz” hitz egiten duen sistemak segurtasuna bermatzeko derrigortasuna du.

Ez da aukerarik egon behar edonork, edozein paziente bertatik ateratzeko. Eta noski, hau ez da konpontzen segurtasun pribatuko langileak areagotuz. Hausnarketa sakona eta baliabideak behar dira.

Haserrea areagotu zait sare sozialetan eta prentsan behin eta berriro ikusi ditudan mezuekin: “familiak jakin behar du probak gelan eta familiaren presentzian egiten direla”.

Ez horixe! Familiak ez du INOLAKO ardurarik. Ezjakintzat jotzera heldu denik ere ikusi dut... Familiak konfidantzaz jokatu du osasun zentro batean osasun profesionaltzat aurkeztu den pertsona batekin. Ez al da hori behin eta berriro eskatzen zaiguna?

Benetan gure osasun zentroetan INOIZ ez da haurrik banatzen euren gurasoengandik? Protokoloz, maiz. Horixe salatzen dute familiek oso maiz. Osasun frogak egiteko haurra lasaiago egongo denaren aitzakian, ebakuntzen aurretik haurra lokartu aurretik (ikus Gorka Saituaren azken adierazpenak eta bizipena)... egunero banatzen dira haurrak askotariko egoeratan eta kexatzen garen gurasoek jasotzen ditugun



erantzunak iraingarriak dira.

Beraz ez, ez ausartu familiaren jokaera zalantzan jartzen. Ez dute inolako ardurarik.

Ekintzaz beraz, atzean egon daitezkeen arrazoiez etabar... osasun mentala zentroan jartzen dugunean hitz egin ahal izango dugu.

Bitartean, bihotzez espero dut familia zalantzan zuzenean edo zeharka jarri dutenek hausnarketa egin eta barkamena eskatzea. Eta batez ere, sistema izan dadila gai, sortu diren zauri sakon horiek tratatzeko bide egokiak eskaintzen.

Euskaraz motelagoa naiz gaztelaniaz baino, eta kito

Amelia Barquin

Ni bezalako euskaldunentzat, euskaraz bizitzea hautu politikoa da.

Ni bezalakoak diot, alegia, hobeto moldatzen direnak gaztelaniaz (edo frantsesez; edo arabieraz, errumanieraz...) euskaraz baino, euskaraz txukun moldatu arren. Eta hori beti hala izango dela susmatzen dutenak. Euskara nagusitan ikasi dugun erdal elebidunak gara.

Nire aldetik, beste erkidego batzuetatik etorritako gurasoen alaba naiz, langile etorkinentzat eraikitako auzo batean hazia, nerabezaroan euskara ikasten hasitakoa, aspaldidanik euskaraz bizitzen saiatzen dena ahal diren testuinguruetan, seme-alaba euskaldunen ama, euskara maite duena, eta bere ama hizkuntza ere maite duena. Ni bezalako -edo antzeko-asko daude, gaude.

Gaztelaraz hobeto moldatzen naiz, bai, eta azkarragoa naiz edo adimentsuagoa dirudit. Eta altura hauetan, jada konturatuta nago aurrerantzean ere hori horrela izango dela. Nire lehen hizkuntzan arinago ateratzen zaizkit ideiak, hitz hobeak aurkitzen ditut, graziosoagoa naiz, esaldi konplexuagoak egiten ditut, zuzenagoak, ñabartuagoak... Ordu kopuru kontua izango da, bizitzaren garai esanguratsu batean batez ere, haurtzaroan eta nerabezaroan hain zuzen (familia, lagunak, komikiak, literatura, telebista, produktu kulturalak...).

Etxetik euskaldunak direnek agian ez dute irudikatuko euskaraz bizi garen euskaldun batzuek zenbat errenuntzia txiki eta ertain egiten ditugun egunero gure hautu politikoari eusteko. Eta ez da ezer gertatzen, baina aizue, zera azaldu nahiko nuke: ni bezalako ugari, urte asko pasatu ondoren, behin aditz trinkoen eta aditz laguntzaileen iragana ikasita eta maiz erabilita, zuzentasun linguistikoaren antena uneoro jarrita izaten jarraitzen dugu. Euskaraz aritzean, begi-bazterra izaten dugu beti ergatibo eta komunztadurei begira besteak beste (gure lehen hizkuntzan bi begiak, osorik, edukian izango



genituzkeen bitartean, esan gabe doa). Eta, urduri jartzen garenean, eta bestela ere bai, ergatiboren batek ihes egiten digu, eta batzuetan berehala konturatzen gara gainera eta amorru apur bat ematen digu, eta orduan edukiarekin ba are gehiago despistatzen gara, alajaina. Oso urduri, berotuta edo hunkituta gaudenean, espazio kolektibo batean, agian nahiago izango dugu hitza ez hartzea, badaezpada ere, desastre lexiko-gramatikal publiko baten beldurrez. Eta txiste edo pasarte bat kontatzeko orduan, besteen arreta eta erreakzioa erakartzeko orduan, desabantailan sentitzen gara hein batean. Egoera komunikatiboak gure ama hizkuntzan aritzeko exijitzen digunean, poz txikia hartzen dugu, eta patxada apur bat ere bai, berehala atzean uzten duguna, euskaraz berriro aritzeko aukera ikusten dugunean.

Hori da gure egunerokotasuna, eta estres puntutxo hori beti gurekin eramateko ohituta gaude, gurea da, karioño eta guzti hartu diogu. Eta listo.

Hiru pentsamendu, hiru

Duela hilabete gutxi jardunaldi batean egon nintzen, non ni bezalako bi hizlari euskaldunek norberaren ekarpenaren hasieran azaldu zuten gaztelaniaz emango zutela hitzaldia, hobeto moldatzen zirelako eta dena eman nahi zutelako. Ulertuta eta ondo hartuta. Eta, aldi berean, erdal elebidunok (euskara etxean ikasita izan ala ez) horrela maiz jokatu bagenu, agurbenhur, asko garelako, euskaldunen artean gehienak garelako. Zera esango nuke: onar dezagun apur bat motelagoak izango garela eta aurrera.

Kezka daukat euskal elebidunen kopurua txikia delako. Seme-alabentzat izaera hori nahi izan dugu etxe askotan eta gure umeak horra eramateko ahalegina egin dugu. Agian ez dugu jakingo orain etxeko gazte horiek linguistikoki non dauden, baina itzuli nahi badute, badaukate nora itzuli. Zaindu dezagun, beraz, umeen 0-12 urte bitartea, itzultzeko lekua baita.

Agian ez dugu jakingo orain etxeko gazte horiek linguistikoki non dauden, baina itzuli nahi badute, badaukate nora itzuli. Zaindu dezagun, beraz, umeen 0-12 urte bitartea, itzultzeko lekua baita.

Amelia Barquin

Gaurko gazte batentzat azkarra izatea eta taldean bat etortzea lotuta dago ahoz erraz, bizkor eta eraginkortasunez adieraztearekin, nola ez. Eta kontua da, agian, gazte batzuek haien desabantaila arlo horretan erabaki politiko kontziente baten bidez soilik gainditu ahal izango dutela. Kontzientzi hori pizteko eta garatzeko aukerak jorratu ditzagun.

Amatasun feministekin

Nahia Alkorta

Emakume CIS, zuria, ez gazte ez zahar (36 urte), heterosexuala, 3 haurren ama, hilabete amaierara larri heldu baina goserik pasa behar ez duena, autonomo prekariora. Hori guztia eta askoz gehiago naiz. Pribilegioz betea eta zaurgarria.

Feminismoan hezia gurasoengandik eta amonarengandik. Txikitatik buruari buelta asko ematekoa eta sistemaren arrakalek sortzen dizkidaten zauriei batzuetan hazka eta besteetan miazka egiten dioten horietakoa. Ez dut ukatzen sistema heteropatriarkal zuri kapitalista batean jaio, hazi, emakume gisa sozializatu izan nintzela eta bertan bizi naizenik. Ez nago horretaz harro, geroz eta pisu handiagoa sortzen dit. Etengabeko kuestionamendu honetan eta zenbait teorien arabera egozentrismorantz lerratzen hasi beharko nukeen honetan, geroz eta gehiago zeharkatzen eta zauritzen naute sistema honen bazterretan geratzen diren arloek. Arrazismoak, aparofobiak, sexu eta genero arrakalak,

indarkeria ekonomikoak, lan arloko arrakalak, kalitazteko hezkuntza unibertsalak, justizia heteropatriarkalak, osasungintzak, helduzentrismoak, justizia zapaltzaile eta punitibistak, politika zapaltzaileak eta bestelakoek min ematen didate. Barne-barnean min. Eta eskertzen dut horien kontzientzia hartzeko gai izateko txikitatik egindako bidea, baina ze pisua/zama den maiz.

Akaso adin kontua izango da baina kontzientzia hori bereziki garatu dut nik amatasunaren bidez. Haziera eta hezkuntzaren arteko etengabeko kuestionamendu horretan, eta haurrengan jendarteak egiten duen ispiluaren bidez lehen normalizat jotzen nituen zenbait arlo orain bihotzean krask egiten didatenak bihurtu dira.

Feminismoari esker ikasi nuen gaztetatik nire gorputza nirea zela. Feminismoak eragindako ahalduntzeari esker harreman toxikoak identifikatu eta haietatik irtetea lortu nuen. Nire gorputza eta ongizate emozionala zentroan jartzea (edo saiatzea behintzat) eta plazeretik aritzea baimendu nion



gaztetan nire izateari besteek esango edo pentsatuko zutenaren gainetik. Harremanetan nire burua lotu eta askatzeko eskubidea nuela barneratu nuen kontzientzia feministari esker.

Aitortuko dut 13-14 urte nituela Alardearen aferaren inguruan ez nuela ulertzen emakumeen desfilatzeo nahi hori ez nintzelako desfile zalea oinarrian... 16-17rekin ordean argi ikusi nuen afera zein zen... emakume izatea eta erabakiak hartzeko gaitasuna izatea eta argi aldarrikatzea. Garai horretan egin nuen “katakarak” lehen aldiz. Ordura arte neska izateak sortu zizkidan traba askoren kontzientzia ez nuen erabat argia DBH hasieran gelakide nituen mutilen jazarpen “jolasez” gaindi. Orduan konturatu nintzen matxiruloak zirela. Orduan konturatu nintzen gauza askoz. Feminismoak ahalduntzeko gaitasuna eman zidan.

Etorri ziren hurrengo urteak, bizi aldaketa potoloak, krisi uneak eta harreman berriak. Mugak jartzeko eta harreman parekideak eta ekitatiboak sortzeko gai nintzela ikusi nuen.

Desberdintasunak desberdintasun ardurak banatuta eta gozatuz bizi nahi nuela. Bizitza bizigarria helburu argizat ezarri nuen. “Ez ezetz da” esparru guztietara eraman nuen.

Eta testuinguru horretan, errespetatua, maitatua, desiratua eta ahaldundua sentitzen nintzen une horretan (eta noski, ustezko egonkortasun ekonomiko batean) agertu zen ama izateko desira. Nik oroitzen dudanetik izan dut ama “gazte” izateko nahia -nire etxeko eredu zelako akaso, ez dut uste baina izan

liteke- baina desira sentitu nuenean beste dimentsio batean kokatu ninduen. Ordura arte ez nuen inolako esparrutan nahia eta desira desberdinak izan zitezkeenik ere uste... Desira hori bikotekidearekin partekatu eta berarentzat unea ez zela adierazi zidan. Hilabete batzuk geroago berrabiarazi zuen hark gaia. Prest nago, saiatuko gara? Hor abiatu genuen gurasotasuna. Eta hor abiatu zen amatasunaz, haurren beharrez, hazkuntzaz, heziketaz... informazioa bildu, aztertu, prozesatu, gorputzera jaitsi eta kanporatzeko bidea. Lehenengo argi-izpiak ete lehendabiziko itzal sakonak ere bai. Gurasotasun eredu askotarikoekin topo sakonago egitea. Ikerketa, esperientzia, praktika... desberdinak aztertzea eta nire tokia eraikitzeo lehen kuestionamenduei erantzuna ematen hastea.

Lehen erabakia, desira sakon hori haur biologiko bidez asetzen saiatzeko erabakia. Adopzioa eta harrera familien inguruan asko sakondu ostean barneratu eta ulertu nuene goera horietan subjektua eta zentroa egoera zehatz eta gogor batean dagoen haurrari familia bat ematea zela. Eta horretarako baliabide eta prestakuntza emozional handia behar zela. Nik ez nuen une horretan gure familia haur horiek behar dutena eskaintzeko prest ikusten. Ez zitzaidan iruditzen ama izateko desiratik egin nezakeenik bide hori. Nik haurrak izan nahi banituen ere, zentroa ez baitzen haurra une horretan. Nik ama izateko desioa nuen.

Lehen haurdunaldirako bidean, lehen sorpresak. Ez zen uste genuen bezain erraza izan. Hemen ohartu nintzen nerabezaro osoan zehar haurdun geratzeko beldurra, prebentzioaren ardura eta sexualitateaz gozatzeko limitazioei, informazioa falta izan zitzaiela. Nik ez nekien ezer ugalkortasunaz eta ziklikotasunaz. Nerabezaroan eta ostean “edozein unetan haurdun geratuko zara, kontuz!” mezuaren beldurrean bizi izan nintzen. Erronka berria aurrean; nire gorputza berrezagutu: zikloa, obulazioa... ulertu. Eta zein askatzailea eta zelako ahalduntzea sentitu nuen nire fase desberdinak ulertu eta onartzen ikasi ostean. Zenbat urte nire gorputzarekin eta emozio eztekin borrokan ejakintasun hutsagatik!

Lehen haurdunaldi aurrean egin nuen topo amatasun feministen mugimenduekin eta izugarrizko lasaitua sentitu nuen. Baziren emakume asko amatasunean ere gure eskubideen aldeko militantzian. Eta baziren beste esparru askotan entzun ez nituen aldarrikapenak ere. Amatasun erabakiak, ahaldunduak, feministak,

gozatuak... Eta hortxe jakin nuen ezagutzen ez nituen indarkeria batzuen berri beraiek mahai gainean jartzen zituztelako. Gurasoen alienazio sindromea, haurren instrumentalizazioa banaketetan, tutoretza kentzeak (eta hor ulertu nuen askoz sakonago harreraren konpromisoa), indarkeria obstetrikoa, indarkeria laborala amen kontra, karga mentala... Sorpresa! Amatasunean ere biziko nituen beste presio batzuk. Eta hauek ez zituzten aurrekoak desagerraraziko... alderantziz, diskriminazioaren festara batzera zetozen. Diskriminazio bikoitza emakumea eta ama izateagatik.

Amatasun gozatuak.

Horrek zeharkatu ninduen. Eta nire desirari dimentsio lurtarra eskaini zion. Nik ez nuenu lertzen zergatik sentitzen nuen desira... Ama sufrituaren, guztiaren kargu egin behar duenaren, prekarietatearen eta indarkeria matxistaren zentroetako bat zen amaren iruditeria ere banuelako barnean, eta hori, ez nuen nahi. Nahiz eta ez nintzen halako eszenatokian hazi, nik ere barneratua nuen irudi hori... Amatasun gozatuak. Hori nahi nuen. Ama izan nahi nuen, amatasunaz ere gozatu, amatasun ahaldundua bizi. Horretarako oinarriak etxe barruan zama partekatzea eta ekitatea ziren niretzat. Nik amatasunaz gozatu nahi nuen. Bilaketa horretan haurren beharren inguruan lanketa sakona egin nuen. Jaio berriak oinarrizko beharrak euren kabuz asetzeko gai ez diren pertsona guztiz dependienteak direla ulertu nuen. Garunaren garapena, garapen emozionala, garapen fisikoa, atxikimendua eta harremantzeko gaitasunak, errespetuz haztea, indarkeriarik gabe hezte... Pasio handia sortu zidan gaiak.

Amatasun gozatua nahi nuen eta nire gorputza berrezagutu. Haurraren eta nire beharrak identifikatzeko gai izan nahi nuen eta haurdun geratu aurretik ere banekin bakarrik ezin izango nuela. Lanen banaketa ekitatiboa eta gozatzea helburutzat jarri nuen; mugak ezarri nituen. Haurdun geratu nintzen.

Tamalez, indarkeria obstetrikoren biktima izan nintzen eta ia erabat suntsitu ninduten. Eta feminismoak salbatu zidan bizitza. Amatasunei loturiko sare feministetan sostengatu ninduten gertatutakoa ulertu eta 10 urte iraun duen prozesu judiziala abiatzeko. Justizia heteropatriarkalak berriro ni suntsitzeko saiakera egin zuenean euren babesak ekidin zuen kolpea. Amatasunei loturiko feministak egon ziren aldamenean, beraiek bideratu ninduten

behar nituen tratamendu fisiko eta psikiatrikoetara. Beraiei esker (ere) nago gaur hemen, figuratiboki eta literalki. Beraiek aurrez egin zuten bideari esker lortu nuen nire gorputzarekin bakeak egitea, erruduntasun sentimenduak urruntzea eta haurrarekin bakeak egitea. Bularrak bor-borka izateak eta haurrarekin azala azalarekin egoteak atera gintuen biok zulotik. Gorputzetik aritzeak lagundu zidan niri zulotik ateratzeari amatasunaz gozatzeko espazioak izaten eta egunero zirrikitu horiek sortzen saiatzen.

Ezinezkoa zatekeen bikotekide eta etxekoan laguntzarik gabe. Pertsona erabat dependientea bihurtu nintzen haurra jaiotzearekin batera. Fisikoki eta psikologikoki lehertuta utzi ninduen indarkeria esperientzia gogor horretatik atera banintzen (zauriek min ematen dute oraindik maiz), feminismoa eta nire tribuari esker izan zen. Ezertaz ezagutzen ez ninduen tribuak heldu ninduen. Sororitatea parez pare ezagutu nuen, sororitatea gorpuztu zitzaidan aurrean.

Ordutik jarraitu dut kuestionamendu etengabea amatasun feministen inguruan... Ehundaka emakume+amekin hitz egin dut gaiaz, ikusi ditut euren eguneroko praktikak... eta (ia) denetan faktore amankomuneko bat topatu dut: prekaritatea. Amak ez gaitu amatasunak itotzen, sistemak itotzen gaitu. Hori dugu amankomunean denek. Ez dugu nahikoa denborarik kapitalismoak itotzen gaituelako. Desberdintzen gaituzten askotariko praktikak ditugu egunerokoan eta batzuentzat titia ematea askatzailea den bitartean besteentzat biberoia da askatzailea. Eta zoragarria da hori. Une honetan erabaki dezakegulako nola izan ama. Egin ezin duguna da kapitalismotik ihes egin, itotzen gaituen soka hori lepotik kendu.

Ez dut urte hauetan ezagutu amarik esentzialismoa helburu duenik. Bat bera ere ez. Ezagutu ditudan ama guztiek, hazteko eta bizitzeko moduaz gaindi, eskubide eta baliabide falta adierazi didate. Parekidetasun eta ekitate falta. Haurrarentzat eta amarentzat bereziki zaurgarriak diren uneetan bakardadea eta presio izugarriak sentitzen dituzte, ditugu. Babesa behar dugunean jasotzen dugu etengabeko epaia.

Etxetik ihesean atera nahi dutenak edo lanera bueltatu beharrak gaixotzen dituztenak. Denetariko amak. Anbibalentzia etengabea gehienak. Euren gorputzaren alderdi berriak ezagutzearekin batera lotsa eta beldurra ere sentitzen dutenak 70-80ko hamarkadetako psikoanalista misoginoek esandako

astakerien zama gainean somatzen dutelako. Titia emateak plazera sor dezakeela entzun eta pederasta bazina bezala begiratzen dizuten pertsonak. Erditzea sexualitatearen parte dela eta masturbazioak edo sexu harremanek izugarri lagun dezaketela esatean nazka aurpegia jartzen dizuten pertsonak. Haurdunaldian zehar inoizko orgasmorik sakonenak sentitu dituzula esatean gaiz aldatzen dizuten pertsonak. Bularra ez emateagatik ama txarra zarela esaten dizutenak. Urteetan gauzez etxean geratzea erabakitzeagatik lagunek baztertzen dituzten pertsonak. Parranda egiteagatik ama txarra zarela leporatzen dizuten pertsonak... Ama zarenean egiten duzuna egiten duzula ere, gaizki ari zarela esateko librea dela uste duen jendartean bizi gara. Eta hortik feminismoak ateratzen gaitu. Feminismoak erakusten digu erabakitzeke gai garela, gure gorputzen jabe garela eta albokoa epaitzeko zilegitasunik ez dugula. Amatasun feministen praktikak askotarikoak dira. Eta eskerrak. Bazterretan geratzen dira praktika horiek tamalez. Bazterretatik saiatzen gara ahotsa altxatzen eta sistema arrakalatzen. Bazterretan geratzen dira gure aldarriak guk eta guretzat espezifikoak sortu ez ditugun espazioetatik at. Ghettoetan geratzen gara.

Hegemoniari interesatzen zaizkio amen arteko gerrak; gure artean eztabaidan ari garen bitartean ez diogu-eta minik egingo sistemari. Eta hegemoniak hori sustatzen duen bitartean denonak behar zuketen espazioetan ere deseroso sentitzera heldu gaitezke. Deseroso gaude seguruak behar duten espazioetan. Pasa den asteburuan burutu dira Emaginen eskutik (ez) amatasunen inguruko jardunaldiak Donostian. Azken topaketa feministetan amatasunek presentziarik izan ezaren kritika eta eskakizunari



etsiz erronka eta apustu ausartari heldu diote: gaiaz hitz egiteko batuko gara. Bi eguneko egitarauan ertz guztiak ukitzea ezinezkoa zela adieraziz egin da jardunaldien zabalkundea; zalantzarik gabe meloi asko biltzen dituen zelaia da eta.

Aitortuko dut jardunaldi aurreko asteak oso gogorrak izan direla niretzat. Ez dira gutxi izan jardunaldien inguruan kezka adieraziz nirekin harremanetan jarri diren emakumeak. Programan hutsune handiak zeudela, izango zuen ildoaz kezka... Gehienak ibilbide feminista argia eta amatasunaren gaiak publikoki zein esparru pribatuan lanketa oso interesgarriak eta esanguratsuak eginak dituztenak... Badira zuzenean ez joateko hautua egin dutenak. Beste batzuek aldiz azken unera arte erabakia ezin hartu sentitu dute euren burua. Eta beste zenbaitek, beldurra eta urduritasun handiarekin joateko hautua egin dute, dugu.

Aitortuko dut aste osoa pasa dudala nire buruarekin haserre beldurra sentitzeagatik eta ezin izan dudala jardunaldi guztian bertan egon, beraz badaudela entzun ezin izan ditudan zenbait eztabaida eta esparru. Jardunaldiaren hasieran, kritikak dena bukatu ostean egiteko atea zabaltzeko zenez, hemen nire bizipena, elkarrekin ez ama eta amak barne hartuko dituen Euskal Herri feminista sortzen jarraitzeko asmo argiaz.

Ez nuke hasi nahi eskerrak eman gabe. Zalantzarik gabe honen antolaketaren atzean konpromisoa eta ausardia handia dago eta beharrezkoa zen. Mila esker atzeko lanetan aritu zareten guztioi eta aurpegia eta gorputza jartzea egokitu zaizuenoi; jardunaldi hauek abiapuntua izan daitezela zuek adierazi gisan. Asko ikasi dut, izugarri, eta datozen hilabeteetan etxean lantzeko hari mutur asko koadernoan jasota itzuli naiz.

Egitarauaren antolaketa ez zen erraza izango eta lanketa interesgarria somatzen da. Interesgarria eta eskertzekoa egin zait teoriak, esperientziak eta kultur adierazpenen arteko dantza. Emozio zurrunbiloak baretzeko espazioak eta emozioek zeharkatzekoak uztartuta... lortzea zaila den oreka zuen egitarauak. Aurrez esan bezala ezin izan dut guztia jarraitu eta ostiralean goizeko atsedeenaren osteko dokumental eta erakusketan ezin izan nintzen izan. Arratsaldeko saioez gozatu ostean larunbateko goizeko atsedeen ostekoetan egotarik ez dudala izan adierazi nahi dut. Beraz, akaso hemen esandako batzuen erantzunak

tarte horietan garatu ziren.

“Pertsonala politikoa da” batekin hasi ziren jardunaldiak eta larunbat goizean “pertsonala EZ da politikoa” batekin egin nuen topo oholtzatik. Gaiak sortzen dituen anibalentziak mahai gaineratzeko moduko kontraesana iruditu zait.

Gustura irakurri ditut prentsako kronikak eta bereziki gustatu zait larunbateko lantaldeetako korapiloen lanketan Berriak egin duen kronika. Korapilo potoloen inguruan egin ziren hausnarketa eta proposamenak oso interesgarriak iruditzen zaizkit.

Lanketa oso interesgarriak garatu dira eredu hegemonikoak deserosotasuna sortzen digunaren bueltan. Prekarietatea, krisi anitzak, presioak eta egoera global heterokapitalista zuria jomugan. Ez dago zalantzarik, etsai komuna dugu.

Zorionez eta bereziki mugimendu feministaren hamarkadetako lanari esker eta kontrazepzio aukera zein abortu aukerei esker gaur egun amatasuna hautatua izan daiteke. Presio sozialak eta desiraren eraikuntza motoreak sisteman kokatzen dira eta hautua egin badaiteke ere, ez-amatasunaren erabakiak estigma suposatzen du gaur egun ere. Arlo honetan ama izatearen hautu askea ere zenbait esparrutan estigma baztertzailerak bihurtzen dela adierazi nahiko nuke. Haurrekin kontzienteki zein halabeharrez denetariko espazioak okupatzea erabakitzen dugun ama askok bizi izan dugulako begirada zorrotzen pisua, iruzkin desatseginen bat... erakunde publiko zein pribatuetan eta tamalez, batzuetan segurutzat jotzen ditugun esparruetan ere.

Larunbat goizeko saioan bi urteko haurrarekin zegoen ama bat izan nuen alboan eta hark adierazi zidan asmo onez zaintza gunearen aukeran nahikotxo insistitu zitzaizkila eta begirada deserosoak somatzen zituela jardunaldian bertan. Zalantzarik ez dut asmo onez eginiko eskaintzak izan zirela antolakuntzaren eskutik. Begiradek asko kezkatzen naute ordea. Kezkatzen naute egunero bizi dugulako askok. Instituzionalizazio goiztiarrean sinisten ez dugunok eta bi urtetik gorako adina duten haurrekin “eskola ordutan” bizitza publikoa egiten dugunok etengabe azaldu behar dugu ez direla eskolara joaten; etengabe justifikatu behar dugu gure erabakia.

Horren adierazgarri bi egoera bizi izan ziren jardunaldietan. Ostiral goizean ume txiki dexente

ikusi genituen eta poz handia hartu nuen. Poza gutxituz joan zen ama horietako gehienek areto kanpoan pasilloan amaitu zutela ikustean. Hor badugu arazo bat, hemegoniaren ezaugarri den jendarte helduzentristaren parte gara sarritan, gure buruak kuestionatu gabe. Askok ospatu zuten sareetan eta jardunaldien informazioaren zabalkundean haurrekin joatea aukera bat zela argi adieraztea. Ni kezkatu ninduen, egia esan. Ez genuke baimenik behar haurrekin espazioak okupatzeko. Baimena behar izateak oraindik ahalduz eta amatasun askeetatik apur bat urrun egon gaitezkeen susmoa areagotzen dit barren-barrenean.

Ez dut zalantzan jartzen batzuk deseroso sentituko direnik haurrak inguruan “zarata” egiten ari direnean... baina jardunaldietan zeuden pertsona nagusiek duten eskubide ber-bera eta ez kuestionatzea merezi dute haiek baino 60 urte gazteagoak diren pertsonen ere. Honen harira, espazioaren antolamenduari dagokionez uste dut ez zela egokiena izan. Haurrak ongi etorriak direla esateak eurentzat espazio egokia izatea ere ziurtatu behar du (zaintza externalizatuaren guneaz gaindi). Datozen ekitaldietan kontuan izateko gakoetako bat izan daitekeela uste dut. Espazioak bermatu behar du, “bazerretan” bada ere, umeak eta zaintzan daudenak mugitu eta egon ahal izateko espazio zabal eta goxo bat. Prisman burutu ziren ekintzetan zegoen txokotxoak hori apur bat errazten zuen adibidez. Izugarritzko plazera izan zen niretzat bereziki “(ez) amatasuna ez da irla bat” bizipenen partekatzeko unea. Askotariko esperientzia eta praktikak, presioak, indarkeriak eta sistemaren pisuaren aurpegi desberdinak bata bestearen atzetik entzun ahal izatea gogorra eta oso aberasgarria izan zen. Eskertu nahi dut aniztasun hori adierazteko apustua eta esfortzua. Bertsolariek desiratutako artxipelagoaren ametsarekin geratu nahi nuke.

Amatasuna eraikuntza patriarkala eta amatasun desira neoliberalismoak eraikitakoa dela luze-zabal hitz egin zen. Amatasuna deseraiki eta ama idealaren ideia inguruan jira-biraka, ikuspegi maternofobikoaren ertzetan une askotan, edo hala sentitu nuen nik behintzat. Faltan bota nuen amatasunEZ hitz egitea, pluralean... apenas entzun zen halakorik oholtzatik. Amatasunak askotarikoak dira eta askok ez diete erantzuten kristautasunak bereganatu eta sustatu zituen mandatuak (sufritua, etxeko ama-etxeko andre, sumisoa...). Amatasun feministez ez zen apenas hitz egin. Amatasuna eta feminismoa kontrajarritu sentitu



nituen une batzuetan.

Gure inguruan gainditutzat jotzen nituen zenbait mezu errepikatu zirenean sorpresa eta tristura sentitu nuen. Nik ikusten dudana amatasun feministen praktikan desira ez da izan patriarkala, alderantziz, barne eztabaida eta lanketa sakonen ostean askatasun eta arduraz harturiko erabakiari lotu zaio desira hori. Ez dut “bakardadearen aurkako txerto” gisa ama izatea erabaki duenik ezagutu inoiz...

Zalantzarik gabe familia eta zaintza ereduen deszentralizazioa eta birpentsatzea gako garrantzitsuak dira. Tribuak, zaintza sareak... behar ditugu. Amok, ama ez izatea erabaki dutenek, erabakiaren dantzan dabilzanek eta nahi arren ezin izan dutenek ama izan.

Binkulogramaren kontzeptua izugarri interesgarria iruditzen zait arlo honetan.

Kolektiboki irauli behar dugu prekariedade gordinera kondentzen gaituen sistema. Baina ezin dugu desira sentitzen duten pertsonen errealitatea ukatu, denak ez badira ere, batzuk badirelako eta hauen ukatzeak bazterrera bidaltzen dituelako. Ezin dugu bizigarria ez den sistema honen arrakalatzeko amatasunaren desnaturalizazioan soilik zentratu.

Gustatu edo ez, pertsonak umetokietan sortzen dira eta hori deseraiki nahi izateak merkatu oso arriskutsurako bideak zabaltzen ditu. Hor badugu beste etsai amankomun bat, ugalketa sistemaren merkantilizazio bortitza. Obodonazioaren inguruko hitzartzeak pista batzuk eman zituen eta horren

inguruan dagoen kaka, mokordo oso handia da.

Feminismoak gorputzen ezagutzan, fisiologian eta ugalketan lanketa sakona egin behar duela sentitzen dut nik. Aniztasunetik eta zentzurik zabalean baina gorputza ere bagarela kontuan izanik (eta noski, hemen askotariko orientazio, sexualitate, ez binarismoa, transexualitatea... barne hartuta). Kontrazepzio autogestionatua eta ez medikalizatua erraztu eta amatasuna/ez amatasuna erabakitzeko aukera errealak zein diren sakonago ezagutu, merkatuaren tranpetan ez erortzeko eta bide horretan emakume gazteagoak edo prekarioagoak engainu eta/edo desinformazio bidezko ugalketa merkatura ez bultzatzeko.

Maitasun eta edertasun handiz entzun genuen “oraindik ez eta honezkero ez” hori informazio eta erabaki asketik etor dadin benetan.

Parean elkarreak azaldu zuen argi beraien ikerketaren arabera amak sistemak itotzen dituela. Estitxu Fernandez eta Erika Lagomak ere sistemaren azpisistema asko eta oso garrantzitsuak aipatu zituzten eta June Fernandezek amatasun transmaribibolloetan sortzen diren talkak amatasun heteronormatiboen oso antzekoak zirela azaldu zigun. Amekin eta askotariko amatasunekin elkarriketa eta interakzio zuzena izan duten hiru agente hauek hitzartzeak oso denbora gutxian eta era itogarrian egin behar izan zituzten euren ekarpenak. Niretzat, eta berriro espazioari erreparatuz, oso-oso adierazgarria izan zen larunbateko lehen mahai-inguruko hizlariak euren aulkia, mikro eroso eta kristalezko basoa izatea eta bigarren txandakoek eskuko mikroa eta publikotik hitz egiteko gonbitea jaso izana.

Beldurtu ninduen, asko, haurrak ekoizteaz hitz egiten entzuteak. Bizitzen merkantilizazio gordina, erabat materiala; erabat kapitalista. Ez dut uste asko okertuko naizenik ama garen gehienoi haurrak ekoitzi ditugula entzuteak min ematen digula esatean. Gehienok ez ditugu umeak izaten produkzioak jarrai dezan, gure jubilazioak ordain ditzaten edo zahartzen edo gaixotzen garenean zaindu gaitzaten. Hori ikuspegi erabat neoliberala eta kapitalista da (eta sinplista ere bai). Amatasun feministen helburua ez da kapitalismoari jaten ematea. Kapitalismoa ito nahiko genuke hark gu itotzen gaituen bezala (edo gehixeago). Alderantziz egiten saiatzen garela esango nuke. Gure egunerokoan haur askeak, kritikoak, feministak... hezten saiatzen gara, eta eguneroko

erronka da hori. Etengabeko kuestionamendua. Kontraesanetan erortzen gara etengabe eta ispilu oso deserosoetan begiratzen diegu gure kontraesanei egunero-egunero.

AMATASUNAREN (hetero, kristau, zuri, arrazista, pribilegiatuaren) abolizioaren bidean topo egingo dugu ez bairik gabe. Baina amatasun feministak daudela, egunero sistema arrakalatzen duten ehundaka ama daudela onartzen ez badugu, galduta gaude.

Amatasunak hautatua, desiratua eta gozatua izan behar du edo ez da izango.

Hezkuntza afektiboa

Koldo Giban

Hezkuntzan beti gizarteari begira ibiltzen gara, gure helburuak zehazterako orduan testuinguruan konpentsatu beharreko alderdiak jomuga hartzen ditugularik. Egungo gizartean hainbat fenomenotan hoztasun afektiboa nagusitzen ari da eta horrekin batera, gizakion berezko gaitasun bat, maitatzeko gaitasuna alegia, kolokan dago.

Itsasontzibatean norabideamarkatzerakoan, inguruko haize eta korronteen eragina kontutan hartu behar dugu, beroriek konpentsatu eta norabidea zuzena izan dadin. Azken garaietako haize globalizatuak gure harremanetatik afektibitatea baztertu dute, eta, konturatu gabe, testuinguru horretan ari dira heziak izaten gure haur eta nerabeak.

Hezkuntza formalean hezkuntza afektibo sexualaz hitz egin beharrean, maiz hezkuntza sexualaz hitz egiten dugu. Teknikoki zuzena izan daiteke afektibo alderdia ez aipatzea. Izan ere, sexualitateak gure izaki sexuatuak izateko modua bere osotasunean barne hartzen du, baita afektuak nola bizi ditugun ere. Baina alderdi afektiboarekiko diskriminazioa ere izan daiteke.

Ilido berean bizi dute nerabeek kontua. Duela pare bat urte gure ikastolan hezkuntza afektibo-sexuala 3.DBH-n lantzeko eskakizuna jaso genuen ikasleen partetik. Eskaera horri erantzuteko sexologo batekin harremanetan jarri eta ikasleei haien zalantzak idatziz helaraztea eskatu genien, sexologoak saioak orientatu ahal izateko. Galdera gehienak genitaletan zentratutako jokaera sexualen ingurukoak ziren, koitoaz aparte bestelako erotismorik egongo ez balitz bezala.

Gaur egun, ere, pertsonak ezagutu eta harremanak hasteko modua zita aplikazioak dira (Tinder, meetic...). Hau gure afinitateko jendea azkarrago aukeratu eta ezagutzeko modua izan zitekeen, ondoren afektuak agertu eta harreman horien oinarria izango liratekeelarik. Baina erabiltzaileen bizipena erabat ezberdina da: erakusleihoan lirain agertu aukeratuak izateko, besteen erakusleihoetan kontsumitu nahi duguna aukeratu eta maiz, lehenengo elkar ezagutze



hori eta gero, agur benur. Ez diegu afektuei agertzen uzten; bestelako afektuen beldur.

Hau da, gure harremanetan desira sexuala eta orgasmoa dira gida nagusiak. Bestelako afektuak, esate baterako gozotasuna, elkar ezagutzea, intimitatea, atsegin izatea, miresmena, konpromisoa edo konplizitatea ez dira garrantzitsuak.

Noski, hau dena bat dator gure nerabeen hezkuntza sexual iturri nagusia pornoa izatearekin. Duela hilabete batzuetako Jone Zalduegiren kolaborazioan ikusi genuen bezala, pornoari esposizioa oso goiztiarra da. Eta jakina da pornoan agertzen diren harremanen nondik norakoak: sexualitate falozentrikoa, emakumea dominatua eta afektuen adierazpenik gabeko gimnasia eta kontorsionismo ariketa mekanikoak.

Testuinguru honetan hezitako umeek familien gida behar dute. Ezin da gertatu, tamalez maiz gertatzen den bezala, 11 urteko mutiko batek esatea gurasoekin ez duela inoiz sexuaz hitz egin edo ez dituela inoiz bere gurasoak biluzik ikusten. Sexua eta bere afektuak hizpide eta eredu izan behar dira familian.

Efigenio Amezua sexologoak zioen bezala, sexualitatearekiko jarrera ezberdinak izan ditzakegu. Aurreko belaunaldietan sexualitatea debekatzearen aldeko jarrerak ziren nagusi (zerbait txarra da, ezkutatu beharrekoa). Ondoren, askatasun sexualaren aldarrikapenen bidez, permisibitate jarrerak nagusitu ziren. Baina aipatutako sexologoak dioen bezala, hori ez da nahiko gure sexualitatea benetan modu aske eta aberasgarrian bizi ahal izateko. Azken finean, zerbait baimentzen dugula esaten dugunean, oraindik

debekatuta dagoenaren sinismena hor dago (ezin da baimendu debekatuta ez dagoena).

Sexualitatea modu aske eta aberasgarrian bizi ahal izateko berarekiko ereitearen jarrera garatu beharko dugu. Hau da, sexualitatea ez da debekatu edo baimendu egiten den zerbait, baizik eta landu daitekeen zerbait.

Hortik abiatuta norberak bere seme-alabekin partekatu ahal izango du lanketa hori eta egunerokotasunean ematen diren hamaika egoerak baliatu: emozio eta sentimendu ezberdinei buruz hitz egin, maitasuna modu irekian adierazi, ezetzaren eskubidea zerbaitetarako gogoaz ez dudanean, laztanak eman eta eskatu, aniztasunarekiko errespetua...

Familiak ezin du alderdi hau eskolan delegatu. Jarrera horiek denon artean eta txikitatik erein behar dira gure gizartearen haize eta korronte merkantilista/mugatzaile horiek konpentsatzeko. Muxu handi bana, irakurle maiteak!!

Ortodontzia-tratamenduak eta elikadura-arazoak

Itziar Mendizabal

Pandemia aurretik urte asko lanean daramatzan ortodontista batekin hitz egiten egon nintzen. Larrituta zegoen, batez ere, neska nerabeen artean, ortodontzia-tratamendua hastean, anorexia kasu asko garatzen zirela ohartu zelako. Nerabe hauekin lanean hasi eta tratamendua bukatzerako, ehuneko kopuru batek gaixotasuna aurreratua zeukala ikusten zuen. Azpimarratzekoa da ortodontzia-tratamendua, oro har, lehen haurtzaroan edo nerabezaroan hasten dela, eta garai horretan elikadura-ohiturak aldatzeko joera izaten dela.

Neure kasuan ere, aparatua jarri eta handik gutxira hasi nintzen jateari uzten. Honekin ez dut esan nahi ortodontzia batek elikadura nahaste batera garamatzanik, ezta gutxiago ere. Baina kontuan izan behar dugun gauza bat dela garbi daukat, aparatua aitzakiarekin, mina ematen duela eta, gutxiago jatea errazagoa izaten dela. Gauza batzuk jatea ezinezkoa denez, horiek jateari uzteak askotan ez du gaixotasunaren prozesuan laguntzen.

Elikadura nahaste bat garatzen hasi den pertsona batek hainbat alerta egoera sor dakizkiguke. Portaeran aldaketak, egiten dituen komentarioak, jateko ohitura bereziak... guraso bezala adi bagaude ere, zaila izaten da askotan aldaketa hauetaz ohartzea, eta konturatzerako gure seme edo alaba guk pentsatzen dugun baino larriago dago. Horregatik, ortodontzia baten aurrean, aitzakia bezala erabili dezakeen egoera bat izanik, ez dugu inoiz guardia jaitsi behar.

Ama batek zionez, bere alabari ortodontzia jarri ziotenean, elikagaiak mokadu txikiagoetan moztan hasi zen, mastekatzea errazteko, eta elikagai gogorrak ere saihestu zituen aparatuaekin lotutako mina arintzeko. Ortodontzia-tratamenduaren lehen hilabeteetan, mina eta ondoeza eragiten zioten jatean, eta alabak murtzikatzeko eta kosk egiteko beldurra garatu zuen. Eskolako bazkariak alde batera uzten hasi zen eta pixkanaka etxean ere oso gutxi jaten hasi zen. Urtebeteren ondoren, nahiz eta aparatuaekin lotutako mina gutxitu egin zen, nerabeak elikagaiak



murritzten jarraitu zuen, huts-sentsazioa gustatzen zitzaiolako. Bere elikadura-portaera hortz-aparatuek eragindako deserosotasunari egotzi zionez, gurasoek uste izan zuten bere elikadura-patroi murritztaileak ahoko minarekin lotuta zeudela. Eta konturatzerako alabak elikadura-nahastea garatua zeukan, hain garatua, tratamendua hasi zuenetik ia 15 kilo jaitsi zituela.

Mina ematen badio, min hau errespetatu behar dugu, baina poliki-poliki indartuko eta elikatuko duten elikagaiak eskaini beharko dizkiogu; hasieran pure moduan izan daiteke, bertan edozein motatako elikagaiak sar ditzakegu eta: lekaleak, zerealak, haragia, arraina... Nahastearekin hasita badago, garrantzitsua da pixua ez galtzea, galtzen hasten den momentuan konturatuko baita ahoko aparatua ondo datorkiola bere helburua lortzeko (hau esperientziaz diot). Behin minik ez duenean, beste elikagai mota batzuk sartu ahalko ditugu, beti ere ortodontistak baimendutakoak, ez oso gogorrak... askotariko elikadura izan behar da, denetik jan behar du. Txuleta edo bokata bat ezingo ditu jan, baina bai gauza biguinago eta mantenugaietan aberatsak.

Nerabezaroa etapa zaila bada, ez dezagun oraindik eta zailagoa egin. Guraso bezala hor egon behar dugu, beti bezala, kontentzio lanak egiten. Inork ez zuen esan hau erraza izango zenik...

Opariak

Idoia Larranaga

Gabonak gerturatzen dabiltzan hontan, pil-pilean dagoen gai baten, oparien, inguruko hausnarketak plazaratu nahiko nituzke.

Lehena eta garrantzitsuena iruditzen zaidana: opariak (material zein ez materialek) haurren hezkuntzan zuzenean eragiten dute. Eta horrenbestez, haurren tutoreekin adostutakoak soilik eskaini beharko liratekeela aldarrikatzen dut. Zergatik? Familia bakoitzak jokatzeko, egiteko, bizitzeko...modu ezberdinak dituelako eta horretan eragin ahalik eta positiboena egiteko.

Badakit opari bat egin aurretik hausnarketa bat egiten dela, eta norberarentzat egokia den hori oparitzen dela (edo hala beharko luke); baina, hala ere, ez dakigu etxe horretako dinamikan material horrek kabidarik duen. Izan daiteke materialagatik – haurrak dena ahoan sartzeko joera badu, material toxikoak ekiditeko saiakera egin dezake familiak adb. edota plastikoa ekiditeko joera izan...-, transmititu dezakeen balore batengatik – ez soilik genero rolei begira, izan daiteke agresibitatea, arrazakeria...-, antzeko gauzen kopuruagatik –jolas asko izaten baitituzte askotan eta antzekoak– ,haurraren momentu bitalagatik edota jostailuak eskatzen duen rolagatik –batzuk haurraren parte hartzea, sormena, gaitasun desberdinak aktibatzen dituzte eta beste batzuk aldiz, haurrak pasibo mantentzen dituzte...– opari hori egokia ez izatea eta negatiboki eragitea. Familia egitura bakoitzak hausnartu beharko luke, momentua aztertuz, zer nolako opariak jaso nahiko lituzten (edota oparirik jaso nahi duen edo ez) eta inguruak erabaki hau errespetatu beharko luke.

Horretaz gain, jasoko duten opari kopurua ere neurtzeko beharra azpimarratu nahi dut. Gehiegi jasotzen dituzte askotan eta ez dute bakoitza zukutzeko denborarik izaten. Gabonak eta urtebetetze egunak... kantitatetan galtzen dira eta haurrek zabaltzen jarraitzeko antsietatez bizi dituzte, askotan barruan dagoenari erreparatzeko tartea hartu gabe. Horregatik, taldeko opariak egiteko aukera dagoela gogorarazi nahi dut, askotan elkarrekiko konpetentzia une izaten den hori ekidin eta aurrez elkartu eta arestian esan bezala tutoreekin adostutako



taldeko oparia egitea.

Bi sasoi hauek nahikoa ez eta beste hainbatetan egiten dizkiegu opariak:

Bisitan joatean. Zein da bisitaren helburua? Niretzat presentziaz gozatzea da, eta hau opari batekin egiten denean, ohitura bihurtzean, haurrak bisita opari batekin lotuko du eta jasotzean jolasean hasiko da, presentzia “galduz”. Ez bada, bisita osoa jolasaren bueltan murgiltzen behintzat.

Oporretatik bueltatzean. Ohitura oso zabaldua da oporretatik zerbait eramate hori (askotan lekuarekin loturarik ez duen edozer izaten da gainera). Aurreko baten herriko denda baten ikusi nuen emakume bat bidaian erosi ezin izan zituen opariak erosten, imaginatu bere ezinegona! Ez al da hobe bidaiaz hitz egin eta elkartzeaz gozatzea?

Laburbilduz, haurrak uneoro opariz betetzeko joera daukagu, askotan beraien onspena horrela bilatuz. Ez al da hobe gure presentzia eskaintzea? Eta hauen hezkuntzan duten eragina kontuan izanik, opariak egiterako orduan haurren tutoreekin adostutakoak izatea? Hala ez izatekotan, heldu hauei izugarritzko konpromisoan jartzen diegu: haurrari opari berria kendu eta egoera azaldu (+ kasketa jasan) edota nahi ez duten hori onartu eta euren hezkuntza oinarriak zapaltzen ikustearen artean erabakitzen.

Zaindu gaitezen elkar, elkar “erosten” saiatu gabe.

Euskal Herria ikastegia Herria Haurren Hezit- zaile

Gorka Torre

Zer da haurren heziketa?

Haurren heziketa, helduek haurrei balioak, jakitateak eta gaitasunak helaraztea (transmititzea) da, giza taldeko kideak bilaka ditena.

Eskolaren izaera historikoa

Historikoki, eskola, ez da haurren egiazko heziketa beharrei erantzuteko sortu eta garatu, baizik eta elizaren, Estatuaren eta kapitalismoaren beharrei erantzuteko.

Euskaldunon haur ikastegiak

Euskaldunon haur ikastegiei, hau da nagusiki Ikastolei, eskolak diren neurrian, beren izaeran eskolaren izaera historikoaren hainbat ezaugarri mantentzen dituzte, eta ondorioz ez diete haurren egiazko heziketa beharrei molde egokian erantzuten.

Adibidez, Ikastoletan, haurrei helarazten dizkiegun balio, jakitate eta gaitasun gehienak ez ditugu gurasook hautatzen, baizik eta frantses eta espainiar Estatuaren agintariak.

Haurren heziketa gero eta gutxiago Estatuaren agintariei delegatu

Gure ustez funtsezkoa da gurasook eta haurren hurbileko helduok, gure haurren heziketa ahal bezain bat guhaurek egiteko ahaleginak egitea, eta horretarako, lehenik, zein diren gure haurrei helarazi nahi dizkiegun balio, jakitate eta gaitasunak hautatzea.

Haurrei helarazi nahi dizkiegun balio, jakitate eta gaitasunak

Guretzat, haurrei helarazi nahi dizkiegun balio, jakitate eta gaitasunak, herriBiltzaren Euskaldunon Elkarbizitzarako Herri Hitzarmenean oinarritzen dira, hau da, askatasunean, berdintasunean eta laguntasunean:

Euskaldunon elkarbizitza antolatzei, erabakitzaileak egiazki euskaldun guziok izatea, hau da, euskaldunon askatasuna bermatzea;



Bizitzeko behar ditugun gauzak (bizitegia, energia, elikagaiak, sendagaiak, garraiobideak...) eskuratzeko posibilitate berdina denek ukaitea, hau da, herritarren berdintasuna bermatzea, hemen eta munduan, eta ondorioz, langileen esplotaziorik ez izatea, baizik eta lankidetzazko eta elkar laguntzazko harreman ekonomikoak izatea;

Euskaldunon artean, eta euskaldunon eta erdaldunen artean, bortizkeriarik gabeko harremanak izatea, hots, laguntasuna izatea.

Herria haurren hezitzaile bilakatu

Haurren heziketa, beren inguruko haur helduagoek, adinekoek eta zaharrek elkarrekin bermatzea zentzuzkoena dela iruditzen zaigu, hots, berreraikitzei den hurbileko giza taldea, hau da herria, haurren hezitzailea izatei.

Haurrei zerbait helarazi ahal izatei, hau da, haurrek, helarazi nahi dieguna benetan berena egin dezaten, helarazi nahi diegun hori haurren hurbilekoek (haur helduagoek, gurasoek, gurasoen lagunek, inguruko jendeek...) egunerokotasunean bizi behar dugu.

Gauzak hola, funtsezkoak iruditzen zaizkigun balio, jakitate eta gaitasunak haurrei helarazteko, haurren hurbilekoek haurrekin egunerokotasunean bizi behar ditugu. Haurrak beraz, funtsezkoak iruditzen zaizkigun balio, jakitate eta gaitasunak haurrei helaraztea ahalbidetzen duten hamaika testuinguruetan helduekin harremanetan izan behar dira: etxean, landa eremuetan, tailerretan, liburutegietan...

Gure helburua beraz, haurren heziketa, beren

hurbilekook hautatutako mota ainitzetako praktika sozialetan oinarritzea da. Adibidez, gure bi balio garrantzitsu buruaskitasun ekonomikoa eta lankidetzazko lanekin, helduon lankidetzazko buruaskitasunerako jarduera ekonomikoetan esku hartzeko aukera eman behar diegu. Helduok, buruaskitasunerako jarduera ekonomikoak lankidetzan bizi behar ditugu, eta biziz haurrei helarazi.

Herri Hitzarmenean oinarrituko diren bizitegi eraikuntza, energia bilketa, elikagai ekoizpena, osagarrigintza, garraiobidegintza, irakurketa, idazketa, matematikak, kantua, bertsoaritza, dantza, ipuin kontaketa... haurren inguruko eguneroko praktika sozialak izan behar dira, helduok bizi behar ditugu, eta haurrek biziko eta ikasiko dituzte. Biziz ikasi. Horrela bizitzak eta ikasketak bat egiten dute, ez da bereizketarik, ez da separaziorik, batasuna baizik; horrela, heziketa ez da jarduera separatua.

Haur ikastegiak, lehenik, heldu gutxi batzuen ardurapean haur ainitz atxikitzeke tokiak dira. Horrek, adibidez, historikoki haurren gurasoen lan indarra lantegietan esplotatzeko aukera emaiten du. Bigarrenik, haur ikastegiak, jakitateak eta gaitasunak haurrei helarazteke tokiak dira, baina toki hauek, jakitate eta gaitasunak praktikan ezartzen diren toki nagusietatik kanpo dira. Haur ikastegietan beraz, heziketa bizi sozial nagusitik aparte den jarduera da, banandutakoa, bereizitakoa, instituzionalizatutakoa.

Herria bera haurren hezitzailea delarik, jakitateen eta gaitasunen helarazteke tokiak, jakitateen eta gaitasunen sortze eta praktikan ezartzeke tokiak dira ere, jakitateak eta gaitasunak gizarteko toki ezberdinetatik mota ainitzetako egoeretan azaleratzen dira, ezin dira monopolizatu; bakoitzak besteengandik ikasten du eta bakoitzak besteei ikasten laguntzen die, denen ezagutzak denen artean ezarriak dira, denek jakintzaren garapenean esku hartzen dugu.

Gure ustez beraz, heziketak ez luke erakasle edo bidelagun izendaturiko pertsonaiarik behar, hau da ez luke jakitateen eta gaitasunen helaraztean "aditua" den jenderik behar, ez eta ikasle izendaturiko haurrik ere. Gure iritziz, biziki onuragarria litzateke heziketaz ez egitea bereziki toki batean kokatzen den jarduera bat, biziki onuragarria litzateke haurrak ez behartzea hainbeste denbora Ikastolen hormen artean egotera; bai ordea, haurrei, hurbileko herritarren arteko harremanetan eta jardueretan etengabe murgildurik

egoteko parada ematea, sortzen diren unetik. Horregatik eta horretarako, EHi eraikitzen ari gira, Euskal Herria ikastegia.

Haurren ikaskuntza moldeak

Amak lehenik, baina baita ere aitak edota beste heldu batzuek, beren gorputzaren kontaktuan ninia hainbat hilabetez soinean eramatea, sortu berriari eskaintzen ahal diogun egoera hoberena da, duela gutxi arte mundu osoan egiten zen bezala, eta oraindik ere munduko biztanle anitzek, pobreak deitutako herrietan bereziki, egiten duen bezala.

Ninia soinean daramana, beste helduekin heldu jardueretan murgildua da, eta hilabete guzi horietan, niniaren zeregin nagusia, eramaten duen helduaren jokabideen, topaketen eta inguruaren behatzaile izatean datza, hau da, niniak, haren heldu jardueretan zentratua den helduarengan arreta ezartzen du, eta bizia nolakoa den ikasten du.

Ninia, hilabete batzuen buruan, behatzen dituen ekintzak bere gisara berregiten hasten da. Imitazio jokoa sortu da, ikasketarako oinarritzko tresna dena, funtsezkoa.

Urratsez urrats, umeak behaketatik esku hartzera pasatzen dira. Haur zaharragoak eta helduak imitatzeke joera hori nahita nahiez agertzen da. Hain zuzen, haurrek, beren inguruko jardueretan esku hartu nahi dute eta inguruko interesak bizi nahi dituzte, haur zaharragoek eta helduek osatzen dugun taldearen kide izatearen nahikundeak dutelako. Jarduera horiek hurbileko giza taldea ezaugarritzen dutelarik, beraz balore sozial haundia dutelarik, haurrentzat erakargarriak bilakatzen dira.

Haurrek, esplorazio sena badute, munduaz ahal duten guzia ulertzeke nahikunde sutsua dute, eta mundu horretan helduagoek egiten ditugun gauzak gauzatzeko nahikunde sutsua. Ondorioz, haurrei, haur zaharragoek eta helduek burutzen ditugun jardueretan esku hartzeko aukera eman behar diegu, esku hartze hori beren ahalekin arabera egokituz. Jarduera guzi horiek ikasketetarantz sarbideak dira, eta ikasketa horiek, haurrek beren ekimenez burutzen dituztenez, ez zaizkienez inposatzen, eraginkorrak dira.

Haur baten berezko ikaskuntza moldeak beraz, hau da ikaskuntza molde naturala, bere inguruko balore, jakitate eta gaitasunak imitazioz bere

egitea da, informalki. Ikasketa informala, ekiteko molde kontzienterik eta espliziturik gabe egiten da, behaketaz, imitazioz eta asimilazioz.

Denek, gure familiaren baitan, gure ama hizkuntza, berez, hau da inplizituki, ikasi dugu, gure moldean eta erritmoan, metodo eta pedagogia akademikorik gabe, soilik arretaz entzunez eta ingurukoak imitatuz. Horrela ere ibiltzen ikasi dugu. Bada bizitza aurrera atera ahal izateko haur batek ikasi behar dituen jakitate eta gaitasunak, horrela ikas ditzake. Eta laguntza beharrezkoa duelarik, eskatzen du eta helduagoek ekartzen diote.

Ikastolen barnetik eta kanpotik, herria haurren hezitzailea bilakatzea bultza

Haur euskaldun gehienak Ikastoletan dira; gutti batzu ez dira eskolatuak. Egoera horretatik abiatuz, Ikastolen barnetik eta kanpotik, herria haurren hezitzailea bilakatzea bultzatzea proposatzen dugu.

EHi, Euskal Herria ikastegia

EHi, herriBiltzaren Euskaldunon Elkarbizitzarako Herri Hitzarmenean oinarritzen diren jardueren eta tokien sarea da.

Jardueretan eta tokietan, hizkuntzen erabiltzean, lehentasuna eta nagusitasuna euskarari emaiten diogu.

Jarduerak edota toki erabilpenak, elgar eskaintzan oinarritutako harremanen bidez eskaintzen dira.

Jarduerak edota toki erabilpenak eskaintzen dituztenek, jarduera gauzatzera datozen edota tokia erabiltzera datozen haurren ardura beren gain hartzen dute edo ez; hartzen ez badute, haurren gurasoak edota haurren ardura hartzen duten beste heldu batzuk hurrekin datoz.

EHi-ko jarduera edota toki erabilpen eskaintza egile bakoitzak, zehazten du:

- Elgar eskaintzaren bidez zer eskuratu nahi luke;
- Jardueran haurren ardura bere gain hartzen duen edo ez;
- Zenbat pertsonentzako jarduera den;
- Zenbat irauten duen;

– Zein diren tokiaren edota jarduerarako tresneriaren erabiltzeerako arauak.

EHi-ko jarduera edota toki erabilpen eskaintza egile izateko, eskaintza egile hautagaiak herriBiltzaren Euskal Herria ikastegia Eraikitzen Batzordeari eskaintza proposamena helarazten dio eta honen oniritzia eskuratu behar du.

Ongi etorri Euskal Herria ikastegiko jardueretan esku hartu nahi duen haur eta heldu orori!

Gurekin harremanetan sartzeko: herribiltza@riseup.net

Pistolak vs. jostailu didaktikoak

Itziar Arregi

Badira urtean zehar egun jakin batzuk umeei opariak erosten dizkiegunak: urtebetetzeak eta gabonak. Normalean argi izaten dute umeek nahi dutena, eta horrek errazten dizkigu lanak helduoi. Baina tarteka, zalantzak edo dilemak ere sortzen dizkigute. Horietako kasu bati helduko diogu gaurkoak: “pistola nahi dut”.

Umeak pistola eskatzen digunean, pistola ekartzea komeni da? ala beste aukera batzuk eskaini beharko genizkioke? jostailu edo jolas didaktikoren bat behar bada?

Lehenengo eta behin jolas edo jostailu didaktiko horien atzean zer egon ohi den ikustea komeni da. Ustez hezitzaileak diren jostailuak sarri helduaren beharrei erantzutekoak izaten dira, umearen jolas beharrari erantzun orde. Eta helduok zer behar edo zer nahi izaten dugu? Eskolako edukiak lehenbailehen umeak bereganatzea. Horregatik “didaktiko” izenarekin datozen jostailu asko zenbaki eta letren ingurukoak dira.

Umeak badute interesa letrak eta zenbakiak ikasteko, eta ez dituzte arbuaiatuko horrelako jolasak. Mundua ezagutzeko gogoia dute, eta munduan letrak aurkituko dituztenez, hauek ere jolasera ekarriko dituzte. Hala ere, komeni da bistaz ez galtzea ze puntutaraino den umearen interesa, eta ze puntutaraino nahi dugun guk umeak letra zein zenbakiak jakitea. Joera honen kontzientzia badugu, errazago identifikatuko ditugu gure beharrak, eta horrek aukera hobea emango digu umearen beharrak ikusteko.

Umearen beharrak desberdinak izan daitezke, ume bakoitzak bereak. Baina badira joera orokorrak ere: argi izaten dute ze gai nahi duten jolastu (superheroiak, eguneroko errutinak, kirol kontuak, helduen profesioak, animaliak, dinosauroak, esperimentuak, esku lanak...). Interes horiek erabili daitezke oparirako ideiak biltzeko.

Aurreko dilemara itzuliz: pistolak bai? Interesa badu, zerbaitengatik izango da. Pistolekin jolasteak ez ditu umeak hiltzaile bihurtzen. Alderantziz, beren kezka



handi batzuk dira heriotza, gorputzaren iraupena, gatazka, indarra, boterea, harremanak... eta jolasak laguntzen dio kezka guzti horiek prozesatzen, dagokien lekua eskaintzen, ulertzen, eta hauen aurrean posizionatzen. Ez goaz pistolen aldeko publizitatea egitera, ez da hori asmoa, baina umearen jolasa ulertu eta onartzearen aldeko aldarrikapena bai egingo dugu. Bere kezkaren baten isla izango da jolasa, eta hori ukatzen bazaio, kezka landu ezinda eta gainditu ezinda geratzeko arriskua dauka.

Jolasa zentzu honetan ariketa emozionala da, emozio horiei guztiei aurre egiten diena. Gainera, aldi berean, emozio horiekin guztiekin erosoago sentiarazten du umea. Jolasak balio terapeutikoa du, eta beharrezkoa da esperientzia traumatikoetatik pasa diren umeentzat. Ikerketetan ikusi da lurrikara baten ostean jolasean apurtzea eta berriro konpontzea azaltzen dela (Bateman, Danby, & Howard, 2013). Beste adibide bat: EEBB-en “kode-gorria” jolasten dute, EEBB-tan eskolan simulakroak egiten dituzte norbait tiroka sartzen denerako, eta hori jolasean ikusten da, umeek biktimen babesle rola hartzen dutelarik. Jolas sinbolikoak esperientziari forma ematen laguntzen du, horrela esperientzia traumatikoak eztabaidatuz eta ongizate psikologikoa lortzen lagunduz. Jolasak umeari babestuta eta indartsu sentiarazteko aukera ematen dio, horrela, egoera traumatikoak aztertu eta ulertu ahal izateko beren terminoetan. Umeek boteregabetasun sentsazioari aurre egiten diote kontrola duten lekuetan, kasu honetan ezkutatutako jolas imaginarioan (Delaney, 2016).

Jolaserako gaiaren aukeraketan, materialaz gain, eduki imaginarioa umearen agenda emozionalak

gidatzen du, emozioak generatzeko beharrak, arriskua, mehatxua eta haustura; horregatik sortzen dituzte munstroak, animalia bihurriak, superheroiak, pertsonaia on eta gaiztoak, lapurrak, piratak, sorginak eta magoak. Pertsonaia hauen bidez, umeek arriskua eta segurtasuna, indarra eta ahultasuna, ausardia eta beldurra, irabaztea eta galtzea bezalako ideiak jorratzen dituzte. Aukera dute mehatxu ezberdinei aurre egiteko: leherketak, sumendiak, lurrikarak, gerra, bahiketak, hilketak, izozteak, berpizteak, ihes egitea. Bereziki ezagunak edo ohikoak dira izaki arriskutsuak, marrazo edo txakurrak, eta umeen jolasean leku berezia dute. Lehenengo kaosa edo mehatxua sortzen dute, eta gero horri aurre egiteko domatu edo kontrolatu egiten dute izakia. Gai ezberdinen bidez katarsi emozionala bilatzen du umeak, arauen inguruan, boterea, gatazkak, kontrola, jeloskortasuna, haserrea, zigorra, justizia, zaintza eta auto determinazioa.

Ohartzen bagara, umearen buruan dauden kezka hauek, beste neurri eta forma batean, baina helduaren buruan daudenen itxura dute. Ez da kasualitatea thriller-ek horrenbesteko arrakasta izatea bai elaberrietan eta baita pelikula edota serietan ere. Horrek ez du esan nahi horrelako gauzak ikusita hiltzaile bihurtzen garenik, baina gizakiaren kezka orokor batzuei erreferentzia egiten diete, eta hor nonbait, gure barrenetan, zerbait ukitzen dute: heriotza, gorputza, bizirautea...

Pistola eskatzen digun umeak ere bere barruan izango du kezka edo beharren bat, testuinguru seguru batean esperientzia bizi eta gainditzeko beharren bat, gai sentitzeko behar bat, jolastuz ongizatea berreskuratzen lagunduko dion behar bat. Pistola eskatzeak zer esan nahi du? pista bat eman digula umeak bere buruan gertatzen ari denaren inguruan, bere kezken inguruan. Arakatzeko ate bat ireki digula. Galderak egin diezazkiokegu gaiaren inguruan, segur aski ez du jakingo erantzuten, ez delako kezka kontzientea, baina jolasean ari denean behatzen badugu, ikusi ahal izango dugu zein den bere kezka, nola egiten dion aurre, nola sentitzen den boteretsu larria izan daitekeen arazo batean aurrean, eta nola gainditzen duen bere kezka.

Bateson, P. (2011). Theories of play. In A. D. Pellegrini (Ed.), *The Oxford handbook of the development of play* (pp. 41–47). New York: Oxford university Press.

Delaney, K. K. (2016). Playing at violence: lock-down drills, 'bad guys' and the construction of 'acceptable' play in early childhood construction of 'acceptable' play in early childhood. *Early Child Development and Care*, 187(5-6), 878-895. <https://doi.org/10.1080/03004430.2016.1219853>